

IRUÑEKO UDALA

DIAGNOSTIKOA

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa prestatzeko

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

AGIRIAREN EGILEA:

Arbuniés y Lekunberri ASOCIADOS

2025eko ekaina


Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak gauzaturiko zuzendaritza eta gainbegiratze instituzionala.


Idazketa eta partaidetza-prozesua Arbuniés y Lekunberri Asociados SL sozietatearen ardura izan da.


Hauen partaidetza izan du: herritarrak, kolektiboak, ikastetxeak, Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako profesionalak, udal langileak eta beste erakunde publiko batzuetako langileak.

PLAN4CET  Dokumentu hau Europar Batasunaren LIFE programak kofinantzatutako LIFE PLAN4CET proiektuaren esparruan egin da. Dokumentu honen edukia egileen erantzukizun esklusiboa da, eta ez da inolaz ere ulertu behar Europako Batzordearen iritzia islatzen duenik.

AURKIBIDEA

Iruñeko Udala 1

Dokumentuan erabilitako akronimoak 5

1. ZATIA. SARRERA orain arte egindako bidea aurkeztuz 6

1. Aurkezpena 7

Iruñea jasangarriago eta konprometituago bihurtzeko bidean: Ingurumen Hezkuntzak Jasangarritasunerako duen balioa 7

2. Horrela egin zen: prozesua 8

0. fasea: prestaketa lanak 8

1. fasea: diagnostiko parte-hartzailea 8

Genero ikuspegiarekin lan eginez 10

3. Informazio iturriak 11

2. zatia. Esparru estrategikoa 12

Gure lanaren oinarria 12

1. Etengabe aldatzen ari den Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren ikuspegia 13

2. Gidatzen gaituen esparru orokorra dugu 14

3. Udalaren ingurumen lehentasunak, lanaren oinarri kontzeptual gisa 22

4. Iruñeko Udaleko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza garaietara egokitzen ari da 23

3. ZATIA. DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA 25

Bide partekatu honetan ikasitakoa 25

1. Iruñeko Udaleko Gobernu Estrategiko, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda Arloaren ikuspegia 26

2. Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak dakiena 27

3. Iruñeko ikastetxeetako irakasleen esperientzia 29

4. Udal langileei galdetuz 30

5. Herritarren iritziak jasoz 31

4. zatia. DIAGNOSTIKOAREN ondorioak 36

Ekintza Plana orientatuko duten 11 ideia nagusiak 36

1. JIHren errealitatea bat dator esparru estrategikoarekin 37

2. JIHren 3 ikuspegiak ikusgai egin behar dira, eta horietan sakondu behar da 37

3. Desoreka dago xede hartzaileekiko esku-hartzean 37

4. JIHPEk hiriko gaikako ingurumen-ardatz guztiekin lan egin behar du 38

5. Prestakuntzaren bidez, JIHren zeharkakotzea politika publikoetan lortzeko bidean aitzina egin behar da 38

6. Hezkuntzaren arloan, ekintza puntualetatik prozesuetarako igarotzea sustatuz 38

7. Herritarren artean prozesu eraldatzaileak eta parte-hartzaileak sustatuz eta komunikazioa hobetuz 39

8. JIHren esku-hartzeko espazioen dibertsifikaziorantz lan eginez, Ingurumen Hezkuntzako Museoaren kudeaketaren gaineko hausnarketa sakonarekin 39

9. Metodologia berritzaileetan aitzina eginez eta haiek sendotuz 40

10. Etengabeko hobekuntza ahaztu gabe 40

11. Genero ikuspegia eta aniztasunarekiko arreta txertatuz 40

ERANSKINA: 41

INFORMAZIO OSAGARRIA eta prozesuaren aztarnak 41

1. Estrategiak eta testuingurua 42

Ingurumen Hezkuntzari buruzko dokumentu estrategikoak 42

2. Prospekzio saioa: Iruñeko Udaleko Gobernu Estrategiko, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda Arloa 47

Adostutako oinarrizko kontzeptuak 47

Ekarpenak 47

3. Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren barne hausnarketa 50

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza formalaren inguruan ikasitakoa 50

Herritarrekin egindako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren inguruan ikasitakoa 52

Udalaren ingurumen egokitzapena 53

Ingurumen Hezkuntzako Museoa 54

4. Eztabaida taldea - Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua 58

Ekarpenak 58

5. irakasleekin egindako jardunaldia 62

Esparrua 62

Ekarpenak 64

6. Web galdetegia: Iruñeko Udaleko langileak 67

Ekarpenak 67

7. Web galdetegia: orokorra 75

Ekarpenak 75

DOKUMENTUAN ERABILITAKO AKRONIMOAK

- ANFAS. Adimen-desgaitasuna edo garapenaren nahasmendua duten pertsonen eta haien familien aldeko Nafarroako elkartea.
- APYMA. Gurasoen elkartea.
- HAI2030. Iruñeko Hiri Agenda 2030.
- Ud. Udalak.
- CEA. Gasteizko Ingurumen Azterlanen Zentroa.
- CENEAM. Ingurumen Hezkuntzako Zentro Nazionala.
- HLHI. Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxea.
- II. Ikastetxe Integratua edo Lanbide Heziketakoa.
- CO2. Karbono Dioxidoa.
- EHAEO. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala.
- LHI. Lehen Hezkuntzako Ikastetxea/Eskola Publikoa.
- H. Hezkuntza.
- IH. Ingurumen Hezkuntza.
- JIH. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza.
- JIHNE. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategia.
- NGB. Naturagune Babestuak.
- DBH. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- ETKAE2030. Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Iruñeko Estrategia 2030.
- NUKF. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa.
- LH. Lanbide Heziketa.
- BHI. Bigarren Hezkuntzako Institutua.
- LBEAE. Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zuria.
- I. Ingurumena.
- IM. Iruñerriko Mankomunitatea.
- ED/EE. Ez daki/Ez du erantzun.
- BLB. Birgaitzean Laguntzeko Bulegoa.
- GJH. Garapen Jasangarrirako Helburuak.
- ONCE. Lankidetzarako eta Desgaitasuna duten Pertsonen Gizarteratzerako ONCE Fundazioa.
- GKE. Gobernuz Kanpoko Erakundeak.
- EKB. Eraldaketa Komunitariorako Bulegoak.
- JIHEP. Espainiako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Plana.
- JIHPE. Iruñeko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa.
- SEEP: Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana.
- UGESP. Udalaz Gaindiko Eraginpeko Sektore Plana.
- IHP. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua.
- PBHS. Pirinioak Bizirik Hezkuntza Sarea.
- SS. Sare Sozialak.
- DJHS. Drainatze Jasangarriko Hiri Sistemak.
- AHT. Abiadura Handiko Trena.
- NUP. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- UNAV. Nafarroako Unibertsitatea.

1. ZATIA. SARRERA

ORAIN ARTE EGINDAKO BIDEA AURKEZTUZ



1. AURKEZPENA

Iruñea jasangarriago eta konprometituago bihurtzeko bidean: Ingurumen Hezkuntzak Jasangarritasunerako duen balioa

Esku artean duzun dokumentua urrats erabakigarria da Iruñea jasangarriago, bidezkoago eta bere ingurunearekin konprometituago bihurtzeko bidean. Genero eraginaren azterketa barne hartzen duen Iruñeko Udalaren Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa prestatzeko diagnostiko hau, entzuten, ikasten eta etorkizuna irudikatzen jakin duen prozesu kolektibo baten emaitza da.

Lan honetan, dokumentu-iturriak, barne hausnarketarako guneak eta herritarrekin, irakasleekin eta udal langileekin egindako topaketak uztartu dira. Horrez gain, ikuspegi tekniko eta parte-hartzaileari esker, tokiko JIHren gaineko ikuspegi partekatua eraiki ahal izan da. Emaitza diagnostiko bat baino gehiago da: Iruñeak hiri-eredu kontzienteago, erantzunkideago eta bidezkoagorantz eboluzionatzen jarraitzen ahal duela erakusten duen ibilbide-orriaren oinarria da.

Dokumentuak lau zati nagusi eta eranskin bat ditu:

- **Sarreran** orain arte egindako bidea eta prozesu metodologikoaren oinarriak aurkezten dira.
- **Esparru estrategikoak** jarduna gidatzen duten kontzeptuzko gakoak eskaintzen ditu: JIHren ikuspegi dinamikotik hasi eta esparru globalekin eta udal lehentasunekin duen loturaraino.
- **Diagnostikoaren laburpenak** Udaleko arloekin, irakasleekin, herritarrekin eta talde teknikoekin egindako lanetik ateratako ikaskuntzak biltzen ditu.
- **Ondorioak.** Ondorioek esparru estrategikoan eta diagnostikoaren laburpenean oinarritutako 11 ideia nagusi jasotzen dituzte. Ideia horiek gidatuko dute etorkizuneko Ekintza Plana.
- Dokumentuaren **Eranskinak** prozesua sakonago ezagutzeko eta haren gardentasuna bermatzeko informazio osagarria biltzen du. **Erreferentziazko estrategiak eta testuingurua** jasotzen ditu, baita **prospekzio saioen**, **Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren barne hausnarketen**, **eztabaida taldeen eta irakasleekin egindako jardunaldien** xehetasunak ere. Halaber, udal langileei eta herritarrei zuzendutako **web galdetegiak** biltzen ditu. Material horiek guztiek **prozesu parte-hartzailearen aztarna** osatzen dute: agerian uzten dituzte diagnostikoa osatu duten eta **Iruñeko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako etorkizuneko Plan Estrategikorako** oinarri sendoa izanen diren askotariko ahotsak, ikuspegiak eta ekarpenak.

Diagnostiko honen bidez, Iruñeak **hezkuntza eraldatzailearen** aldeko konpromisoa berresten du: gure hirian bizitzeko, hiria kudeatzeko eta zaintzeko moduan benetako aldaketak eragiten ahal dituen hezkuntzaren aldekoa. **Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza**, beraz, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko funtsezko tresna da. Genero ikuspegia, parte-hartzea eta berrikuntza txertatzen ditu errespetuan, lankidetzan eta itxaropenean oinarritutako hiri kultura berriaren eragile gisa.

Azken batean, dokumentu hau Iruñea jasangarri, bizi eta bere etorkizunarekin konprometituaren alde **elkarrekin ikasten eta lanean jarraitzeko** gonbidapena da.

2. HORRELA EGIN ZEN: PROZESUA

Material hau prestatzeko, bulegoko lana eta partaidetzarako hainbat ekintza uztartu dira, eta adituen iritzia hartu da kontuan. Aldez aurreko plangintzan zehaztutako faseei jarraitu zaie:

0. fasea: prestaketa lanak

- **HASIERAKO KOORDINAZIO BILERA** Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuarekin, beharrak zehazteko, proposamena doitzeko eta zereginak nahiz egutegia antolatzeko.
- **LAN PLANAREN** PRESTAKUNTZA, laguntza teknikoaren eskutik, zereginak eta egutegia doituta.
- **KOORDINAZIOA UDAL PRESTAKUNTZAKO PROIEKTUA GARATZEN DUEN TALDEAREKIN.** Harremanak eta bilera jasangarritasun gaiei buruzko barne prestakuntzako planaren ardura duen taldearekin.

Emaitza:

Lan Plana

Oinarrizko lan-akordioak eta emaitzak

1. fasea: diagnostiko parte-hartzailea

DOKUMENTU IKERKETA eta PROSPEKZIO TEKNIKA PARTE-HARTZAILEAK biltzen ditu, elkarren osagarri diren hainbat ekintzatan antolatuta:

1. Iruñeko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzari buruzko **ALDEZ AURREKO AZTERKETA**.
   - Tokiko eta eskualdeko testuingurua
   - Estrategiak
   - Udal egitura eta eskumenak
   - Esperientzia arrakastatsuak
   - Xede hartzaileak
   - Emaitzen txostenak eta urteko ebaluazioak, besteak beste.
2. **PRESTAKETA BILERA Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuarekin**, Arloko Zuzendaritzarekin eginen den prospekzio saioa antolatzeko.
3. **PROSPEKZIO SAIOA Gobernu Estrategikoko, Hirigintzako, Etxebizitzako eta 2030 Agendako**

Arloarekin, lanaren inguruko itxaropenak eta beharrak ezagutzeko eta haren horizontea eta esparru orokorra zehazteko.
Bi noranzkoko bilera estrategikoa da: elkarrekin hausnartzeko, lana testuinguru zabalago batean jartzeko eta haren xedea eta irismena azaltzeko.

4. **EZTABAIDA TALDEA Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuarekin.** JIH programaren bilakaera elkarrekin aztertzeko bilera, honelako galderen inguruan: zer dugu eta zer behar dugu? eta ikasitako ikasgaien berrikuspena.

5. **JARDUNALDIA HEZKUNTZA FORMALEKO IRAKASLEEKIN**, udal mailan eta haien ikastetxeetan JIHrekin erlazionatuta dituzten beharrak eta interesak zehazteko.

6. **FOKUA HEDATUZ. INTERES-TALDEEN BEHARREN AZTERKETA.** Bi WEB GALDETEGI erabili dira: bata Udalari zuzendua, eta bestea herritarrei, kanpoko erakundeei eta ikastetxeei. Helburu bikoitza izan dute, prospekzioari eta etorkizuneko proposamenei begirakoa, gaiak, tresnak eta intereseko beste kontu batzuk aztertzeko.

7. **TARTEKO KOORDINAZIO BILERA**, diagnostikoa egiten ari den bitartean erdietsitako aurrerapenak baloratzeko.

8. **DIAGNOSTIKO DOKUMENTUA**, lan fase osoan bildutako informazioa modu argi eta egituratuan jasotzen duena, hurrengo faseko ekintzen proposamenari begira.

Emaitza:

Plan Estrategikoaren diagnostiko dokumentua

Genero ikuspegiarekin lan eginez

Informazioa biltzean nahiz eredua planteatzean genero ikuspegia hartzen da kontuan.

Hala, idatzizko dokumentuak eta horiek prestatzeko parte-hartzeko metodologiak inklusio eta berdintasun irizpideei jarraikiz gauzatzen dira, JIHPEren diseinuak hautemandako desberdintasunak arintzen lagun dezan, bereziki emakumeen eta gizonen artekoak. Horretarako, neurri hauek hartu dira:

- Parte-hartzea eta kontziliazioa errazten dituzten daten, ordutegien eta lan metodologien zehaztapena.

- Emakumeek, gizonek eta parte-hartzaileen askotariko profilek sarbidea izatea errazten duten eta parte-hartze orekatua bermatzen duten ekintza eta metodo askotarikoen diseinua.

- Proiektu osoan, hizkera eta komunikazio inklusibo eta ez-sexistaren erabilera, bai idatzizko testuetan bai ahozko hizkeran.

- Komunikazio eta zabalkunde ekintzetan berdintasun irizpideak kontuan hartzen dira: eredu eta rol berdinzaleak agerian jartzea, irudi estereotipatuak saihestea eta emakumeak zein gizonak berdintasunezko egoeran erakusten dituzten jokabide ereduak azaltzea.

- Diagnostiko eta prospekzio faseetan: datuen sexuaren araberako bereizketa, eskuragarri daudenean.


- Emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna errazten duten mekanismoak eta saioen dinamizazioa.

- Parte-hartzeko saioetan zereginak emakumeen eta gizonen artean bidezko eran banatzen direla bermatzen da. Lehentasunak ezarri behar diren ekintzetan, genero ikuspegiaren araberako azterketa egitea.

- Prozesu osoan, proposamenen zein emaitzen onurak emakumeen eta gizonen artean bidezko eran banatzeko lan egiten da; halaber, lan osoan zehar parte-hartzaileen kopuruaren sexuaren araberako jarraipena egiten da.

3. INFORMAZIO ITURRIAK

JASANGARRITASUNAREN NAZIOARTEKO ESPARRUA

JIH-RI BURUZKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOAK
  
UDAL ESPARRU ESTRATEGIKOA
  
PROSPEKZIORAKO ETA PARTE-HARTZEKO TRESNAK
 Prospekzio saioa: Iruñeko Udaleko Gobernu Estrategiko, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda Arloa	 Barne hausnarketa: Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua	 Eztabaida taldea: Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua
 Jardunaldia Iruñeko ikastetxeetako irakasleekin	 Web galdetegia: Iruñeko Udaleko langileak	 2. web galdetegia: herritarrak, kanpoko erakundeak eta ikastetxeak

2. ZATIA. ESPARRU ESTRATEGIKOA

GURE LANAREN OINARRIA



1. ETENGABE ALDATZEN ARI DEN JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZAREN IKUSPEGIA

Terminoa duela bost hamarkada sortu zenetik (Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra, Stockholm, 1972), kontzeptua sendotu eta garatu egin da gure gizartean, errealitate aldakorraren eta nazioarteko jarraibideen arabera eboluzionatu duen aldi berean.

> «Ingurumen hezkuntza etengabeko prozesua da. Hartan, pertsonek eta komunitateek beren ingurunearen kontzientzia hartzen dute, eta egungo zein etorkizuneko ingurumen arazoak bakarka nahiz taldean ebazteko behar dituzten ezagutzak, balioak, trebetasunak, esperientzia eta erabakitasuna berenganatzen dituzte».

Giza Ingurumenari buruzko Nazio Batuen Biltzarra, Stockholm, 1972

Hasieran ingurumen hezkuntza deitu zitzaion; gero, garapen jasangarrirako hezkuntza izatera igaro zen. Gaur egun, berriz, eraikitzen ari den izendapen berri bat erabiltzen da: Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza (JIH). Izendapen horrek ingurumen hezkuntza esanahi zabalean hartzen du, eta jasangarritasunaren kontzeptua txertatzen du. Ildo horretan, Ingurumen Hezkuntzaren hasierako ikuspegia, naturalistagoa eta espezie jakin batzuen nahiz naturaguneen babesari lotuagoa, eremu globaletara zabaldu da. Eremu horietan, ingurumeneko, gizarteko eta ekonomiako gaiak ikuspegi osoagotik lotzen zaizkio elkarri.

Horren guztiaren ondorioz, JIH aldaketarako tresna orokor bihurtu da hainbat ikuspegitatik: berez **hezkuntza tresna**, eta, aldi berean, lurraldearen jasangarritasuna **kudeatzeko tresna** garrantzitsua da.

Gainera, klima eta ingurumen krisiak, teknologia berrien eta sare sozialen agerpenak eta pandemiaren ondoko aztura-aldaketek bilakaera hori bizkortu dute. JIHren lehentasunei, metodologiei eta tresnei buruzko hausnarketa sustatu dute, eta **gizartea eraldatzeko** osagai sendoa duen tresna integratzaile bihurtu dute. Definizio berri baterantz aitzina eginez:

> «Klima- eta ingurumen-larrialdien aurrean, baita erronka sozioingurumeneko konplexuen aurrean ere, jarduteko ikaskuntzak, hausnarketak, jarrerak eta gaitasunak garatzera bideratutako HEZKUNTZA, KOMUNIKAZIO ETA PARTE-HARTZEKO ekintzak eta prozesuak. Trantsizio ekologiko bidezkorantz aurrera egitea ahalbidetzen dute, eta genero ikuspegia hartzen dute kontuan».

JIHEP. Espainiako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Plana, 2021-2025.

Era berean, jarduera eremuak eta xede hartzaileak ere askotarikoagoak dira. Hasieran, JIH hezkuntza formalarekin eta haurrekin egindako lanarekin lotuta zegoen batez ere; gaur egun, ordea, helduak, profesionalak, administrazioa, GKEak, industriak eta herritarrak ere barne hartzen ditu, gizarteko sektore guztietara iritsiz. Ekintza eremuekin gauza bera gertatu da: prestakuntzako ohiko jarduerak osatzeko, komunikazioko, parte-hartzeko eta ikerketako proposamenak txertatu dira.

2. GIDATZEN GAITUEN ESPARRU OROKORRA DUGU



Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH, 2015)

2030eko GJHak jasangarritasunaren arloko gure esparru estrategiko orokorra dira. Pertsona guztiendako etorkizun jasangarria erdiesteko plan nagusia osatzen dute. Elkarri lotuta daude, eta egunero aurre egin behar diegun erronka globalak jasotzen dituzte: pobrezia, desberdintasuna, klima, ingurumenaren degradazioa, oparotasuna, bakea eta justizia. Nazio Batuek zehaztutako 17 helburuek gizarte jasangarri eta oparoak erdiesteko kontuan hartu behar diren alderdiak biltzen dituzte.

Jasangarritasunaren esparru estrategikoa

1. Pobreziaren amaiera
2. Zero gosea
3. Osasuna eta ongizatea
4. Kalitatezko hezkuntza
5. Genero berdintasuna
6. Ur garbia eta saneamendua
7. Energia eskuragarria eta ez-kutsakorra
8. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa
9. Industria, berrikuntza eta azpiegitura
10. Desberdintasunen murrizketa
11. Hiri eta komunitate jasangarriak
12. Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
13. Klimaren aldeko ekintza
14. Urpeko bizitza
15. Lurreko ekosistemen bizitza
16. Bakea, justizia eta erakunde sendoak
17. Helburuak erdiesteko aliantzak

Helburu horiek abiapuntua dira udal estrategietarako; besteak beste, Iruñeko Hiri Agenda 2030erako, Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Estrategiarako eta Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoaren prestaketarako.



Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zuria (LBEAE, 1999)

LBEAE esparru-dokumentua da, eta bertan jarduera eremuak nabarmentzen dira. Horien bidez, JIHko ekintzak lau multzo handitan antolatzen ahal dira, erdietsi nahi duten lehentasunezko helburuaren arabera: **informazioa eta komunikazioa; prestakuntza eta gaikuntza; parte-hartzea; eta ebaluazioa eta ikerketa.**

Modu parte-hartzailean prestatutako dokumentu honek funtsezko eginkizuna izan du Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren ikuspegi estrategikoan. Ikuspegi estrategikotik oraindik ere indarrean dagoen oinarria da, eta horretan oinarritzen ahal da.

JIHPErako jarduera eremu motak

TRESNAK ETA JARDUERA EREMUAK	
Informazioa-komunikazioa	**Prestakuntza eta gaikuntza**
Herritarrak sentsibilizatzeko eta informatzeko askotariko ekintzak biltzen ditu. Hala nola informaziorako tresnak, komunikaziorako kanpainak eta ondarearen interpretaziorako ekintzak.	Prestakuntza askotariko taldeei zuzendutako hezkuntza ekintza da; gaikuntza, berriz, profesionalei beren lana hobeki egiteko gaitasun zehatzak irakasteari lotuta dago. Hiru motatan banatzen da: hezkuntza formala, ez-formala eta informala. Lehenak eskola eremuko ekintza arautuak biltzen ditu; ez-formala, berriz, eskolatik kanpo edo haren osagarri egiten da. Azkenik, ohikoak ez diren ikaskuntza prozesuei dagokie hezkuntza informala, berariazko hezkuntza plangintzarik edo asmorik ez dagoenean ere.
Parte-hartzea	**Ikerketa-Ebaluazioa**
Norberaren bizitzari eta bizi den komunitateari eragiten dieten gaiei buruzko erabakiak partekatzeko prozesua da. Erabakiak hartzean, hobekuntza ekintzetan, boluntariotzan edo konpromiso kolektiboetan parte hartzea izaten ahal da, besteak beste.	Eremu honek, alde batetik, ikerketa teorikoko, ikerketa-ekintzako eta ikerketa aplikatuko ekintzak biltzen ditu; eta, bestetik, ingurumen hezkuntzako proiektuak aztertzeko eta haien jarraipena egiteko ekintzak. Horien guztien helburua ezagutza handitzea eta etengabe hobetzea da.



EEspainiako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Plana (JIHEP, 2021-2025)

JIHEPk Liburu Zuria zehazten du, egungo gizarte eta ingurumen errealitatera eta esparru estrategikora egokituta. Oinarrizko printzipioak ezartzen ditu, eta ekintzak sei ardatz operatibotan antolatzen ditu, bakoitzari dagozkion ekintzekin. Bereziki esanguratsua da esku artean dugun lanerako, eta haren planteamendua JIHPEra eraman ahal da:

- **1. ardatza: JIH politika publikoetan zeharkakotzea:** JIHPE prestatzeko eta JIHko talde egonkorrak izateko beharra ezartzen du.
- **2. ardatza: JIHko programen eta jardueren berriztapena, ikerketa eta hobekuntza:** xede hartzaileekin prozesuan oinarritutako proiektu eraldatzaileak lehenesteko ikuspegia jasotzen du.
- **3. ardatza: Jasangarritasunaren txertaketa hezkuntza eta prestakuntza sisteman:** prozesuan oinarritutako JIH formal eta eraldatzailea eta irakasleen prestakuntzan oinarritua proposatzen du.
- **4. ardatza: JIHren profesionalizazioa eta sendoketa:** JIHko talde egonkorrak izatearen eta JIHko profesionalen eta, oro har, langileen prestakuntzaren garrantzia.
- **5. ardatza: Esku-hartzeko agertokiak eta espazio espezifikoak:** JIHren sustapena berariazko ekipamenduetan edo beste espazio publiko batzuetan, esku-hartzeko eredu berriekin (JIHrako ekipamenduen kudeaketa soziokomunitarioa, JIHrako berariazkoak ez diren ekipamendu publikoen erabilera eta abar).
- **6. ardatza: Komunikazioa, dibulgazioa eta herritarren ekintza:** prozesu eraldatzaileak, herritarren aktibazioa, eraikuntza kolektiboa eta sareko lana lehenesteko beharra, esperientzia inspiratzaileen eta jardunbide egokien bidez.

JIH-REN OINARRIZKO PRINTZIPIOAK
• Etengabeko ikaskuntza prozesua. • Gizarte eta ingurumen arloetako gaiak eta egungo garapen eredua ulertzen laguntzen du. • Aurrean dugun krisiari eman beharreko erantzunak konplexuak direla onartzen du. • Pentsamendu kritikoa eta berritzailea sustatzen du. • Arazoak konpontzen esku hartzeko duten gaitasunaren kontzientzia pizten du pertsonengan. • Tokikoa eta globala, pertsonala eta kolektiboa errealitate beraren parte gisa lotzen ditu. • Herritarren parte-hartzea, sareko lana eta eraikuntza kolektiboa funtsezko elementutzat hartzen ditu. • Genero ikuspegia, justizia soziala, giza eskubideen ikuspegia eta 2030 Agenda hartzen ditu kontuan. Talde zaurgarrienei arreta ematen die, gizarte jasangarriagoa, bidezkoagoa, irisgarriagoa eta ekitatiboagoa eraikitzeko.

ARDATZ OPERATIBOAK	
JIHren zeharkakotzea politika publikoetan	**JIHko programen eta jardueren berriztapena, ikerketa eta hobekuntza**
Ingurumen dimentsioa eta horrekin batera doazen eta hura indartzen duten ingurumen hezkuntzako estrategiak eta ekintzak politika publiko guztietan txertatzea, klima- eta ingurumen-larrialdiari aurre egiteko. Autonomia erkidegoetako eta tokiko administrazioen organigrametan JIHko unitateen sustapena	Ikuspegiak, metodologiak, esku-hartzeko estrategiak, xede hartzaileak eta gaiak birplanteatuko dituen JIH sustatzea. Horregatik, garrantzitsua da etengabeko hausnarketa eta ekintza prozesu bat antolatzea; hartan, gizarte eta hezkuntza ikerketa ezinbestekoa izan behar da berriztapenak eta haien eragina aztertzeko eta ebaluatzeko.
Jasangarritasunaren txertaketa hezkuntza eta prestakuntza sisteman	**JIHren profesionalizazioa eta sendoketa**
Lurralde eta maila guztietako hezkuntza eta prestakuntza sistemek JIH txertatu behar dute curriculumetan, eta ikastetxe jasangarriak sustatu behar dituzte. Ikastetxe horiek beren ingurunearen eraldaketa ekologiko eta sozialaren eragile bihurtzen ahal dira, hezkuntza arloko esku-hartzeak ikastetxeetatik harago, komunitate osora, zabaltzen badituzte.	JIHko profesionalen sektorea sendotu eta indartu behar da, eta behar dituen baliabideak eta inbertsioa, prestakuntza aukerak (hezkuntza ikuspegien berrikuntzarekin bat datozenak) eta elkartzeko eta antolatzeko guneak eman behar zaizkio.
Esku-hartzeko agertokiak eta espazio espezifikoak	**Komunikazioa, dibulgazioa eta herritarren ekintza**
JIHko ekipamendu espezializatuak bitartekari eta eragile estrategiko funtsezkoak dira Espainiako gizartean trantsizio ekologikoa sustatzeko eta bizkortzeko; horregatik, haiek indartzea garrantzitsua da. Beste ekipamendu mota batzuetan ere (kultura erakundeetan, auzo etxeetan, zentro soziokulturaletan, aisialdiko eta animazio soziokulturaleko zentroetan, desgaitasuna duten pertsonendako ekipamenduetan, egoitza eta eguneko zentroetan, migratzaileendako arreta zentroetan…) hezkuntza berriztapenaren ikuspegitik programak eta jarduerak antolatzen ahal dira, hartzaileei, helburuei, metodologiei eta testuinguruei dagokienez.	Estrategia sendo eta koordinatua garatzea garrantzitsua da JIHren mezuak gizarte osora iristeko, ohiko hedabideekin eta eragile zein kanal berriekin elkarlanean. Helburua ingurumen politikak eta hezkuntza esku-hartzeak eskala handian zabaltzea eta herritarrak ingurumen krisiari irtenbideak bilatzen inplikatzea da. Funtsezkoa da jardunbide egokiak eta proiektu eraldatzaileak agerian jartzea, eta garrantzi ekologiko eta soziala duten eremu guztietan parte-hartzeko, eraikuntza kolektiborako, sareko lanerako eta herritarren inplikaziorako prozesuak ezartzea.

JIHPE prestatze

JIHko talde egonkorra

Prozesuan oinarritutako hezkuntza formalare

Museoaren kudeaketa eredu

JIHko talde egonkorra

Udal Prestakuntza Plana

Herritarreken egindako prozesu eraldatzaileen lehenespena



Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategia (JIHNE, 2030)

Duela gutxi berritutako JIHNE bat dator JIHEPrekin egiturari eta ardatz operatiboei dagokienez.

ADNPyr proiektuaren esparruan abiatu zen, parte-hartzean eta eraikuntza kolektiboan oinarritutako metodologia baten bidez. Metodologia hori berritzailea da, eta beste testuinguru batzuetan erabiltzen eta errepikatzen ahal da. Horrez gain, Nafarroako JIHren egungo egoerari eta etorkizuneko aukerei buruzko zenbait alderdi interesgarri jasotzen ditu:

Metodologia parte-hartzailea eta eraikuntza kolektiboa

- Erakunde publikoek edo bestelakoek sustatutako JIHko ekintza gehienak puntualak dira.
- Lurraldean esku-hartzeko bi ikuspegi daude: sistemikoa, natur ingurunearekiko harreman ereduari lotua; eta antropozentrikoa, lurraldearen erabilerari lotua.
- Informazioaren, prestakuntzaren, parte-hartzearen eta ikerketaren eremuak ez daude orekatuta; azken biak gutxiago garatu dira.
- Lehentasunezko xede hartzailetzat hartzen dira herritarrak, haur eta gazteak eta administrazioetako eta sektore ekonomikoko langile teknikoak eta politikariak.

Nafarroako JIHren egoeraren balorazioa	6,6/10
Nafarroako JIHko ekintzen motak eta iraupena	Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak, mankomunitate batzuek, NILSAk eta Iruñeko Udalak, besteak beste, urtebeteko edo urte anitzeko programak eskaintzen dituzte. Taldeei, herritar guztiei eta eskola eremuari zuzendutako iraupen laburreko ekintzek (ordubete edo bi ordukoak) osatzen dituzte programa horiek. Ingurumen arloko gaiekin zuzenean erlazionatuta ez dauden kolektiboek, udalerriek eta administrazioek, oro har, jarduera puntualak proposatzen dituzte, hala nola hitzaldiak, jardunaldiak edo ibilaldiak. Horien iraupena ordubetetik egun osora bitartekoa izaten da.
Etorkizuneko lehentasunezko gaiak	Lurraldearen bi ikuspegi ageri dira: **Ikuspegi sistemikoa**, natur ingurunearekiko erlazio ereduari lotua: • Biodibertsitatea. • Ingurumena eta garapen jasangarria. **Ikuspegi antropozentrikoa**, lurraldearen erabilera gizakiaren ikuspegitik aztertzen duena: • Lurraldearen kudeaketa. • Ekonomia zirkularra. • Arrisku naturalak. • Klima-aldaketa.
Lan eremuak eta tresnak	Eremuen arteko orekarako bilakaera: informazioa, prestakuntza, parte-hartzea eta ikerketa. Horrek azken biak gehiago garatzea eskatzen du. Aurrez aurreko metodologia esperientzialak eta teknologikoak uztartuz.
Lehentasunezko xede hartzaileak	Herritarrak. Gazteak eta haurrak. Administrazioetako ordezkari politikoak eta langile teknikoak. Sektore ekonomikoak.



Iruñea hiriko Ingurumen Hezkuntzako Estrategia (2017-2019)

Plan estrategiko horri esker, Iruñean lehen hausnarketa bateratua egin zen. Gainera, udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren esperientziatik ikasitakoak utzi zituen; dokumentu honetako barne hausnarketan eta eztabaida taldean jaso dira. Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua udal plantillan lau teknikarirekin sartu zenean, Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Estrategia prestatu zen, 2017an. Xede hartzaile desberdinei zuzendutako hiru ekintza-ildo zituen, eta zeharkako ildorekin osaturiko beste hiru:

XEDE HARTZAILEEN ARABERAKO EKINTZA-ILDOAK	ZEHARKAKO EKINTZA-ILDOAK
• Ingurumen hezkuntza formala hezkuntza-komunitateekin. • Ingurumen hezkuntza herritarrendako. • Udalaren ingurumen egokitzapena, udal langileei zuzendua.	• Komunikazioa eta zabalkundea. • Prestakuntza. • Azpiegituren kudeaketa (Ingurumen Hezkuntzako Museoa).

Dokumentu honek aurreko programei lekua egiten die, hala nola Jasangarritasunean Hezten (eskola) eta Jasangarritasunaren Eskola (herritarrak) programei, nahiz aldaketa handiekin bada ere. Aldi berean, programa berriak sortzeko aukera zabaltzen du. Helburua Ingurumen Hezkuntza hiri osora hedatzea eta Ingurumen Hezkuntzako Museotik harago eramatea da.

Baterako hausnarketa
Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren esperientziatik



2021eko Iruñeko Hiri Agenda 2030 (IHA2030)

- «Hiri eta komunitate jasangarriak» 11. GJHa garatzen duen Espainiako Hiri Agendaren egituratik abiatzen da:
- Haren balioak eta 1. dimentsioa (Iruñea berdea, ekologikoa eta klimarekin engaiatua) dira JIHPE prestatzeko alderdirik esanguratsuenak.
- Ingurumen dimentsioari lotutako proiektu estrategikoek erreferentziazko gaikako ardatz eta ingurumen ekintza nagusiak zehazten laguntzen digute: Ingurumen Hezkuntza, Energia Eraginkortasuna eta Klima Aldaketa, Mugikortasun Jasangarria, Biodibertsitatea eta Birnaturalizazioa, Kontsumo Jasangarria eta Hiri Kudeaketa Jasangarria.

DIMENTSIOA	EKINTZA-ILDOA
1. Iruñea berdea, ekologikoa eta klimarekin konprometitua.	L1. Iruñea, mugikortasun osasungarri, jasangarri, inklusibo eta irisgarriaren alde. L2. Iruñea, klimarekin eta trantsizio energetikoarekin konprometitutako hiria. L3. Iruñea naturala, ekologikoa eta arduratsua.
2. Gizarte inklusioaren aldeko Iruñea.	L4. Iruñea, hiri integratzailea. L7. Iruñea, etxebizitza eskuragarri, irisgarri eta energiaren aldetik efizientea duen hiria.
4. Iruñea sortzailea eta kulturala, turismo jasangarriarekin.	L11. Iruñea, turismo jasangarria duen hiria.
INGURUMEN DIMENTSIOAREKIN ZUZENAGO LOTUTA DAUDEN PROIEKTU ESTRATEGIKOAK	
Ingurumen hezkuntza	PE116 Ingurumen sentsibilizazioa eta parte-hartzea.

	PE202 Ikaskuntza eta Zerbitzua. PE402 Ekoartea.
Energia eraginkortasuna eta klima-aldaketa	PE103 Karbonoan neutroa den mankomunitatea. PE113 Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Estrategia. PE219. Auzoen berroneratze energetikoa.
Mugikortasun jasangarria	PE104 Mugikortasuna kudeatzeko plataforma. P105 Eskolarako bideak. PE106 Iruñerriko Bizikleta Plan Integrala. PE107 Iruñerriko mugikortasuna (HMJP). PE109 Oinez ibiltzeko Iruñea. PE112 Mugikortasun elektrikoa. PE403 Zikloturismoaren sustapena.
Biodibertsitatea eta birnaturalizazioa	PE101 Azpiegitura berdeak: azterketa eta plangintza. PE102 Ibai igarobidea. PE117 Iruñerriko Ezkaba parkea.
Kontsumo jasangarria	PE115 Elikadura osasungarria eta jasangarria. PE207 Kontsumo arduratsua.
Hiri kudeaketa jasangarria	PE114 Hondakinen kudeaketa. PE220 Hiri Plangintza Jasangarria. PE205 Hiri berroneratzea.

Erreferentziazko gaikako ardatz nagusiak eta ingurumen ekintzak ematen ditu



ETKAE2030. Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Estrategia (2021)

Azkenik, ETKAE-2021 estrategia bat dator Iruñeko Hiri Agendarekin ingurumen dimentsioan, eta bost helburu estrategikotan eta haiek garatzen dituzten 24 lerro estrategikotan antolatzen da. Lan honetarako bereziki interesgarria da Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuarekin eta JIHPEren garapenarekin zuzeneko lotura duen 5. helburu estrategikoa («Iruñeko gizartean klima-kultura ezartzea»).

Helburu horren neurriak bat datoz JIHEPren eta JIHNEren ekintza batzuekin, hala nola:

- JIHko estrategien prestaketa.
- Prozesu eraldatzaileen eta parte-hartzaileen sustapena.
- Irakasleendako, udal langileendako eta ordezkari politikoendako prestakuntza programen gauzapena.
- Herritarrekiko komunikazioaren hobekuntza.
- Administrazioko eragileen arteko koordinazio eta komunikazio mekanismoen ezarpena.

ETKAEk Iruñeak klima-aldaketari egiten dion ekarpena murrizteko, hiriak klima arriskuei ematen dien erantzuna hobetzeko eta herritarren nahiz haien ondasunen osasuna eta ongizatea bermatzeko konpromisoa jasotzen du. Estrategia gisa aurkezten da, bidezko trantsizioa eta energia subiranotasuna sustatzeko, energia berriztagarriak, teknologia berriak eta herritarrek, elkarteek, enpresek, industriek eta hiriko eragileek beren gain hartu behar dituzten rol berriak garatuz.

ETKAE bat dator Iruñeko Hiri Agendaren ingurumen dimentsioarekin, haren bost helburu estrategikoek eta horietatik eratorritako 24 lerro estrategikoek erakusten dutenez.



JIHPEren helburu nagusietako bat 5. helburu estrategikoa «Iruñeko gizartean klima-kultura ezartzea» garatzea da. Horretarako beharra 20. lerro estrategikoan dago jasota («Herritarren klima-kultura»), 5.1 neurriaren bidez: 5.1. neurria. ETKAEren helburuak txertatzen dituen eta genero eraginaren azterketa duen Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategiko berriaren prestaketa.

ETKAE2030en 5.1 neurriak Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa eguneratzea agintzen du.

5. HELBURU ESTRATEGIKOAN JIHPE-REKIN ERLAZIONATUTAKO BESTE NEURRI BATZUK
LE20: HERRITARREN KLIMA KULTURA
5.2. neurria. Herritarren eta klima-ekintzaren eragileen parte-hartze mekanismo eta prozesuen sorrera, denboran zehar jarraitutasunez, ETKAErekin erlazionatutako alderdietan.
5.3. neurria. Klima-aldaketaren eta trantsizio ekologikoaren inguruko gazteen parte-hartze organoaren sorrera.
5.4. neurria. Gizartean inpaktua eta eraldaketa sortzeko gaitasuna duten komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak zein parte-hartze eta prestakuntzako jardunaldi berritzaileak egitea.
5.5. neurria. Herritarrei zuzendutako mugikortasun jasangarria sustatzeko kanpaina.
LE21: KLIMA KULTURA ESKOLETAN
5.6. neurria. Klima-kultura ikastetxeetako proiektuetan txertatzea eta berariazko proiektuak garatzea trantsizio ekologikoaren inguruan.
5.7. neurria. Prestakuntza programa klima-aldaketara egokitzeari buruzko ezagutza hobetzeko, eskoletako langileei (zuzendaritzakoak eta irakasleak) zuzendua.
LE22: KLIMA KULTURA UDALEAN
5.9. neurria. Barne prestakuntzako plan bat gauzatzea, bai arduradun politikoendako bai klima-ekintzan eta hiriaren eraldaketan zuzenean inplikatutako lanpostuetarako, egokitzapen eta arintze helburuak erdiesteko.
LE23: KOMUNIKAZIOA

5.10. neurria. Eredugarritasun instituzionala sustatzea eta hura erakargarri gisa hedatzea maila desberdinetan, trantsizio energetikoa eta klima-aldaketarako egokitzapena hiri-markan txertatuta.

5.11. neurria. Herritarrei zuzendutako komunikazio sistemen optimizazioa, berrikuspena eta hobekuntza (arriskuak, inpaktuak, hondakinen kudeaketa, mugikortasuna eta abar).

LE24: KUDEAKETA PUBLIKO KOORDINATUA, BERRITZAILEA ETA INTEGRALA

5.12. neurria. Udal arloen arteko koordinazio eta komunikazio mekanismoak ezartzea, estrategia honi lotutako plan sektorialak garatzeko.

ETKAEk genero eraginari buruzko txostena izanen duen ingurumen hezkuntzako plan estrategiko berria prestatzea agintzen du (5.1 neurria); hori da dokumentu honen xedea. Prestakuntza Plana gauzatzeko 5.4 neurriak interes berezia du, halaber, udal langileendako eta ordezkari politikoendako, bat baitator Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak Udalaren barruan esku-hartze handiagoa egiteko hauteman den beharrarekin.

3. UDALAREN INGURUMEN LEHENTASUNAK, LANAREN OINARRI KONTZEPTUAL GISA

Zein dira JIHPEren bidez landu beharreko eduki nagusiak?

Iruñeko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren (JIH) oinarri kontzeptualak bat etorri behar du nazioarteko jarraibideekin —bereziki Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH)— eta Udalaren ingurumen kudeaketako lehentasunekin.

Gaur egun, ordea, ez dago Iruñeko ingurumen egoeraren diagnostiko osoa egiten duen eta behar nagusiak sistema ekologikoaren ikuspegitik modu integratuan azaltzen dituen dokumenturik. Hortaz, jarduketa eremuak edo gaiak lehenesteko aukera emanen lukeen udalerriaren ingurumen egoerari buruzko ikuspegi argia eta egituratua falta da. Iruñeko hiri ekosistemaren ikuspegi orokor horrek ekintza lehentasunak identifikatzen eta, horrenbestez, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak bere programak eta jarduketak oinarritu behar dituen eduki nagusiak zehazten lagunduko luke.

Ingurumen diagnostikoa egitea Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren zuzeneko eskumena ez bada ere, diagnostikoaren existentzia ezinbestekoa da haren lana zehaztasun handiagoz bideratzeko eta lan-ildoak udalerriaren ingurumen errealitatearen arabera definitzeko.

Bitartean, ikuspegi orokor horretara hurbiltzen ahal gara udaleko hainbat dokumentu estrategiko bateratuz (hala nola Iruñeko Hiri Agenda 2030, Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Estrategia eta Azpiegitura Berde eta Urdinaren eta Hiri Drainatze Jasangarriaren Plana). Horiek, zerbitzuak sortzen ari diren eta osagarriak diren beste gai batzuk identifikatu dituen Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren ezagutza teknikoarekin eta esperientziarekin osatzen ahal dira.


Hala, ondorioztatzen ahal da erantsitako eskeman ageri diren udal mailako egungo ingurumen arloko gai nagusiak lanerako abiapuntua direla:

Energia eraginkortasuna eta klima-aldaketa	**Mugikortasun jasangarria**	**Ekoizpen eta kontsumo jasangarriak**
Biodibertsitatea, birnaturalizazioa eta Azpiegitura Berdea eta Urdina	**Hiri kudeaketa jasangarria**	**Tokiko ekonomia jasangarria**

Gai horiek abiapuntua izan ahal dira, baina berrikusi, osatu eta aberastu egin behar dira, JIHren bidez hiri ereduaren disfuntzio sistemikoei eraginkortasunez heldu nahi badiegu, hiri benetan jasangarri, inklusibo eta erresilienterantz aitzina eginez.

4. IRUÑEKO UDALEKO JASANGARRITASUNERAKO INGURUMEN HEZKUNTZA GARAIETARA EGOKITZEN ARI DA

Nazioarteko ildoari eta etengabeko hobekuntzari jarraikiz, Iruñeko Udaleko JIH ere garaietara eta gizartera egokitu da. 2000ko hamarkadaren hasieran energiaren arloko eskola programa gisa hasi zen; ondoren, erakusketa gune bati lotutako hezkuntza eskaintza gisa sendotu zen. Gero, udal talde egonkorra duen Ingurumen Hezkuntza Zerbitzua sortu zen, eta jarduna herritarren beste sektore batzuetara, Udalera bertara eta lan egiteko beste modu batzuetara zabaldu zen.



Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak zortzi urtez jardun ondoren, haren programek, ekintzek eta eginkizunek eboluzionatu egin dute eta konplexuago bihurtu dira:

2024KO PROGRAMAK ETA EKINTZAK	
JIH formala	• Eskola Baratzeen Programa. • Energia Xahutzearen Kontrako Ekintza Programa • Jasangarritasunean Hezten Programa. Ingurumen Hezkuntzako Museoan eta hiriko berdeguneetan dinamizatutako jarduera puntualak, material ibiltariak eta sareko jarduera nahiz unitate didaktikoak. • Planeta Dantzan Programa. • Nazioarteko Ecozine Jaialdiaren Gazte Atala. • Klima Break Out tresnaren garapena.
Herritarrendako JIH	• Jasangarritasunaren Eskola Programa. • Herritarren Zientzia. • Klima Ekintzako Taldea. • Zinemaren eta Ingurumenaren Nazioarteko Ecozine Jaialdia. • Komunitate Energetikoak: sentsibilizazioa eta prestakuntza Komunitate Energetikoen prozesuan.

Europako Proiektuak	• Open Lab: Energia positiboko auzorako ekintzen garapena. • RUNA 2025: Komunikazio Plana eta Boluntariotzako Ekintzak. • SUDOE: eskolako patioak birnaturalizatzeko prozesuan hezkuntza arloko lagun egitearen zatia sortzeko esku-hartzea. • SEEP: Langile publikoendako Prestakuntza Plana, PSTD Pamplona SF365 proiektuaren esparruan.
Beste udal arlo eta zerbitzu batzuekiko sinergiak	• Hiri Ekologia, Energia Agentzia eta Mugikortasuna. • Proiektuak eta Obrak, eta Hirigintzako Gerentzia. • Kultura, gazteria, parte-hartzea eta berdintasuna. • Giza Baliabideak. • Turismoa. • Komunikazioa. • Gizarte Ekintza: gizarte enpleguko lantaldeak eta abar. • Haur Eskolen Erakunde Autonomoa.
Komunikazioa	• Zerbitzuaren web orriaren kudeaketa. • Zerbitzuaren sare sozialen kudeaketa: Facebook, X eta Instagram. • Hamabostean behingo informazio buletina. • Erakunde komunikazioa: prentsa oharrak, bideo albisteak eta abar.
Sareak eta beste erakunde publiko batzuekiko harremanak	• JIHEPeko toki erakundeen lantaldea (Estatuko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Plana). • JIHNEren (Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategia) garapenerako lantaldea. • Eskola Jasangarrien Sarearen lantaldea (Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua). • Beste batzuk: Nafarroako Gobernuko Klima Aldaketaren Bulegoa, Iruñerriko Mankomunitatea, Hiri Agroekologikoen Sarea, NILSA, NUP eta UNAV, besteak beste.
Ingurumen Hezkuntzako Museoaren ekipamenduaren kudeaketa	• Ekipamenduaren arretaz arduratzen diren langileen kudeaketa. • Ekipamenduko aretoen eta espazioen erabileraren koordinazioa eta kudeaketa. • Ekipamenduaren gainerako alderdien arreta: mantentze-lanak, garbiketa, berokuntza, atxikitako langileen lan ordutegitik kanpoko erabilera eta abar.

3. ZATIA. DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA

BIDE PARTEKATU HONETAN IKASITAKOA



Askotariko ekarpenekin ari gara Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategiko berria eraikitzen.

1. IRUÑEKO UDALEKO GOBERNU ESTRATEGIKO, HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA 2030 AGENDA ARLOAREN IKUSPEGIA

Arlo horretako talde tekniko eta politikoak emandako ikuspegia funtsezkoa da: izaera estrategikoa du, eta JIHPEri esparrua ematen dio. Beste udal estrategia, arlo eta zerbitzu batzuekin bat etortzea ere errazten du; hori lehentasunezkoa da JIH bere osotasunean lantzeko.

Prospekzio saioari esker, JIHren kontzeptuari, tresnei eta xede hartzaileei buruzko adostasuna erdietsi ahal izan da. Estatuko eta autonomia mailako jarraibideekin bat etorriz.

Iruñeko JIHren helburuari eta eginkizunei buruzko oinarri estrategikoa ere eman dute, hezkuntza tresnaren, gizartea eraldatzeko tresnaren eta kudeaketa-tresnaren uztarketan oinarrituta. Zenbait ideia nagusi ere azaldu dira, hala nola JIH berriztapenarako elementua izatearen eta beste toki entitate eta erakunde batzuekin sarean aritzen den, herritarrei zuzenduta dagoen eta beste udal arlo batzuekin elkarlanean dabilen zerbitzua izatearen garrantzia.

Azkenik, ikuspegi berri horrek toki mailan eta eskualdeko lankidetzan sortzen ahal dituen aukerak adierazi dira, baita JIHPE diseinatzean eta aplikatzean agertzen ahal diren mugak ere.

- Aukerak:
    - Beste erakunde batzuekiko sinergiak eta taldeen arteko lankidetza, zerbitzuak eta prestakuntza eskaintzeko, baliabide publikoak hobeki erabiltzeko eta abar.
    - Udaleko talde tekniko espezializatuak.
    - Lehentasunen ezarpena eta antolaketa estrategikoa.
- Mugak:
    - Udal egituraren barruan elkarlanean eta zeharka aritzeko zailtasuna.
    - Baliabide ekonomiko mugatuak.
    - Ingurumen Hezkuntzako Museoa udaleko Ingurumen Hezkuntzaren estrategiaren oinarritzat hartzea kontzeptu zaharkitua da eta Zerbitzuaren aukerak mugatzen ditu. Horri buruzko hausnarketa eta erabakiak hartzeko beharra.

2. INGURUMEN HEZKUNTZAKO ZERBITZUAK DAKIENA

Gaur egun, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua udaleko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategiko berria prestatzen ari da. Zortzi urtez ekintza-ildo desberdinak garatzen aritu ondoren, haien bilakaeraz eta etorkizuneko jarraipenaz hausnartu du.

Jarduketa hau JIHPEren estrategiari eta ereduari buruzko gaiak berariaz lantzeko egin da. Elkarrekin hausnartzeko eta azken dokumentuaren oinarrizko jarraibideak sakon aztertzeko aukera eman du.

Zerbitzua osatzen duten lau pertsonek elkarrekin egindako hausnarketan, programak berrikusi eta aztertu dituzte, eta orain arte landutako ildo estrategikoetan aurrera egiteko proposamenak egin dituzte. Proposamen horiek bat datoz JIHri buruzko dokumentu estrategikoekin eta Udalaren esparru estrategikoarekin.

Esku-hartzeko eredua egungo beharretara hobeki egokitzeko, hainbat helburu proposatzen dira:

- Iruñean prozesu eraldatzaileagoak sortzea, «herritarrak benetan aktibatzea» ahalbidetzeko.
- Xede hartzaileen (hezkuntza-komunitateak, herritarrak, udal langileak eta ordezkari politikoak, besteak beste) eta hiriko espazioen arteko esku-hartzea orekatzea.
- Eta ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren eta beste udal zerbitzu batzuen giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta materialak eraginkortasunez kudeatzea.

Ildo beretik, jarduera puntualetatik prozesuan oinarritutako hezkuntza proiektuetara igarotzea planteatu dute, bai hezkuntza formalean, bai herritarrekin egindako lanean. Dagoeneko abian dauden hainbat programari eustea ere interesgarritzat jo da, hezkuntza formalaren, herritarren eta Udalaren ingurumen egokitzapenaren arloetan. Museoaren kudeaketan duten esperientziatik abiatuta, espazio horretarako etorkizuneko lau aukera azaldu dira. Horrez gain, laneko xede hartzaileak orekatzea eta aurrekontuak doitzea beharrezkotzat jo da, Udalaren barneko ingurumen egokitzapenari pisu handiagoa emateko. Horretan, prestakuntza planak eta beste arlo batzuetako proiektuetan egindako lankidetzek eginkizun nagusia dute.

Xede hartzaile bakoitzari begiratuta, hauek proposatu dituzte:

- **Ingurumen Hezkuntza Formala: prozesuan oinarritutako hezkuntza proiektuen eta sareko lanaren aldeko apustua.**
    - Hezkuntza-komunitateen parte-hartze prozesuetan txertatutako Ingurumen Hezkuntzako programak: ikastetxeak hautatu ahal izateko hainbat gairen inguruko ibilbidea eskaintzea.
    - Prestatzaileen prestakuntza, irakasleei, udal teknikariei eta beste erakunde publiko batzuei zuzendua
    - Eskola patioak birnaturalizatzeko hezkuntza programa parte-hartzailearen garapena.
    - Hiria jasangarritasunaren ikuspegitik ezagutzeko jarduera puntualen programa: Nola funtzionatzen du hiri ekosistemak?
    - Hezkuntza- eta pedagogia-baliabide eskaintza.
    - Ikastetxeekiko lagun egitea, bideratzea eta elkarlana, jasangarritasunerako hezkuntza prozesuetan.
    - Hezkuntzan eskumena duten edo hezkuntzaren arloan esku hartzen duten beste udal arlo eta erakunde publiko batzuekiko koordinazioa, lankidetza eta lan bateratua.

- **Ingurumen Hezkuntza herritarrekin: parte-hartzeko prozesu inspiratzaileen eta irudikapen berrien aldeko apustua, erakunde-koherentziarekin.**
    - Herritarrekin prozesuan oinarritutako programak: Daudenei eustea eta prozesu berriei ekitea edo haietan parte hartzea, ikuspegi positibotik eta esperientzia inspiratzaileetatik abiatuta.
    - Hautemandako ingurumen beharren arabera prestakuntza, dibulgazio eta sentsibilizazio ekintzen programazioa.
    - Udalaren jasangarritasunaren komunikazio integrala eta koherentea.
    - Kolektiboekiko, herritarrekiko eta beste erakundeekiko lagun egitea, bideratzea eta elkarlana, jasangarritasunaren aldeko prozesuetan, ekintzetan eta abarretan.
    - Herritarrekin lan egiteko eskumena duten edo arlo horretan esku hartzen duten beste udal arlo eta erakunde publiko batzuekiko koordinazioa, lankidetza eta lan bateratua.

- **Udalaren ingurumen egokitzapena: zeharkako eta diziplinarteko lana.**
    - Udal langileendako eta ordezkari politikoendako barne prestakuntza plana.
    - Zeharkako proiektuak eta diziplinarteko taldeak.
    - Ingurumen kudeaketan eta esku-hartzean, hezkuntzan edo/eta herritarrekiko lanean eskumena duten beste udal arlo batzuekiko koordinazioa, lankidetza eta lan bateratua.

- **Ingurumen Hezkuntzako Museoaren ekipamenduaren kudeaketa: kudeaketa eredu berriari buruzko hausnarketa sakona. Zenbait proposamen:**
    - Ekipamenduaren itxiera Ingurumen Hezkuntzako Museo gisa.
    - Ekipamenduaren birmoldaketa: jasangarritasun zerbitzuen udal erreferentziazko gunea / espazioaren kudeaketa soziokomunitarioa gizarte erakundeen aldetik.
    - Beharren araberako irekiera: antzeko adibideak: Calderería aretoa
    - Ekipamendua irekita, aldaketak eginda eta espazioaren kudeaketa zama arinduta izatea, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak ekintza-ildo eraldatzaileago, premiazkoago eta beharrezkoagoak irekitzen ahal ditzan.

Horrez gain, ekintzak diseinatzeko ekarpen hauek egin dituzte:

- Lehentasunezko ingurumen arloko gaien ikuspegia zabaltzea, gai garrantzitsuak baztertu gabe: kontserbazioa, biodibertsitatea, naturalizazioa (harremanak, elkarreraginak, espazio fisikoa eta abar), gizarte arazoak eta osasuna, komunitatearen kontzeptua, balioak eta errotzea, eta ekosistemaren ikuspegia.
- Jarduketa eremuak: informazioa, prestakuntza, parte-hartzea eta ikerketa. Parte-hartzeko estrategietan eta ikerketan zein ebaluazioan sakontzea komeni da.
- JIHPEk gainerako udal arloak ere inplikatu beharko lituzke, ikuspegi osoa eta zeharkakoa duen lana gauzatu ahal izateko.
- Herritar gehienengana iristeko estrategiak ahaztu gabe: kontzeptu errazak eta argiak, lotura emozioekin, ongizatea ematen diguten naturaren balioak (lasaitasuna, patxada, aire zabala, etab.).

Ondorengo lan saio batean, Arloaren lehentasunez eta JIHPEren norabideaz hausnartu zen. Ondorio hauek atera ziren:

- Talde teknikoak eta politikoak ikuspegi estrategikoa partekatzen dute.
- JIHPEren norabideak egitura edo ikuspegi tradizionala (JIHEPrekin eta JIHNErekin bat etortzeko aukera emanen diona) eta ikuspegi berritzaileagoa uztartzen ahal ditu. Azken hori ikasitakotik abiatuko litzateke, gainerako udal arloetara zabalduko litzateke eta xede hartzaileak askotarikoagoak bihurtuko lituzke; udal teknikariak eta ordezkari politikoak lehentasunezkoak izanen lirateke.

3. IRUÑEKO IKASTETXEETAKO IRAKASLEEN ESPERIENTZIA

Parte-hartzeko saioa Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak ikastetxeendako antolatutako jardunaldi baten barruan egin zen. Zerbitzua hausnartzen eta norabidea aldatzen ari zela jakinaraztea zuen helburu, baita hezkuntza-komunitatea elkarlanean eta parte-hartzera bultzatzea ere. Saioan agerian gelditu zen ikastetxeen eta Udalaren artean berriztapen-bidea partekatzeko benetako interesa, baita ekintzak proposatu eta JIHPE sortzen aurrera egiteko motibazioa ere.

Hamabi ikastetxetako irakasleek hartu zuten parte, eta JIH formalaren inguruko beharrez eta interesez hausnartu zuten elkarrekin. Ingurumen ekintzak egiteko ikastetxeetan baliabideak behar direla adierazi zuten. Kontzeptuei eta prozesuen diseinuari buruzko prestakuntza baliabideak eskaintzea proposatu zuten, baita ikasleak eta hezkuntza-komunitatea ikastetxean zein haren ingurunean inplikatuko dituzten ekintza parte-hartzaileak ere. Ikastetxeen arteko eta Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuarekiko koordinazioa eta lankidetza sustatzeko interesa ere azaldu zuten.

Saioan behar hauek adierazi ziren:

- BALIABIDEEI dagokienez, zentzumenekin eta esperimentazioarekin lotutako ekintzak, birnaturalizaziorako azpiegiturak, hiriko naturaguneetako proiektuak, beste testuinguru batzuetara eramaten ahal diren proiektuak (ibilaldiak, maletak…) eta Bigarren Hezkuntzari zuzendutako proiektuak.
- INGURUMEN HEZKUNTZAKO ZERBITZUAREN EGINKIZUNARI dagokionez, JIHren arloan dauden baliabideak edo proposamenak bildu eta koordinatuko, trukerako guneak proposatuko eta ekimenak zabalduko dituen erreferentziazko erakundea izatea.
- Beste alderdi batzuk: irakasleei JIHri eta gai ekosozialei buruzko prestakuntza gehiago ematea; edukiak egokitzea, informazioa eskuratu ahal izatea bermatzeko; Hezkuntza Departamentuaren, Udalaren, elkarteen eta osasun arloaren arteko sareko lana indartzea; eta hainbat espezialitatetako praktiketako ikasleak udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuan hartzea.

Hausnarketa horretatik proposamen hauek atera ziren:

- INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA: JIH tresna gisa erabiltzea ingurumenari buruzko gezurrezko informazioari, desinformazioari eta negazionismoari aurre egiteko.

- PRESTAKUNTZA: sektoreko profesionalendako espezializazio ikastaroak eskaintzea (adibidez, talde zaurgarriekin ingurumen hezkuntza inklusiboa lantzeko ikastaroa), eta Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuan praktikak egiteko lankidetzak planifikatzea.
- BALIABIDEAK - PROZESUEN DISEINUA: JIHren prozesu-ikuspegia; ikasleek aldaketan modu aktiboan parte hartuko duten prozesuak.
- BALIABIDEAK - HEZKUNTZA EKINTZA ERALDATZAILERAKO ESPAZIOAK: ikastetxeak aldaketan esku hartzeko espazioak izatea, hala nola patioa edo auzoa birnaturalizatuz.
- HERRITARREN PARTE-HARTZEA: Ikaskuntza eta Zerbitzuko, herritarren zientziako eta ingurumen boluntariotzako proiektuak; JIH gazteen espazioetara ere hurbiltzea (aisialdiguneetara, musika jaialdietara…).
- IKASTETXEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA: Iruñean, Espainian edo Europan ekintza zehatzen bidez ikastetxeak lotuko dituzten proiektuak; Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak ikastetxeen arteko koordinazioa eta proiektuen zabalkundea erraztea, sinergiak sortu eta esperientziak beste toki batzuetan baliatu ahal izateko.

4. UDAL LANGILEEI GALDETUZ

Iruñeko JIHPEren esparruan, JIH zeharkako tresna denez, ezin da bere ahalmen guztiarekin garatu beste udal arlo batzuekin koordinatutako ekintzak txertatu gabe. Diziplina honek ekintza eta prozesu asko babesten eta hobetzen ahal ditu.

Horregatik, udal langileei eta talde politikoei zuzendutako galdetegi prospektiboa eta proposamenak biltzekoa prestatu da. Helburua Udalaren barneko parte-hartzea sustatzea, JIHren arloko behar eta interesei buruzko informazioa biltzea eta arloen arteko lankidetzan egiten ahal diren ekintzak jasotzea izan da.

Udaleko hainbat arlotako 50 pertsonak parte hartu dute udaleko JIHri buruzko hausnarketa bateratuan.

JIHren kontzeptuari buruz askotariko ikuspegiak dituzte: parte-hartzaileen % 43k, batez ere, askotariko hartzaileak sentsibilizatzeko eta prestatzeko tresnatzat hartzen dute; % 27k, gizartea eraldatzeko tresnatzat; eta % 22k, ingurumen kudeaketarako tresnatzat.

Sexuaren arabera aztertuta, bi taldeetan sentsibilizaziorako tresnaren ikuspegia da nagusi (emakumeen erantzunen % 40 eta gizonen % 52). JIH kudeaketarako tresnatzat hartzean ere nahiko antzekoak dira emakumeen (% 21) eta gizonen (% 26) erantzunak. Aldiz, emakumeen artean gizartea eraldatzeko tresna gisa ulertzea askoz ohikoagoa da gizonen artean baino (% 37 eta % 4, hurrenez hurren).

Bestalde, parte hartu duten pertsonen bi herenek adierazi dute JIHko ekintzak, proiektuak edo programak egiten dituztela. Ehuneko hori handiagoa da gizonen artean: % 76k diote halako ekintzak egiten dituztela, emakumeen % 56ren aldean.

Hala ere, aipatutako jarduketa zehatzak aztertuta, % 47 baino ez dira JIHkoak (informaziokoak, prestakuntzakoak, parte-hartzekoak edo ikerketako eta ebaluaziokoak). Beste % 26 ingurumen neurriak dira, baina ez dute argi bereizten ingurumenaren eta JIHren kontzeptuen artean, edo ez daude behar adina zehaztuta. Gainerako % 27 lanpostuari dagozkion eta ingurumenarekin erlazioa duten eginkizun zehatzak dira. Beraz, JIHren eta ingurumenaren kontzeptuen artean ezjakintasuna edo nahasmena dago.

Beste zerbitzu batzuek Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuari eskatzen dioten laguntzari eta baliabideei dagokienez, eskaera nagusia beste zerbitzuei ingurumenari eta jasangarritasunari buruzko informazioa ematea da (% 25); antzeko garrantzia du gai horiei buruzko prestakuntzak (% 24). Ondoren datoz proiektuak eta ekintzak sustatzea (% 19) eta beste erakunde, programa eta arlo batzuei laguntzea (% 19). Programak gidatzea hirugarren multzoan dago (% 11), eta finantzaketarekin lotutako eskaera puntualak ere egin dira.

Gai honetan ez dago alde nabarmenik emakumeen eta gizonen artean.

Prestakuntza beharrak askotarikoak dira. Kasu askotan, sentsibilizaziorako, komunikaziorako eta parte-hartzerako trebetasun, tresna eta metodologiekin lotuta daude. Lanbidean erabiltzeko eduki zehatzei buruz ikasteko beharra ere aipatu da.

Zehazki, lau prestakuntza eremuk pizten dute interesik handiena: herritarrak informatzeko eta haiekin komunikatzeko trebetasunek (% 30); herritarrak sentsibilizatzeko tresnek (% 27); herritarren parte-hartzea errazteko tresnek (% 18); eta taldeen kudeaketak (% 17). Gainerako erantzunak, gehienbat, lanbide jardunari lotutako gai zehatzei buruzkoak dira.

Generoaren araberako azterketan, emakumeek antzeko garrantzia ematen diete lau prestakuntza eremuei. Gizonen artean, berriz, sentsibilizazio eta komunikazio tresnek interes handiagoa pizten dute.

Azkenik, udal langileen artean errepikatzen diren edo/eta Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren lana bideratzen ahal duten proposamen eta ideia hauek nabarmendu dira:

- Formatu errazetan eta lanpostuan eragina duen oinarrizko sentsibilizazioa, udal langile guztiei zuzendua.
- JIH arloen arteko kudeaketa eta lankidetzarako tresna gisa erabiltzea; esaterako, udal proiektu handietan herritarrei zuzendutako sentsibilizazioa indartuz.
- Maila desberdinetarako prestakuntza espezializatua, arlo edo zerbitzu bakoitzari egokitua eta hainbat formatutan eskainia: jardunaldiak, topaketak, mintegiak…
- Gakoa: Ingurumen Hezkuntza zeharkako tresna osagarri bihurtzea eta lanpostuetan txertatzea.

5. HERRITARREN IRITZIAK JASOZ

Errealitatera egokitutako kalitatezko emaitza erdiesteko Udalaren barneko parte-hartzea beharrezkoa den bezala, funtsezkoa da Iruñeko hainbat sektorerekin lankidetzan aurrera egitea: bai ohiko xede hartzaileekin, bai etorkizunean lankidetzan aritzea komeni den beste batzuekin.

Hezkuntzaren, elkarteen, ekonomiaren eta administrazioaren arloetako pertsonen, profesionalen eta herritarren ekarpenak JIHPEren prestaketan jasotzeko, parte-hartzera irekitako galdetegia prestatu da.

Askotariko profilak dituzten 116 pertsonak bete dute diagnostikorako eta proposamenak biltzeko galdetegia: herritarrek, irakasleek, kolektiboetako kideek eta beste administrazio batzuetako pertsonek. Lehen bi taldeak izan dira ugarienak.

Udalaren barne galdetegian bezala, eta antzeko proportzioetan, Iruñeko sektoreen artean JIHri buruzko askotariko ikuspegiak daude. Parte-hartzaileen % 44k, batez ere, askotariko hartzaileak sentsibilizatzeko eta prestatzeko tresnatzat hartzen dute; % 27k, gizartea eraldatzeko

tresnatzat; eta % 19k, ingurumen kudeaketarako tresnatzat. % 9k baino ez dute irakasgaitzat definitzen.

Banaketa orokor hori antzekoa da emakumeen eta gizonen artean. Sektoreei erreparatuta, herritarrek, kolektiboek, JIHko profesionalek eta beste administrazio batzuek sentsibilizazioa jotzen dute JIHren helburu nagusitzat; hezkuntza formaleko sektoreak, berriz, gizartea eraldatzeko eginkizuna ere aipatzen du.

Galdetegia bete dutenen % 90ek uste dute ingurumenari buruzko ezagutza zabala edo partziala dutela. Sexuaren arabera bereizita, emakumeen % 49k uste dute gai horiei buruzko ezagutza dutela; gizonen artean % 71k, eta sexua adierazi nahi izan ez dutenen artean % 40k.

Sektoreen artean ez dago alderik: guztietan gehienek gaiak osorik edo hein batean ezagutzen dituztela diote.

JIHrekin erlazionatutako jardueretan duten parte-hartzeari dagokionez, erantzunen % 45ek adierazten dute aisialdian modu aktiboan parte hartzen dutela, eta % 39k lanean. Banaketa desberdina da sexuaren arabera: emakumeen erantzunetan lanarekiko erlazioa da ohikoagoa (% 42); gizonen erantzunen % 56k eta sexua adierazi ez duten pertsonen % 50ek, aldiz, aisialdian parte hartzen dutela diote.

Sektoreen arabera, herritarrek aisialdian parte hartzen dute gehiago; hezkuntza formalean, berriz, jarduerak lanaren parte dira. Gainerako sektoreetan bi egoerak nahiko orekatuta daude.

Jarduera motei erreparatuta, % 33 puntualak dira, gehienak aisialdiari lotuak; % 24 lanbide jarduerarekin lotuta daude (JIHko jarduerak prestatzea eta egitea, eta programak koordinatzea); eta % 31 programa egonkorretan lankidetzan aritzen dira. Antzeko proportzioetan egiten dira norbere kabuz, lankidetzan edo beste erakunde batzuen laguntzarekin.

Sektore guztietan, interes nagusiak lankidetza (% 19), prestakuntza (% 18), informazioa (% 15) eta gozamena (% 15) dira.

Emakumeen artean interes berak ageri dira, lankidetza zertxobait nagusi dela (% 18); gizonen artean, berriz, lankidetza (% 22) eta prestakuntza (% 20) dira lehentasunak.

Sektore bakoitzaren ikuspegia askotarikoagoa da:

- herritarrek prestakuntza eta gozamena lehenesten dituzte;
- kolektiboek prestakuntza, lankidetza eta informazioa;
- hezkuntza formaleko sektoreak lankidetza eta laguntza;
- administrazioak aholkularitza eta finantzaketa;
- eta profesionalek lankidetza eta finantzaketa.

Ezagutzak zabaltzeko interesari buruz ere galdetu da, eta zazpi gai multzo proposatu dira:

- Osasuna eta ingurumena;
- Biodibertsitatea, hiri espazioaren birnaturalizazioa;

- Ingurumena, hiri ekologia;
- Naturarekiko birkonexioa;
- Jarduera ekonomikoak, kontsumo jasangarria, desazkundea eta hazkundearen ondorengo agertokiak;
- Energia eta klima-aldaketa;
- Hondakinak eta ekonomia zirkularra.

Oro har, proposatutako gai guztiek pizten dute interesa, bereziki osasunak eta biodibertsitateak zein birnaturalizazioak. Gainerako gaiek interes ertaina pizten dute. Hala ere, erantzunak sexuaren arabera aztertuta, alde handiagoak ageri dira: emakumeek osasuna, biodibertsitatea eta naturarekiko birkonexioa lehenesten dituzte; gizonek, berriz, energia eta klima-aldaketa, eta biodibertsitatea.

Erantzunak sektoreen arabera ere aldatzen dira: herritarrek osasuna lehenesten dute; kolektiboek antzeko interesa dute gai guztietan; irakasleek nahiago dute biodibertsitatea; administrazioko langileek biodibertsitatea, ingurumena eta energia; eta JIHko profesionalek gai guztiekiko interesa agertzen dute, biodibertsitatea buru dela.

Inkestari erantzun dioten gehienek (% 94k) JIHko jardueretan edo prometan parte hartzeko interesa dute. Galdetegiko aukeren artean, boluntariotzako ekintzak eta hiri baratzeak lehenesten dituzte, baina gainerako proposamenek ere interesa pizten dute: ingurumenaren garrantziari buruz informatzea, komunitate energetikoak, eta artea eta ingurumena. Gainera, inkestatu batzuek aurreko aukeretan jasota ez zeuden proposamen interesgarri hauek egin dituzte:

- Jarduera puntualak: hitzaldiak, bisitak eta truke azokak.
- Zabalkundea, parte-hartzea, ikerketa eta ebaluazioa barne hartzen dituzten prozesu konplexuetan parte-hartzea.
- Osasunarekin eta ingurumenarekin erlazionatutako ekintzak eta proiektuak.
- Kolektiboen eta elkarteen eragina hobetzeko ekintza zehatzak.

Sexuaren araberako azterketan, emakumeek boluntariotzako ekintzak eta hiri baratzeetako parte-hartzea lehenesten dituzte. Gizonen artean, berriz, aukera guztiek antzeko interesa pizten dute: boluntariotzak, komunitate energetikoetako edo hiri baratzeetako parte-hartzeak eta beste pertsona batzuk informatzeak.

Sektoreen arabera, herritarrek boluntariotzako ekintzak lehenesten dituzte; kolektiboek, hiri baratzeetan lankidetzan aritzea; eta hezkuntza formaleko sektoreak, informatzea eta artearekin lotutako proiektuak egitea. Administrazioko langileek eta JIHko profesionalek antzeko interesa dute aukera guztietan: boluntariotzan, komunitate energetikoetan, hiri baratzeetan, informazio jardueretan eta arte proiektuetan.

Komunitatea sentsibilizatzeko jarduera eraginkorrenei buruzko galdera irekia ere egin da. Erantzunetatik ondorio hauek atera dira:

- Xede hartzaileak: esku-hartzea biztanleriaren hainbat sektoreri zuzentzea proposatzen da: herritarrei oro har, irakasleei, hezkuntza-komunitateari, familiei, haurrei eta ordezkari politikoei.

- Metodologiak: praktikoak, errazak eta zuzenak; askotarikoak xede hartzaileen arabera; ulertzeko errazak; itxaropena pizten dutenak; ekintzara bultzatzen dutenak.
- Edukiak: klima eta ingurumen krisia, kontsumo arduratsua, desazkundea eta hondakinen kudeaketa, besteak beste.
- Erakundeen babesa eta eredugarritasuna: erakundeen inplikazioa eta konpromisoa jasangarritasunaren aldeko ekintzak gauzatzeko eta ekintza horiei ikusgaitasuna emateko; esaterako, naturaguneak babestuz, komunitate energetikoak sustatuz edo garraio publikoari lagunduz.
- Bizipenak sentsibilizatzeko bide gisa: naturarekiko harremana, ekintzetan xede hartzaileen inplikazioa eta zaintzaren praktika.
- JIHren tresnak:
    - Bizipenak eta sentsibilizazioa: natura ingurunearekiko topaketa, naturarekin konektatzea eta hura ezagutzea; norberaren eta ingurunearen zaintzarako sentsibilizazioa; eta herritarrendako lehentasunezkoak diren gaiei buruzko sentsibilizazioa, zabalkundearekin lotua eta publiko zabalari zuzendua.
    - Informazio eta zabalkunde esanguratsua: informazio positiboa, hurbila eta erakargarria; kanpainak; hitzaldiak; elkarrekintzazko bisitak, auzoz auzo, arazoak dauden tokietan…
    - Prestatzea-orientatzea: herritarren zientzia; kontsumoari, autogestioari eta hondakinei buruzko lantegiak.
    - Parte-hartzea eta ekintza jasangarriak: komunitate ekologikoak, boluntariotza eta auzo barruko nahiz auzoen arteko ekintzak sustatzea, eta herritarrekin batera espazioak birnaturalizatzea.

Iruñeko JIHri emandako batez besteko puntuazioa 5,9 da, eta gehien errepikatzen den nota 7. Gizonen eta emakumeen balorazioak antzekoak dira (6,2 eta 6,4, hurrenez hurren).

Sektoreen arabera, balorazioak kolektiboek emandako 5,6 puntuetatik administrazioak emandako 6,4 puntuetara doaz. Gainerako sektoreek tarteko puntuazioak eman dituzte: herritarrek eta hezkuntza formalak 6,2, eta profesionalek 6,3.

Norberaren erakunde edo kolektiboaren barruko JIHren balorazioa udal mailakoa baino zertxobait handiagoa da: 6 puntuko batez bestekoa du. Emakumeek 6 puntu eman dizkiote batez beste; gizonek, 6,3.

Sektoreen araberako puntuazioetan alde txikiak daude: herritarrek 5,8 eman dute; kolektiboek eta administrazioak, 6,1; irakasleek, 6,2; eta JIHko profesionalek, 6,3.

Beste galdera ireki batean, JIHk ingurunea hobetzen nola laguntzen ahal duen galdetu da. Erantzunak nolabait multzokatzen eta zenbait ondorio ateratzen ahal dira. JIHk hauetan laguntzen ahal du:

- Gizarte osoaren bizi kalitatea eta osasuna hobetzea.
- Ingurunea hobetzen eta ingurumen eragina murrizten.

Nola?

- Gizarte eraldaketa eta kohesioa sustatuz, komunitatea inplikatuz.
- Sentsibilizatuz eta kontzientziatuz, errespetua eta norberaren ezagutza sustatuz eta herritar kontzienteak izaten lagunduz.

- Informazioaren, zabalkundearen, prestakuntzaren eta parte-hartzearen bidez jokabide aldaketak eraginez.
- Kudeaketa-tresna gisa jardunez, lagunduz, elkarlanean arituz eta baliabideak eskainiz.

Ingurumenaren eta gizartearen gaineko kontzientzia handiagoa erdiesteko, Udalak eginkizun hauek izaten ahal dituela proposatu da: ekimenak sustatzea; beste erakunde, programa, arlo… batzuei laguntzea; prestakuntza ematea; finantzatzea; zerbitzuak eskaintzea; eta lidergoa hartzea. Eginkizun guztiak interesgarritzat jo dira, baina ekintzak eta programak sustatzea eta beste erakunde, programa zein arlo batzuei laguntzea nabarmendu dira.

JIHren arloan interesgarriak izaten ahal diren esperientzia zehatzak ere aipatu dira, baita gauzatzen ahal diren proiektuei buruzko ideiak ere. Gehienak tokikoak dira eta Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak ezagutzen ditu: Aterpeak proiektua, Ingurumen Hezkuntzako Museoa, Europako RUNA 2025 eta Open Lab proiektuak, komunitate energetikoak, komunitate baratzeak eta eskola baratzeak, eta Heike Freirerekin pedagogia berdeari buruzko prestakuntza, besteak beste. Zerbitzuak proiektu horiek sustatu ditu, haietan lagundu du, koordinazio lanetan parte hartu du edo haien bilakaeraren berri izan du.

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak parte hartu ez duen beste esperientzia interesgarri batzuk ere aipatu dira: MÁS Planeta Navarra; Baso Autoktonoa Berreskuratzeko Elkartea (ARBA – leheneratze ekologiko parte-hartzailea); EHAEOk Birgaitzean Laguntzeko Bulegoaren sorkuntza; Natural History Museum erakundearen programa, hezkuntza-baliabideen bidez hiriko natura aztertzeko eta ingurumen arazoak ezagutzeko; eta bere garaian ezarri ziren baina pixkanaka ahantzi diren programak, hala nola UNESCOren eskola jasangarrien programa edo elkarteen egokitzapena ingurumen irizpideetara.

4. ZATIA. DIAGNOSTIKOAREN ONDORIOAK

EKINTZA PLANA ORIENTATUKO DUTEN 11 IDEIA NAGUSIAK



1. JIHREN ERREALITATEA BAT DATOR ESPARRU ESTRATEGIKOAREKIN

Iruñeko Udalean, JIHk orientatzen gaituen eta oinarri gisa balio duen esparrua du. JIHPEk Iruñea hiririko 2017–2019ko Ingurumen Hezkuntzako Estrategiaren ondoren sortu zen, eta Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Estrategiaren (ETKAE) 5. helburu estrategikoa garatzen du.

Orain arte egindako bidearen ondoren, lehen ideia nagusia da diagnostikoan kontsultatutako eragileen ikuspegiak bat datozela JIHEPren eta JIHNEren printzipioekin eta ekintzekin. Hau da, Iruñeko Udaleko JIHren errealitatea bat dator, oro har, Nafarroako eta Espainiako JIHren errealitatearekin.

JIHEPk eta JIHNEk jasotzen duten ideia nagusietako bat JIHko talde egonkorrak izateko beharra da. Ildo horretan, Iruñeko Udalak ingurumen hezkuntzako talde bat du: hiru teknikari lanpostu eta koordinazio lanpostu bat, guztiak funtzionario izaerakoak. Plantilla horrek lanaren jarraitutasuna eta JIHPEren garapena bermatzen ditu.

2. JIHREN 3 IKUSPEGIAK IKUSGAI EGIN BEHAR DIRA, ETA HORIETAN SAKONDU BEHAR DA

Aurreko ataletan azaldu denez, JIH hiru ikuspegi nagusitan egituratzen da. Hortik dator ikuspegi horiek ikusgai egiteko eta haietan sakontzeko beharra:

- Kudeaketa eta komunikazio tresna gisa: JIH politika eta jardunbide publikoetan zeharkakotuz.
- Hezkuntza tresna gisa: hezkuntza-komunitatean prozesu eraldatzaileak eta parte-hartzaileak sustatuz.
- Gizartea eraldatzeko tresna gisa: herritarren artean prozesu eraldatzaileak eta parte-hartzaileak sustatuz, eta komunikazioa hobetuz.

Hiru maila horien integrazioak bakarrik ahalbidetuko du JIHren helburuak erdiestea.

3. DESOREKA DAGO XEDE HARTZAILEEKIKO ESKU-HARTZEAN

JIHk hartzaile guztiak ditu xede, gizarteko sektore guztiak barne hartzen baititu, eta askotariko ekintzen bidez jarduten ahal du: komunikazioa, prestakuntza, parte-hartzea, ebaluazioa eta ikerketa, besteak beste. Historian zehar, hezkuntza-komunitatea izan da JIHren hartzaile nagusia, bai maila orokorrean, bai Iruñeko Udalean. Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua sortu zenetik, ahaleginak hezkuntza-komunitateari zuzendutako programa puntualak eta prozesuan oinarritutakoak garatzera bideratu dira batez ere; bigarrenik, herritarrei zuzendutakoak garatzera. Horregatik, xede hartzaileen arteko esku-hartzea orekatu eta profil berriak modu aktiboan txertatu behar dira. Bereziki garrantzitsua da Udaleko teknikari eta ordezkari politikoekin lan egitea, Udalak berak koherentziaz jokatu behar baitu hirian jasangarritasuna ezartzean.

4. JIHPEK HIRIKO GAIKAKO INGURUMEN-ARDATZ GUZTIEKIN LAN EGIN BEHAR DU

JIHPEk hiriko gaikako ingurumen-ardatz guztiak jaso behar ditu. Hala ere, Udalak ez du udalerriaren ingurumen egoera eta ingurumen lehentasunak diagnostikatzen dituen erreferentziazko dokumenturik. Gaur egun, Iruñeko 2030 Agendak eta Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Estrategiak ematen dituzte erreferentziatzat hartzen diren gai nagusiak, baina zenbait hutsune dituzte.

JIHPEren diagnostiko parte-hartzaileak (Udalaren barruan zein herritarren artean egindakoa) ondorioztatu du egungo eta etorkizuneko ingurumen lehentasunei buruz hausnartu behar dela, osasuna, birnaturalizazioa, biodibertsitatea, agroekologia eta JIHren gizarte ikuspegia bezalako gai garrantzitsuak baztertuta gera ez daitezen. Lan hori Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren zuzeneko eskumena ez bada ere, garrantzitsua da JIHko ekintzak eta programak premia handiena duten gaietan aplikatzeko.

5. PRESTAKUNTZAREN BIDEZ, JIHREN ZEHARKAKOTZEA POLITIKA PUBLIKOETAN LORTZEKO BIDEAN AITZINA EGIN BEHAR DA

JIHPEk sinergiak sortzeko bultzada izan behar du, bai Udaleko zerbitzuen artean, bai tokiko eta eskualdeko erakundeen artean, erakundeen zurruntasuna eta baliabide mugatuak gorabehera. Zeharkako eta diziplinarteko lana egin behar da, begirada holistikoarekin, JIH lanpostu guztietan jasangarritasuna txertatzeko tresna izan dadin.

Esparru honetan, udal langileek ingurumenari eta jasangarritasunari buruzko informazioa jakinarazteko tresnak eta trebetasunak eskatzen dituzte batez ere, baita gai horietarako prestakuntza ere. Beraz, maila guztietako ingurumen prestakuntza behar da, ikasitakoa Udalaren eguneroko lanean txertatzeko lehen urrats gisa. Interesgarritzat jotzen dira, halaber, proiektuak eta ekintzak sustatzea, beste erakunde, programa eta arlo batzuei laguntzea edo programak gidatzea. Hori guztia Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren eta beste udal zerbitzu batzuen giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta materialak eraginkortasunez kudeatuz egin behar da. Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak eta udal langile zein ordezkari politikoek eskatutako lan-ildo hori bat dator JIHEPren 1. ardatzarekin (JIHren zeharkakotzea politika publikoetan) eta ETKAEren 5. helburuarekin («klima-kultura ezartzea Iruñeko gizartean»). Azken horrek administrazioko eragileen arteko koordinazio eta komunikazio mekanismoak ezartzea eta udal langileendako zein ordezkari politikoendako prestakuntza programak egitea jasotzen du.

6. HEZKUNTZAREN ARLOAN, EKINTZA PUNTUALETATIK PROZESUETARAKO IGAROTZEA SUSTATUZ

Hezkuntza-komunitateari zuzendutako JIHn, jarduera puntualen ordez pisu handiagoa eman nahi zaie prozesuan oinarritutako hezkuntza proiektuei eta sareko lanari. Hezkuntza prozesuak curriculumean txertatzeak eta prozesu horiek denboran irauteak ikastetxearen ezaugarrietara egokitzea eta ikasleen zein hezkuntza-komunitate osoaren eraldatzeko, parte-hartzeko eta aktibatzeko gaitasuna areagotzea ahalbidetzen dute.

Horretarako, JIHri buruzko prestakuntza behar da aldez aurretik; irakasleek berek ere hala eskatu dute. Ikastetxeen arteko koordinazioa eta hezkuntza prozesuei laguntzea ere interesgarritzat jo dituzte.

Halaber, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua JIHren arloan dauden baliabideak eta proposamenak bildu edo koordinatuko dituen erreferentziazko erakundea izatea bilatzen da.

Baliabideei dagokienez, esperimentatzeko ekintza gehiago, beste toki batzuetan erabiltzen ahal diren proiektuak, sareko lana eta ingurumenari buruzko gezurrezko informazioaren aurkako ekintza aktiboak eskatu dituzte.

Ondorio horiek bat datoz JIHEPren esparru estrategikoarekin, zehazki, 2. ardatzarekin («JIHko programen eta jardueren berriztapena, ikerketa eta hobekuntza») eta 3. ardatzarekin («Jasangarritasunaren txertaketa hezkuntza eta prestakuntza sisteman»), bai eta udal esparruarekin ere, zehazki, irakasleendako, udal langileendako eta ordezkari politikoendako prestakuntza programak egitea ezartzen dituen ETKAEren 5. helburuarekin.

7. HERRITARREN ARTEAN PROZESU ERALDATZAILEAK ETA PARTE-HARTZAILEAK SUSTATUZ ETA KOMUNIKAZIOA HOBETUZ

Gizarte eraldaketarako tresna den aldetik, JIHak herritarren benetako aktibazioa ahalbidetu behar du. Horretarako, erakundearen jardunarekin koherenteak diren parte-hartzeko prozesu inspiratzaileak eta irudikapen berriak sortu eta indartu behar dira. Parte-hartzeko estrategietan eta ikerketan zein ebaluazioan sakontzea komeni da, ohikoagoak diren informazio eta prestakuntza jardueretan sakontzeaz gain.

Komunikazioa hobetzea ere eskatu da: kanalak xede hartzaileetara egokitu eta hartzaileengana iristeko modu erakargarri eta berritzaileak bilatu behar dira.

Arestian aipaturikoa bat dator hauekin: JIHEPren 6. ardatzarekin («Komunikazioa, dibulgazioa eta herritarren ekintza») eta ETKAEren 5. helburuarekin («Prozesu eraldatzaileak eta parte-hartzaileak sustatzea, herritarrekiko komunikazioa hobetuz»).

8. JIHREN ESKU-HARTZEKO ESPAZIOEN DIBERTSIFIKAZIORANTZ LAN EGINEZ, INGURUMEN HEZKUNTZAKO MUSEOAREN KUDEAKETAREN GAINEKO HAUSNARKETA SAKONAREKIN

Udalaren baliabide materialen artean, orain arte JIHko jardueren erreferente izan den Ingurumen Hezkuntzako Museoa dago. Hala ere, JIHPEren diagnostikoak haren kudeaketari buruzko hausnarketa sakona planteatzen du, eredu berria zehazteko. Kontuan hartu behar da hiriko espazioen arteko esku-hartzea orekatu eta JIHren estrategia berritzaileagoetara egokitu behar dela.

Ideia hori bat dator 5. ardatzarekin («JIHEPren esku-hartzeko agertokiak eta espazio espezifikoak»), hau da, JIHren sustapenarekin berariazko ekipamenduetan edo beste espazio

publiko batzuetan, esku-hartzeko eredu berriekin (JIHrako ekipamenduen kudeaketa soziokomunitarioa, JIHrako berariazkoak ez diren ekipamendu publikoen erabilera, etab.).

9. METODOLOGIA BERRITZAILEETAN AITZINA EGINEZ ETA HAIEK SENDOTUZ

JIHak gizartea eraldatzeko duen zereginean aurrera egiteko, ezinbestekoa da metodologia askotarikoak, berritzaileak, sortzaileak eta xede duten hartzaile motara egokitutakoak integratzea. Horrela, berritzeko eta beste hartzaile batzuengana iristeko aukera sortzen da, ikaskuntza eta parte-hartze prozesu inklusiboagoak sustatuz.

Parte-hartze aktiboan eta eraikuntza kolektiboan oinarritutako metodologia horiek jakintzak trukatzea, elkarrekin hausnartzea eta inplikatutako pertsonen beharrei eta testuinguruei eraginkortasun handiagoz erantzuten dieten proposamenak sortzea errazten dute.

10. ETENGABEKO HOBEKUNTZA AHAZTU GABE

JIHPEren diagnostikoak erakusten du ikerketa eta ebaluazioa gutxi landutako JIHren eremu direla, prestakuntza edo informazioa bezalako beste eremuekin alderatuta; hala ere, ez dira ahantzi behar, funtsezko alderdiak baitira. Presentzia txikia izan arren, beharrezkoak dira JIHko ekintzek eta eragin positiboek gizarte eraldaketan eta udal kudeaketaren hobekuntzan duten eragina ulertzeko eta balioesteko.

Ikerketa eta ebaluazio prozesu sistematikoek jardunbideak hobetzeko, eskura dauden baliabideak hobeki erabiltzeko eta ekimenen eraginkortasuna indartzeko aukera emanen ligukete, JIHren helburuak erdiesten benetan laguntzen dutela bermatzeko.

11. GENERO IKUSPEGIA ETA ANIZTASUNAREKIKO ARRETA TXERTATUZ

Egindako lanean oinarrituta, JIHri lotutako pertzepzioetan eta ekintzetan aldea ikusten da sexuen artean. Alde horiek eduki, metodologia eta interesekiko lehentasunetan islatzen dira, eta horrek agerian uzten du zeinen garrantzitsua den proposamenen diseinuan begirada askotarikoa eta inklusiboa sartzea. Horregatik, ekintza planak ikuspegi horiek hartuko ditu kontuan, gizarte eta ingurumen arloko ikaskuntza eta eraldaketa prozesuetan parte-hartze ekitatiboa eta eraginkortasun handiagoa bermatzeko.

ERANSKINA:

INFORMAZIO OSAGARRIA ETA PROZESUAREN AZTARNAK



1. ESTRATEGIAK ETA TESTUINGURUA

Ingurumen Hezkuntzari buruzko dokumentu estrategikoak

JIHEP. Espainiako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Plana 2021-2025

JIHEPren (2021–2025) zenbait ekintza nabarmentzen dira, JIHPErekin zuzeneko erlazioa izaten ahal dutenak:

1. ardatz operatiboa: JIH-REN ZEHARKAKOTZEA POLITIKA PUBLIKOETAN	
1.1. helburua. JIH politika publikoetan eta administrazio egituretan txertatzea.	1.1.3. Toki erakundeetan JIHko planen edo programen prestaketa eta gauzatzea 1.1.4. JIHko unitateen sustapena autonomia erkidegoetako eta tokiko administrazioen organigrametan. 1.1.5. Toki erakundeen eta haien autonomia erkidegoaren arteko sareen eta lanerako, topaketarako, koordinaziorako eta lankidetzarako taldeen sustapena, JIHko politika publikoak koordinatzeko.
1.2. helburua. Sektore publikoko profesionalak ingurumen arloko gaietan prestatzea eta gaitzea, baita gizarte tresnen erabileran ere (hezkuntza, komunikazioa eta parte-hartzea), jasangarritasunerantz aurrera egiteko funtsezko tresna gisa.	1.2.1. Langile publikoen prestakuntzaren sustapena JIHri, trantsizio ekologikoari eta jasangarritasunari dagokienez.
1.3. helburua. JIH politika publikoetan garatzeko baliabide ekonomiko askotarikoak eta nahikoak ematea.	1.3.2. JIHrako berariazko partida ekonomikoen txertaketa trantsizio ekologikoarekin erlazionatutako programetan.
2. ardatz operatiboa: JIH-KO PROGRAMEN ETA JARDUEREN BERRIZTAPENA, IKERKETA ETA HOBEKUNTZA	
2.1. helburua. JIHko programen, proiektuen eta jardueren diseinuan eta garapenean kalitatea hobetzea eta berritzea, trantsizio ekologiko bidezkoaren beharretara egokitzeko.	2.1.2. Kudeatzaileek, hezitzaileek eta ikertzaileek osatutako lantalde mistoen sustapena, hezkuntza ekintzetan ingurumeneko, gizarteko eta ekonomiako erronka eta politika berriak txerta ditzaten.
2.2. helburua. Ingurumen hezkuntzako esku-hartzeak hobetzen lagunduko duten ikerketa- eta berriztapen-ildoen garapenaren sustapena.	2.2.3. JIHko programen eta museoen, kulturaguneen eta arte zentroen arteko lotura, ingurumenari eta gizarteari buruzko narratiba berrien eraikuntzan artearen eta sormenaren dimentsioa txertatzeko.
3. ardatz operatiboa: JASANGARRITASUNAREN TXERTAKETA HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA SISTEMAN	
3.1. helburua. Curriculumetan aldaketak egitea, trantsizio ekologiko bidezkoaren erronkekin bat.	3.1.2. JIHko proiektuen garapena diziplinarteko ikuspegiarekin eta lankidetzarako guneen sorkuntza ikastetxeetan.
3.2. helburua. Aldaketaren beharretara egokitutako irakasleen prestakuntza programak egokitzea.	3.2.3. JIHren txertaketa irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan, baita ikastetxeetako eta prestakuntza zentroetako zuzendaritza taldeen prestakuntzan ere.
3.3. helburua. Ikastetxeen birnaturalizazioa sustatzea, hezkuntza esku-hartzeak indartuko dituen erakundearen koherentziazko jardun gisa.	3.3.1. JIHren txertaketa Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP).

3.4. helburua. Ikastetxeen eta unibertsitateen komunitate testuinguruarekin koordinatutako programak eta proiektuak diseinatzea eta ezartzea, bidezko trantsizio ekologikoa sustatzeko.	3.4.1. Ikasleen eta irakasleen parte-hartzearen sustapena eta babesa ingurumen kanpaina publikoetan, gizarte arloko esku-hartzeetan eta ingurumenari zein gizarteari buruz ikasteko aukerak sortzen dituzten ekimen guztietan. 3.4.2. Sareko lanaren sustapena Ingurumen Hezkuntzarako eta Jasangarritasunerako. 3.4.3. Askotariko jardueren diseinua, testuinguru eta gai desberdinetan, ikasleek beren gaitasunak erabil ditzaten eskola ingurunea, ingurune fisikoa eta gizarte ingurunea eraldatzeko eta hobetzeko ekintzak abian jartzean. 3.4.5. Ikastetxeen eta JIHko ekipamenduen arteko jardueren eta programen koordinazioa, sinergiak sortzeko.
4. ardatz operatiboa: JIH-REN PROFESIONALIZAZIOA ETA FINKAPENA	
4.1. helburua. Lanaren eta lanbidearen arauketarako eta kontratazio publikorako esparru argiak eta eraginkorrak ezartzea, JIHren aitorpen eta hobekuntza profesionala sustatzeko.	4.1.1. Administrazio publikoetan JIHrekin lotutako programen sendotzea eta indartzea, JIHn aritzeko behar adina teknikari txertatuz.
4.2. helburua. JIHko profesionalen eta, oro har, langileen prestakuntza hobetzea, klima larrialdiaren eta trantsizio ekologikoaren erronkei aurre egiteko.	4.2.2. Langileen hasierako eta etengabeko sentsibilizazioaren, prestakuntzaren eta gaikuntzaren indartzea gizarte eta ingurumen arloko gaietan, edukiak sektore eta espezialitate bakoitzera egokituta.
5. ardatz operatiboa: ESKU-HARTZEKO AGERTOKIAK ETA ESPAZIO ESPEZIFIKOAK	
5.1. helburua. JIHko ekipamenduak indartzea, gaikuntzarako eta berriztapen ekologiko zein sozialerako erabilera anitzeko espazio soziokomunitario gisa	5.1.1. JIHko ekipamenduen eginkizunaren indartzea, erabilera anitzeko baliabide soziokomunitario gisa
5.3. helburua. JIH indartzea erabilera publikoko baliabideetan eta eremu babestuetako instalazioetan, trantsizio ekologiko bidezkoaren beharretara egokitutako ikuspegiak garatuz.	5.3.5. Herritarren zientziako programen eta IKTen arloko berriztapenak aplikatzeko programen garapena, bereziki eremu babestuetan eta JIHko ekipamenduetan.
5.4. helburua. JIHren txertaketa sustatzea biztanleriaren hainbat profilerekin lan egiten duten beste hezkuntza, kultura eta komunitate espazio eta baliabide batzuetan.	5.4.1. JIHko ekimenen programazioaren eta garapenaren indartze teknikoa eta ekonomikoa, biztanleriaren askotariko sektoreei arreta ematen dieten zentro, erakunde eta ekipamenduetan
6. ardatz operatiboa: KOMUNIKAZIOA, DIBULGAZIOA ETA HERRITARREN EKINTZA	
6.2. helburua. Kazetari, komunikatzaile eta informatzaileen prestakuntza sustatzea krisi ekologiko eta sozialari eta jasangarritasunari buruzko gaietan.	6.2.3. Ingurumenari, jasangarritasunari eta JIHri buruzko berariazko prestakuntza eta gaikuntza ekintzen garapena administrazio publikoko komunikazio arduradunendako.
6.3. helburua. JIHrekin erlazionatutako ekintzak eta proiektuak zabaltzea, **bereziki jardunbide egokiak eta esperientzia inspiratzaileak.**	6.3.2. Administrazio publikoek erakunde gisa duten jasangarritasunarekiko konpromisoaren eta arlo horretan egiten dituzten jarduketen zabalkundea herritarren artean.
6.4. helburua. Herritarren parte-hartzea, eraikuntza kolektiboa eta sareko lana sustatzea, trantsizio ekologiko bidezkorako funtsezko tresna gisa.	6.4.1. Klima eta ingurumen larrialdira eta trantsizio ekologiko bidezkoaren beharretara egokitutako bizimodu aldaketak sustatzen diren parte-hartze publikorako espazio inklusiboen sustapena eta babesa.

	6.4.2. Lankidetzarako sareen eta egituren babesa: foroak, jardunaldiak, mintegiak…

JIHNE. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategia. JIHNE 2030 (2023)

JIHPErekin zuzeneko erlazioa izaten ahal duten JIHNE 2030eko zenbait ekintza nabarmentzen dira:

1. ardatz operatiboa: JIH POLITIKA PUBLIKOETAN TXERTATZEA	
1. helburua. JIHNE 2030en ezarpena, ebaluazioa eta jarraipena koordinatzea.	1.8. JIHren arloan autonomia erkidegoetan, estatuan eta mugaz gaindi sortzen diren lan sareetan modu aktiboan parte hartzea.
2. helburua. JIHNEren ezarpenerako, ebaluaziorako eta jarraipenerako behar diren baliabideak bideratzea.	2.3. Nafarroako Gobernuak eta administrazio publiko guztiek JIHko programei eta jarduketei behar adina baliabide tekniko eta ekonomiko ematea, 2.2 neurrian aurreikusitako diagnostikoaren arabera, ohiko aurrekontuetatik, estatuko eta Europako finantzaketatik edo beste iturri publiko zein pribatu batzuetatik datorren finantzaketarekin.
5. helburua. JIHren arloko lankidetza ildoak sortzea tokiko administrazioekin.	5.1. JIH txertatzea Nafarroako eta tokiko administrazioen artean jasangarritasunaren arloan sortutako lantaldeetan.
2. ardatz operatiboa: JASANGARRITASUNA HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA SISTEMAN TXERTATZEA	
6. helburua. JIHren presentzia indartzea hezkuntzako maila guztietan.	6.1. Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren presentzia hobetzea eta indartzea hezkuntza sistemako maila guztietan eta ikastetxeen eguneroko bizitzan. 6.2. Irakasleen eta ikastetxeetako zuzendaritza taldeen etengabeko prestakuntza indartzea jasangarritasunaren eta JIHren arloan. 6.6. JIHren bidez, haurren eta gazteen parte-hartzea eta inplikazioa modu aktiboan sustatzea, eragiten dieten eremuetan jasangarritasunari eta ingurumenari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan.
7. helburua. Ikastetxeetan jasangarritasuna sustatzea.	7.1. Ikastetxeen jasangarritasuna sustatzea, hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartze aktiboa izanen duten ikastetxeko jasangarritasun proiektuen bidez. 7.2. Lanerako eta jolaserako espazioen naturalizazioa sustatzea, helarazi beharreko mezuekiko koherentziaren erakusgarri eta haur zein gazteendako erreferentziazko gune gisa. 7.4. Ikastetxeen eta ingurumen hezkuntzako ekipamenduen arteko lankidetza sustatzea: interpretazio zentroak, ekipamendu pribatuak…
3. ardatz operatiboa: JIH-REN KALITATEA HOBETZEA	
8. helburua. JIHko programen eta ekimenen kalitatea indartzea.	8.1. JIH arloko kalitateari buruzko dokumentuak eguneratzea. 8.2. Aldez aurretik adostutako kalitate irizpideak txertatzea administrazio publikoek zein beste eragile batzuek diseinatu eta ezartzen dituzten JIHko proiektu, programa eta ekimenetan. 8.3. Abian jarritako programak eta ekimenak ebaluatzeko eta haien jarraipena egiteko tresnak sortzea, aldez aurretik adostutako kalitate irizpideak kontuan hartuta. 8.4. JIHren arloko jardunbide egokiak eta esperientzia inspiratzaileak zabaltzea eta haien balioa nabarmentzea, beste testuinguru batzuetan errepikatu eta baliatu daitezen.

9. helburua. JIHren arloko berriztapenaren eta ikerketaren sustapena.	9.3. JIHren arloko ikerketen emaitzak zabaltzen laguntzea.
10. helburua. Ikastetxeen birnaturalizazioa sustatzea, hezkuntza esku-hartzeak indartuko dituen erakundearen koherentziazko jardun gisa.	10.2. JIHko enpresen eta profesionalen sektorea indartzea, Nafarroan JIH garatzeko funtsezko eragile gisa, sektoreko solaskideekin etengabeko elkarrizketa sendotuz eta administrazioak garatzen dituen JIHko programetan eta jarduketetan elkarlanean arituz. 10.3. JIHko enpresen eta profesionalen artean topaketarako, trukerako, baterako hausnarketarako eta sareko lanerako berariazko esparruak sortzen laguntzea, elkarrekin ikasteko eta etengabe hobetzeko. 10.4. Sektoreko enpresen eta profesionalen lana agerian jartzeko eta haren balioa nabarmentzeko tresnak sortzea.
4. ardatz operatiboa: ESKU-HARTZEKO AGERTOKIAK ETA ESPAZIO ESPEZIFIKOAK	
11. helburua. JIHko ekipamenduak indartzea eta sendotzea.	11.1. Nafarroan dauden JIHko ekipamenduak hobetzea eta sendotzea, haien lantaldeak indartuz eta tokiko JIHren lotura gune gisa duten eginkizuna sendotuz.
13. helburua. JIHren presentzia sustatzea normalean ez dagoen espazio eta agertokietan.	13.1. JIHko programak museoekin, kulturaguneekin eta arte nahiz sormen adierazpenerako beste espazio batzuekin lotzea, ingurumenari eta gizarteari buruzko narratiba berrien eraikuntzan artea eta sormena txertatzeko. 13.2. JIHko ekimenen programazioa eta garapena sustatzea eta pizgarriak ematea, herritarrekin harremanetan lan egiten duten zentro, erakunde eta antolakundeetan, baita hasiera batean interes gutxiago agertzen duten biztanle taldeengana (gazteengana, migratzaileengana…) iristeko aukera ematen duten berariazko espazio eta ekitaldietan ere. 13.3. JIH lurralde lankidetzarako tresna gisa erabiltzea sustatzea, diziplina honen berezko trebetasunak baliatuz lurraldeen arteko harremanak, integrazioa eta koordinazioa indartzeko. 13.4. JIHren presentzia indartzea tokiko agenda eta plan estrategikoetan: Tokiko 2030 Agenda, 21 tokiko Agendak, Tokiko Hiri Agenda eta zeharkako beste ekimen batzuk. 13.5. Hirigunean oinarritutako JIHko ekimenen eta proiektuen garapena sustatzea. 13.6. Parte-hartzerako eta eztabaidarako tresnen garapena sustatzea, aurrean ditugun gizarte eta ingurumen arazo konplexuei irtenbideak elkarrekin bilatzen sakontzeko. 13.7. Enpresekin eta sektore pribatuarekin elkarlanean ingurumen hezkuntzako programen plangintza eta garapena sustatzea, jarduera ekonomikoen gizarte eta ingurumen arloetako eraginak murrizteko eta InnovaRSE bezalako gizarte erantzukizuneko ekimenetan JIHren presentzia indartzeko funtsezko tresna gisa.
5. ardatz operatiboa: KOMUNIKAZIOA, DIBULGAZIOA ETA HERRITARREN EKINTZA	
Helburua. 14. Gizarte antolakundeek eta gizarte zein ekonomiako eragile guztiek JIHko ekimenen, proiektuen eta programen garapena sustatzea eta babestea.	14.1. Gizarte eta herritarren antolakundeek JIHko proiektuen eta ekimenen gauzapena sustatzea, behar adina baliabide eta prozedura eskuragarriekin. 14.2. Prestakuntzarako eta gaikuntzarako guneak sortzea, gizarte antolakundeen eta gizarteko zein ekonomiako eragile guztien gaitasunak indartzeko, JIHko proiektuak eta ekimenak garatzeari eta sareko lanari dagokienez.

	14.3. Antolakundeen, kolektiboen eta erakundeen arteko lankidetza sustatzea, JIHko ekimen eta proiektu bateratuak garatzeko eta haien komunikazio publikoa hobetzeko. 14.5. Herritarren zientziako programak eta IKTen arloko berriztapenak aplikatzeko programak garatzea.
15. helburua. JIHri eta jasangarritasunari buruzko komunikazioa eta informazioa hobetzea.	15.2. Komunikazioko profesionalekin aliantzak sortzea, JIHren eta jasangarritasunaren arloan elkarrekin lan egiteko. 15.3. Administrazio publikoek jasangarritasunaren eta JIHren arloan duten konpromisoa eta egiten dituzten jarduketak herritarren artean zabaltzea, lan-ildo horien balioa hedabideen eta gizartearen agendan nabarmentzeko. 15.4. Ekimenak sortzea eta sendotzea, eta komunikaziorako kanalak aktibatzea, JIHk trantsizio ekosozialerako funtsezko tresna gisa duen garrantziari dagokionez. 15.5. Herritarrek JIHren, jasangarritasunaren eta trantsizio ekosozialaren arloan dituzten kezkak, beharrak, eskaerak eta proposamenak entzuteko kanalak aktibatzea, arreta gutxien jasotzen duten biztanle taldeekin batez ere. 15.6. Desinformazioari eraginkortasunez aurre egiteko eta hura datu zorrotzekin eta informazio fidagarriarekin kontrastatzeko tresnak sortzea. 15.7. Jasangarritasunari eta trantsizio ekosozialari buruzko komunikazioan lankidetza akordioak eta aliantzak sustatzea hainbat sektoretako antolakunde eta erakundeekin: kultura, kirola, aisialdia, turismoa…

2. PROSPEKZIO SAIOA: IRUÑEKO UDALEKO GOBERNU ESTRATEGIKO, HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA 2030 AGENDA ARLOA

Data	*Bertaratuak*		*Sexua*
	Izena	*Profila*	
2025/01/21	Joxe Abaurrea San Juan	Gobernu Estrategiko, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agendako zinegotzi ordezkaria	Gizona
	Uxua Domblás Ibáñez	Gobernu Estrategikoko, Hirigintzako, Etxebizitzako eta 2030 Agendako zuzendaria	Emakumea
	Zuhaitz Areitio Larrañaga	Jasangarritasun - Energia eta Klima koordinatzailea	Gizona

Adostutako oinarrizko kontzeptuak

JIHren kontzeptuari, tresnei eta xede hartzaileei

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza

Klima- eta ingurumen-larrialdien aurrean, baita gizarte eta ingurumeneko erronka konplexuen aurrean ere, jarduteko ikaskuntzak, hausnarketak, jarrerak eta gaitasunak garatzera bideratutako HEZKUNTZAKO, KOMUNIKAZIOKO ETA PARTE-HARTZEKO ekintzak eta prozesuak. Trantsizio ekologiko bidezkorantz aurrera egitea ahalbidetzen dute, eta genero ikuspegia hartzen dute kontuan.

Ingurumen Hezkuntzako tresnak

(Espainiako Ingurumen Hezkuntzaren Liburu Zuriaren egokitzapena).

- Sentsibilizazioa.
- Komunikazioa.
- Prestakuntza-gaikuntza.
- Parte-hartzea.
- Ebaluazioa eta ikerketa.

XEDE HARTZAILEAK: ASKOTARIKOAK

- Haurrak.
- Helduak.
- Profesionalak: hezkuntza eta ekonomia sektoreetakoak, udal langileak…
- Kolektiboak.
- Herritarrak, oro har.
- Administrazioa eta Udala.

Ekarpenak

JIHPEren ereduaren oinarria dira

HELBURUA


Herritarren sentsibilizazioa, jasangarritasunaren aldeko ekintzarako.

JIHren eginkizunak

- Hezkuntzarako eta gizartea eraldatzeko tresna.

- Gizarte, ekonomia eta teknologia neurrien eta plangintza zein kudeaketa neurrien osagarri den kudeaketa-tresna.

Plan Estrategikoaren orientazioa



- Berriztapen-elementua.
- Zeharkako ikuspegia duen zerbitzua. Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak eta Hiri Ekologiako Zerbitzuak beste udal arlo batzuei laguntzen ahal diete.
- Bi norabideko ikuspegia:
    - Barrura begira, erakundearen barruan.
    - Kanpora begira, Iruñeko herritar, kolektibo eta erakundeei zuzenduta.
- Laneko hartzaile motak zabalduz eta dibertsifikatuz: eskola komunitatea, udal langileak, kolektiboak, herritarrak, sektore ekonomikoa…
- Erabiltzen diren bitartekoei buruz hausnartuz eta lengoaiak, hizkuntzak, metodologiak eta harremanak izateko zein komunikatzeko moduak dibertsifikatuz.
- Lan kolektiboa: adimen kolektiboak batu egiten du.

Konektatutako eredua

Erakundearen barrura eta kanpora begirako ikuspegi bikoitzarekin:

- SAREKO ZERBITZUA. Udalerriari irekia, eta Iruñean JIHrekin erlazionatuta dauden beste erakunde batzuekin lankidetza emankorrak eta trukeak egiteko interesa duena: Iruñerriko Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua (Hezkuntza eta eskola jasangarriak), Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, unibertsitateak… Proiektu bakoitzaren arabera askotariko estrategiak erabiltzen ahal dira: lankidetza, gidaritza, finantzaketa edo bestelakoak.
  Eredu hori estrategia zabalagoetan eta beste udalerri batzuekiko lankidetzan txertatzen ahal da; esaterako, ibai kontratuan (Ibai Parkea) edo Ezkabako UGESPean.
  Zenbait gai eskualdeko ikuspegitik lantzea interesgarria izaten ahal da. Talde teknikoen arteko lankidetzaren, finantzaketaren, gaitasunen eta informazioaren bidez.
- ELKARLANEKO ZERBITZUA udaleko beste arlo eta zerbitzuekin. Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak eta Hiri Ekologiako Zerbitzuak funtsezko eta zeharkako eginkizuna izaten ahal dute, proiektuen abiapuntuak sortuz eta beste arlo edo zerbitzu batzuek proiektuak gauzatzea erraztuz, horretarako behar diren gaitasunak bermatzen badira.
  Lana antolatzeko, Udalaren barruan zeharkako lanetan ikasitakoa hartzen da abiapuntutzat. Kontuan hartu behar da proiektuak finantzatzea ez dela Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren ardura bakarrik: laguntza jasotzen duten beste zerbitzu batzuen aurrekontuekin ere gauzatzen ahal dira.
  Beste arloetan JIH eta ingurumena nola ulertzen, lantzen eta txertatzen diren aztertu eta aldatu behar da.
  JIH eta ingurumen ikuspegia modu eraginkorrean eta zeharka ezartzeko, bi ekintza mota zehaztu behar dira:
    - Nahitaezko ekintzak, hainbat arlo edo zerbitzuri zuzendutakoak eta udal plangintzan txertatutakoak.

- Gomendatutako ekintzak, aukerakoak. Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak beste zerbitzuei proposatzen dizkie, baina balioztatu eta adostu egin behar dira.

JIHren ekarpenak kudeaketa jasangarriari - AUKERAK

- Dauden beste erakunde eta egiturekin sinergiak ezartzeko aukera, jasangarritasunaren arloko zerbitzuak eta prestakuntza eskaintzeko. Adibidez: NUKF. Gaur egun ez dira eskaintzen, baina prestakuntza hori ingurumen arloko gaietara zabaltzeko lan egiten ahal da.
- Udalak, JIHren, ingurumenaren eta energiaren arloetan espezializaturiko diziplina anitzeko talde prestatua du.
- Eskualdeko ikuspegia lantzen ahal da, Iruñerriko udalek taldeak partekatuz edo beste udal batzuekin eskualdeko hitzarmenak eginez, lankidetza eta trukea sustatzeko. Horrek ikuspegi orokorragoa izatea eta baliabideak hobeki erabiltzea ahalbidetuko luke.
- Garrantzitsua da lehentasunak ezartzen ikastea. Ildo horretan, lehentasunak zehazteko eta lana antolatzeko iaz egindako lanari jarraitzen ahal zaio, oso baliagarria izan baita.
- Eskola Jasangarrien Sareko JIH Mahaiaren elkarlana adibide interesgarria da. Erakundeetako taldeen arteko lankidetzak eta Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren ikuspegiak norabide egokian aurrera egitea ahalbidetu dute. Interesgarria da lan-ildo eta metodologia horretan sakontzea.

Agertzen ahal diren mugak

- Udalaren egiturak eta organigramak berak elkarlana zailtzen dute.
- Arlo edo zerbitzu bakoitzak bere agenda du, eta bere eginkizunetan zentratzen da. JIHren eta ingurumenaren zeharkakotasuna eta integrazioa lantzeko beharra: nola txertatu?
- Baliabide ekonomiko mugatuak.
- Eskura dauden baliabideei ahalik eta etekin handiena ateratzeko egin behar da lan.
- Ingurumen Hezkuntzako Museoa Udalaren JIHren estrategiaren oinarritzat hartzea kontzeptu zaharkitua da. Kostu ekonomiko handia du, eta ez du baliorik gehitzen. Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren lana eta aukerak mugatzen ditu, beste ekintza batzuetarako duen erabilgarritasuna murriztuz. Gai horri buruz berariaz hausnartu eta erabakiak hartu behar dira.
  Errioxan eta Gipuzkoan, erabateko berregituraketa eginez norabidea aldatu duten eta adibide gisa baliatzen ahal diren erreferentzia interesgarriak daude.

3. INGURUMEN HEZKUNTZAKO ZERBITZUAREN BARNE HAUSNARKETA

Data	*Bertaratuak*		*Sexua*
	Izena	*Profila*	
2025eko otsaila	Ana María Domínguez Silva	Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuko koordinatzailea	Emakumea
	Gurutze Santxo Gaskue	Ingurumen Hezkuntzako Teknikaria	Emakumea
	Sara Nieto Vera	Ingurumen Hezkuntzako Teknikaria	Emakumea
	Iosu Alfaro Vergarachea	Ingurumen Hezkuntzako Teknikaria	Gizona

Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntza formalaren inguruan ikasitakoa

2023-2024 ikasturtera arte, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak ikasleei zuzendutako jarduera puntual gidatu ugari eskaintzen zituen, bai Ingurumen Hezkuntzako Museoan, bai hiriko berdeguneetan. Jarduera horiek eskari handia zuten eta ongi baloratzen ziren. Kasu batzuetan, gaiak lantzen diren testuinguru batean txertatzen ziren eta, beraz, hezkuntza prozesu baten parte ziren. Gehienetan, ordea, eraldatzeko gaitasun txikiko jarduera isolatuak ziren.

Azken hamarkadetan ohiko jarduera formatua izan da hori, baina egungo ingurumen eta gizarte egoerak «herritarren aktibazioa» eskatzen du, Estatuko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Planak (JIHEP 2021-2025) eta Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategiak (JIHNE 2030) jasotzen duten bezala.

Egiaztatu da eremu formaleko JIHk prozesuan oinarritutako hezkuntza proiektuetara jo behar duela. Baina zer esan nahi du «prozesuan oinarritutakoak»?

Jarduera puntualetatik prozesuan oinarritutako hezkuntza proiektuetarako bilakaera, hezkuntza

1. Ingurumen arloko gaia edozein dela ere, prozesuan oinarritutako hezkuntza programa batek gaiak sakon eta hainbat ikuspegitatik lantzeko aukera ematen du. Ondorioz, landutako gaiari buruzko ezagutza, sentsibilizazioa eta jarrera askoz sakonagoak dira.
2. Bestetik, proiektu horien lan metodologia ingurumen ikuspegia curriculumean txertatzera bideratuta dago. Horrela, berez gainezka dagoen xede hartzaileari zama gehigarria ezartzea saihesten da: begirada berria sartzen da, eta ikastetxearen egunerokoan txertatzen da (jasangarritasuna hitzaren esanahi zabalean). Gainera, metodologia pedagogikoak beraiek ere herritarren parte-hartze publikoaren adibide praktikoak izan behar dira ingurumen arloko gaiei buruzko erabakietan.
3. «Prozesuan oinarritutakoak» izateak ikasgelatik ateratzea eta mugak gainditzea ere esan nahi du, hezkuntza-komunitate osoa eraldatzeko: ikasleak, irakasleak, ikastetxeko gainerako langileak, familiak… Ahal bada, muga horiek ere gainditu eta auzora eta hirira zabaldu behar da jarduna. Prozesuan oinarritutako ingurumen proiektuek indibidualismotik eta erabaki pertsonaletan oinarritutako irtenbideetatik irtenbide kolektiboen bilaketara eramaten gaituzte, erabaki kolektiboek baitute eredua benetan eraldatzeko ahalmena. Azken batean, komunitatea sortzea da helburua, azken hamarkadetan galdu dugun komunitate hori, alegia.

4. «Prozesuan oinarritutakoak» izateak denboran irauten duten proiektuak izatea esan nahi du. Curriculumean txertatuta, ikasturtez ikasturte irauten, eboluzionatzen eta hazten den hezkuntza proiektu bihurtzen da.

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak hainbat urtez garatu ditu prozesuan oinarritutako hezkuntza programak, eta esperientzia horiek aurrekoa berresten dute. Horien artean daude Iruñeko Eskola Baratze Ekologikoen Programa eta Energia Xahutzearen Kontrako Ekintza programa. Programa horiei esker, hezkuntza-komunitatearekin harreman estuagoa izan dugu, eta ondorioztatu dugu benetan sustatzen dituztela ingurumenaren aldeko jarrera jasangarrietarako aldaketak hezkuntza formalean.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak erronka hauek ditu hezkuntzaren arloan bere ibilbideari jarraitzeko:

- Udaleko Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategiarekin eta Hiri Agenda 2030ekin eta lehen aipatutako JIHko berariazko dokumentu estrategikoekin (JIHEP 2021-2025 eta JIHNE 2030) bat etorriko den jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa prestatzea. JIHPEren ekintza-ildoetako bat JIH formala izanen da. 2030era begira, hura garatzeko eta ETKAE 2030en 5. helburu estrategikoa erdiesteko lehentasunezko ekintzak zehaztuko dira: «Klima-kultura ezartzea Iruñeko gizartean».
- Prozesuan oinarritutako JIHko programekin jarraitzea, hala nola Eskola Baratzeen Programarekin edo Energia Xahutzearen Kontrako Ekintza programarekin, eta ibilbide bakarra eskaintzea, ikastetxeek beste gai batzuk hauta ditzaten, betiere hezkuntza-komunitateen parte-hartze prozesuetan txertatutakoak. Horrez gain, ingurumen arloko gaiei buruzko hezkuntza- eta pedagogia-baliabideak ikastetxeei eskaintzea, hala nola maleta ibiltariak, unitate didaktikoak, sareko jarduerak edo Ekozineren Gazte Atala.

Eutsi beharreko

- Ikastetxeei lagun egitea bertan ingurumen arloko gaien inguruan egiten ari diren prozesuetan, informazioa, baliabideak, ekipamenduak eta zabalkunderako laguntza eskainiz, prozesuak garatu eta herritar guztien artean ezagutarazi ahal izateko.
- Klima-aldaketari buruzko tresna berritzailea garatu da Bigarren Hezkuntzarako, Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako diseinatutako Break Out formatuan. Tresna horren ahalmena baliatzeko probak egiten eta abian jartzen ari dira.
- Prozesuan oinarritutako programetan prestatzaileen prestakuntzarekin jarraitzea (Eskola Baratzeak eta Energia Xahutzearen Kontrako Ekintza), eta prestakuntzarako modu eta gai berriak diseinatzea. Esaterako, udaleko eskola patioak birnaturalizatzeko prozesuekin bat datorren Pedagogia Berdeko prestakuntza, irakasleei ez ezik, udaleko eta beste erakunde publiko batzuetako talde teknikoei ere zuzendua.
- Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak eskola patioak birnaturalizatzeko prozesuetan eskuhartzea jardunbide estrategiko egokia da, arrazoi hauengatik:
    - Hiriaren naturalizazioa sustatzen du klimaren ondorioei aurre egiteko, hiri ingurunea ondorio horietara egokituz.
    - Hezkuntza-komunitate osoan eragiten du: prestatzaileen prestakuntzatik hasi eta irauten duen hezkuntza-baliabide bat (patioa bera) eta hari lotutako jardunbideak ezarri arte: parte-hartze prozesua, pedagogia berdea, naturarekiko birkonexioa…
    - Udal langileak prestatzen ditu eta ingurumen zein hezkuntza ikuspegia ohikoak ez diren eremuetan txertatzen du, hala nola Proiektuen Arloan. Horrela, udal politikak hobetzeko «proiektu bultzatzaile» gisa jarduten du.

  - Horregatik guztiagatik, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuan duela gutxi ezarritako ekintza-ildoetako bat da, eta estrategiak hartan sakondu beharko luke, zeharkakoa, berritzailea eta eraginkorra delako.
- Hiria jasangarritasunaren ikuspegitik ezagutzeko jarduera puntualen programa proposatzeko aukera: berdeguneak, mintegiak, energia azpiegiturak… Hiriaren metabolismoa: zer sartzen da? Zer ateratzen da? Zer ur, energia, hondakin eta mugikortasun fluxu daude hirian? Nola funtzionatzen du hiri ekosistemak?
  Kontuz jokatu behar da, Ingurumen Hezkuntzako Estrategian dagoeneko diagnostikatutako desorekak berriro ez sortzeko: hezkuntza formalari gehiegizko pisua eta lehentasuna ematea beste ildo estrategiko batzuen aldean, hala nola Udalarekiko lanaren edo prozesuen aldean.

Herritarrekin egindako Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren inguruan ikasitakoa

2023-2024 ikasturtera arte, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak herritarrei zuzendutako jarduera puntual gidatu ugari eskaintzen zituen, bai Ingurumen Hezkuntzako Museoan, bai hiriko berdeguneetan. Parte-hartzean desberdintasunak izan dira proposamenaren, egutegiaren, hartzaileen eta komunikazioaren arabera, eta alde nabarmenak egon dira herritarren artean piztutako interesean. Nolanahi ere, herritarren zientziako proposamenak eta Klima Ekintzako Taldea bezalako salbuespenak kenduta, herritarrei konpromiso txikia eskatzen zieten ekintza puntualak izan dira.

Azken hamarkadetan ohiko jarduera formatua izan da hori, baina egungo ingurumen eta gizarte egoerak «herritarren aktibazioa» eskatzen du, Estatuko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Planak (JIHEP 2021-2025) eta Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategiak (JIHNE 2030) jasotzen duten bezala.

Egiaztatu da herritarrei zuzendutako JIHk prozesuan oinarritutako prometara jo behar duela, parte-hartze indibiduala eta, batez ere, kolektiboa sustatuko duten eraldaketak eragiteko. Parte-hartze kolektiboak aldaketaren eragina biderkatzen du; horren adibide dira kontsumo taldeak, komunitate energetikoak, komunitate baratzeak, herritarren zientzia…

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak hainbat urtez garatu ditu prozesuan oinarritutako programak, eta esperientzia horiek aurrekoa berresten dute; esaterako, Klima Ekintzako Taldea eta herritarren zientziako proposamenak. Programa horiei esker, herritarrekin harreman estuagoa izan da, eta ondorioztatu da ingurumenaren eta jasangarritasunaren aldeko jarrerak benetan sustatzen dituztela.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak erronka hauek ditu herritarrekin egindako lanean bere ibilbideari jarraitzeko:

- Udaleko Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategiarekin eta Hiri Agenda 2030ekin eta lehen aipatutako Ingurumen Hezkuntzako berariazko dokumentu estrategikoekin (JIHEP 2021-2025 eta JIHNE 2030) bat etorriko den Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa prestatzea. JIHPEren ekintza-ildoetako bat herritarrei zuzendutako JIH izanen da. 2030era begira, hura garatzeko eta ETKAE 2030en 5. helburu estrategikoa erdiesteko lehentasunezko ekintzak zehaztuko dira: «Klima-kultura ezartzea Iruñeko gizartean».

Eutsi beharreko

- Prozesuan oinarritutako JIHko programekin jarraitzea, hala nola Klima Ekintzako Taldearekin eta Herritarren Zientziarekin, eta Iruñeko herritarrak «aktibatzeko» aukera ematen duten beste prozesu batzuk txertatzeko prest egotea. Ildo horretan, komunitate energetikoen prozesuei eta beharrei laguntzea: aholkularitza, esku-hartzea…
- Herritarrei zuzendutako jarduerak programatzeko eskumena duten beste udal zerbitzu batzuek jasangarritasunaren aldeko ekintzak eskain ditzaten lan egitea:
    - Kultura eta Civivox Sarea
    - Gazteria eta Gaztediaren Etxea

  Bi kasuetan, helburu estrategikoa izanen litzateke JIH ekipamendu horien ohiko jardunean (programazioetan eta jarduera eskaintzan) txertatzea, baita haien taldeen osaeran eta ikuspegian ere, udaleko nahiz kanpoko taldeak izan. Prozeduretan ere txertatu beharko litzateke, hala nola lizitazioetan. Ingurumena kulturan txertatzea da helburua.
- Jasangarritasunaren inguruan herritarrei zuzendutako ekintzak modu integralagoan komunikatzea: Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak programatzen dituenak ez ezik, baita beste udal talde batzuek egiten dituztenak ere, hala nola Energia Agentziak, Hiri Ekologiak, Proiektuek eta Obrek edo Mugikortasunak.
- Herritarrei zuzendutako ekintzak hautemandako benetako beharrei erantzunez programatzea. Hau da, egutegia betetzeko programatu beharrean, gai, ekintza, prestakuntza edo sentsibilizazio behar bati erantzutea, baliabide publikoak modu kontzienteagoan eta egokiagoan erabiltzeko.

Udalaren ingurumen egokitzapena

Zerbitzuaren zortzi urteko ibilbidean, udal langileekin lan egiteko JIHren Estrategiako ekintza-ildoa, batez ere, beste udal zerbitzu batzuekin elkarlanean aritzearen bidez ingurumen ikuspegia zeharka txertatzera bideratu da. Hala ere, zerbitzu gutxi batzuetara mugatu da, eta baterako ekintzek eragin txikia izan dute: Hiri Ekologia, Energia Agentzia, Mugikortasuna, Proiektuak eta Obrak, Turismoa, Kultura, Gizarte Ekintza eta Komunikazioa.

Gainerako ekintza-ildoek (hezkuntza formalak, herritarrei zuzendutakoak, komunikazioak eta Ingurumen Hezkuntzako Museoaren kudeaketak) giza baliabide eta baliabide ekonomiko ugari behar izan dituzte. Horrek eragotzi egin du udal langileekin lan egiteko ildoa nahi bezala garatzea.

Udaleko ETKAEk udaleko klima-kulturari buruzko berariazko ekintza-ildoa ezartzen du, eta, zehazki, ekintza hau jasotzen du: «Barne prestakuntzako plan bat garatzea, bai arduradun politikoendako bai klima-ekintzan eta hiriaren eraldaketan zuzenean inplikatutako lanpostuendako, egokitzapen eta arintze helburuak erdiesteko».

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak gaur egun dituen giza baliabideekin eta baliabide ekonomikoekin barne prestakuntzako plan bat garatzeko eta gauzatzeko konpromisoari heltzeak haren baliabideak eta esku-hartzea nabarmen berrantolatzea eskatzen du.

- Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak lehentasunezkotzat jotzen ditu ekintza-ildo hori eta Prestakuntza Planaren garapena, udal jardunean eta Iruñeko herritarrekin egindako lanean izaten ahal duten eragin biderkatzailearengatik. Horregatik, Zerbitzua baliabideak eta lehentasunak berrantolatzen ari da, lan horri lekua egiteko, eta udaleko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategiko berria prestatzen ari dela ere baliatzen ari da.

- Udala ingurumen irizpideetara egokitzeko beste ekintza-ildo batzuk hainbat zerbitzuk Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren laguntza eskatzen duten zeharkako proiektu zehatzak izanen lirateke:
    - Patioen birnaturalizazioa.
    - Magdalena parkea.
    - Azpiegitura Berdearen eta Drainatze Jasangarriko Hiri Sistemen Plana.

Zeharkako proiektu interesgarriak

Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Egungo egoera

Bisitariak

Herritarrak Ingurumen Hezkuntzako Museora joaten dira ekitaldiren bat programatuta dagoenean. Espazioak ez du bisitariak jasotzeko gune gisa funtzionatzen. 2023an, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren jardunak 15.337 pertsonarengan izan zuen eragina; horietatik 6.919 baino ez ziren ekipamendura joan, hainbat arrazoirengatik.

- 3.200 herritarrei zuzendutako Jasangarritasunaren Eskola programarekin lotuta zeuden.
- 1.100 pertsona espazioen lagapenengatik joan ziren.
- 1.600 eskola ikasle hezkuntza jarduerak egitera joan ziren.
- 1.019 pertsonak bisitatu zuten espazioa: 205ek erakusketa ikusi zuten eta gainerakoak herritarren kontsulta gisa zenbatu ziren.

Beste udal ekipamendu batzuekin alderatuta, bereziki Civivox Sarearekin, pertsona gutxi joaten dira ekipamendura.

Baliabideak eta kudeaketa

Betidanik, ekipamendua eta haren jarduera Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren giza baliabideekin eta aurrekontuarekin kudeatu dira. Horrek hauek dakartza:

- Gastuak udal aurrekontuan: garbiketa, berokuntza, mantentze-lanak eta udal plantillan harreraz arduratzeko kontratatutako pertsona.
- Museoko jarduera puntualek (programazioa, gauzatzea, ebaluazioa, plangintza, komunikazioa…) eta ekipamenduaren beraren kudeaketak (bisitarien arreta, mantentze arazoak, lagapenen arreta…) baliabide hauek behar izan dituzte, gutxi gorabehera:
    - Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuko ia bi pertsonaren lanaldia.
    - Herritarrei arreta ematen dien zerbitzuetako laguntzaile bat kontratatuta, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren lan zama nabarmen arindu da.
    - Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren aurrekontuaren erdia inguru.

Espazioa kudeatzeko giza baliabide eta baliabide ekonomiko ugari behar dira, eta horri buruz hausnartu behar da. Gaur egun, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua ikuspegia aldatzen ari da. Horregatik, ikasleendako eta herritarrendako programazioko jarduera puntualak kendu dira, esku-hartze eraldatzaileagoak egiteko. Gaur egun, arrazoi hauengatik joaten dira pertsonak ekipamendura:

- Aretoen lagapenak
- Programatutako jarduerak: azoka txikia, Bizitxoko…

Ingurumen Hezkuntza ekipamendu bakar batera mugatuta gelditzen da. Museoak baliabide ugari kontsumitzen dituenez, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak herritarrei irekitako udal ekipamenduen sarean eragiteko gaitasun txikiagoa du.

Espazioaren programazioak lan eta aurrekontu zama handia dakar, eta ez dator bat Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren berezko xedearekin. Izan ere, «Herritarren klima-kultura» arloan, Zerbitzuaren lana herritarren artean prozesuak sustatzera eta bultzatzera bideratzen da gehiago, bizi dugun klima, ingurumen eta gizarte krisiari aurre egiteko behar den gizarte eta ingurumen eraldaketarantz aurrera egiteko.

Ingurumen Hezkuntzako Museoaren kudeaketa oztopo izan da JIH Iruñeko herritarren artean eta Udalaren barruan zeharka txertatzeko.

Zaila da herritarrak, bereziki gai horri buruzko kontzientzia txikiagoa dutenak, gai zehatz bati eskainitako ekipamenduetara, hala nola Ingurumen Hezkuntzako Museora, erakartzea. Horren adibide dira Kultura Arloak kudeatzen dituen beste udal ekipamendu batzuk ere. Erabilera anitzeko ekipamenduek funtzionatzen dute hobekien.

Bestalde, eraikinak zenbait muga ditu:

- Aretoak dauden goiko solairuen irisgarritasuna mugatua da.
- Eraikin babestua da (aldaketak eta obrak egiteko mugak ditu).
- Barruko erakusketa zaharkituta dago (2008koa da) eta egokitu egin behar da. Erakusketa berri batekin egiteak kostu handia izanen luke. Gutxienez, egungo panelak kendu eta espazioa libre utzi beharko litzateke; horren kostua askoz txikiagoa izanen litzateke.

Dena ez da negatiboa. Ekipamenduak alderdi positiboak ere baditu:

- Kokapena Arantzadiko meandroaren ondoan.
- Eraikinak mantentze-lanak behar ditu, baina, oro har, egoera onean dago eta ez du arazo handirik.
- Oso espazio atsegina da.
- Klaustroa eta barruko patioa enblematikoak dira.
- Baliatzen ahal diren areto eta espazio ugari ditu.

Ondorioak

Ezaugarri horietako ekipamendu bat egokia eta beharrezkoa den hausnartu behar da, aipatutako guztia kontuan hartuta, baita antzeko ekipamenduen esperientzia egiaztatuak ere (CENEAM eta Gasteizko CEA, esaterako) eta JIHEPren zein JIHNEren jarraibideak.

JIHk hirian duen eragina zabaltzeari begira, Museoa, gaur egun dagoen bezala, oztopo bihurtzen da. Herritarrak erakartzeko ekipamendua edukiz hornitzeak giza baliabide eta baliabide ekonomiko ugari kontsumitzen ditu. Horrek jarduna zabaltzea eragozten du eta asko mugatzen ditu aukerak; gainera, eraldatzeko gaitasun txikiko jarduera puntualen eskaintza sortzen du batez ere.

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuan 2016tik genuen inertzia aldatzearen alde egin dugu. Urte hartan osatu ginen talde gisa, eta 2008tik erabiltzen zen ekipamenduaren kudeaketa eredua jaso genuen. Ekipamenduko eskola ikasleendako eta herritarrendako jarduera puntualen ordez, prozesuan oinarritutako ekintzak gauzatu ditugu eta JIH hiriko beste espazio batzuetara zabaldu dugu. Zerbitzuaren esku-hartzea eraldatzailea eta kalitatezkoa izateko aldaketa horrek ezinbestean eskatzen du Ingurumen Hezkuntzako Museoaren kudeaketa eredua aldatzea.

Proposamenak

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuan aukera hauek ikusten ditugu egungo funtzionamenduaren alternatiba gisa. Bat ere ez da bestea baino hobea: aldaketa handiena dakarrenetik txikiena dakarrenera ordenatuta eta modu errazean aztertuta daude.

Museoaren etorkizunari eta norabideari buruz sakon hausnartu behar da.

1. Espazioaren itxiera Ingurumen Hezkuntzako Museo gisa:

Hauek abiapuntutzat hartuta:

- Udalaren lehentasunak eta betebeharrak ikusaraztea: Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategia eta Klima Aldaketari buruzko Foru Legea.
- Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzaren lehentasunak ikusaraztea.
- Eraginaren alderaketa Ingurumen Hezkuntzak beste ekipamenduetan duen txertaketarekin: Civivox, Gaztediaren Etxea, Ziudadela… Publikoaren datuak.
- Ekipamenduaren kostuak: berokuntza, garbiketa eta mantentze-lanak.

2. Espazioa beste zerbait bihurtzea:

2.1. Udal jasangarritasunaren erreferentziazko gunea. (egungo Museoa + bulegoak + aretoak)

- Udaleko jasangarritasun zerbitzu guztien bulegoak: Hiri Ekologia, Ingurumen Hezkuntza, Energia Agentzia, Eraldaketa Komunitariorako Bulegoa, administrariak…
- Bulegoetarako espazioak egokituz. Horrek espazioaren erabilera aldatzea dakar, eta espazioak egokitzeko eta irisgarritasuna hobetzeko obrak eskatzen ditu.
- Kolektiboek erreserbatzen ahal dituzten edo beste udal behar batzuetarako erabiltzen ahal diren aretoak.

2.2. Espazioaren irekiera gizarte erakundeen bidez, ekipamendua kudeaketa soziokomunitarioko gune bihurtuz. Espazioa irekitzeko interesa eta jasangarritasunarekin erlazionatutako helburuak dituzten gizarte erakundeekin hitzarmena egitea.

3. Espazioaren irekiera beharren arabera

Ekipamenduak balio handia du herritarren, Udalaren eta gizartearen prozesuak dinamizatzeko eskaintzen dituen aukerengatik. Topaketak, jardunaldiak eta bilerak egiteko aretoak eta baliabideak ditu: ordenagailuak, proiektagailuak… Ez da beharrezkoa etengabe irekita egotea; beharren arabera irekitzen ahal da. Horrek mantentze kostuak murriztu eta dauden baliabideak hobeki erabiltzeko aukera emanen luke. Badira horrela funtzionatzen duten udal espazioak; esaterako, Calderería kaleko aretoa.

4. Ekipamendua irekita izatea

Herritarrendako ez luke aldaketa handirik ekarriko, baina, azaldutako arrazoiengatik, zenbait baldintza bete beharko lirateke:

- Eraikinaren ardura Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuaren gain ez gelditzea, taldeak ekintza-ildo eraldatzaileago, premiazkoago eta beharrezkoagoak ireki ahal ditzan.

- Beste udal langile batzuek espazioa ireki eta ixteko ardura hartzea.
- Museoa ireki eta ixten duten udal langileak Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuan txertatzea, eta hezkuntzarekin zuzeneko lotura txikiagoa duten eginkizunetan laguntzea: erosketak, ondasunen antolaketa, kudeaketa lanak, hornitzaileekiko harremanak eta espazioen lagapenen antolaketa nahiz koordinazioa, besteak beste.
- Agertoki horretan, ekipamendurako beste erabilera eta erabiltzaile batzuk bilatu beharko lirateke. Horrela, museo gisa erabili beharrean (hamarkada bat baino gehiago da ez duela benetan erabilera hori), erabilera anitzeko espazio gisa baliatuko litzateke, Bulego Berdeekin gertatu den bezala. Udalaren barruan jakinarazi beharko litzateke espazioa erabilgarri dagoela: Beste udal zerbitzu batzuek espazioak behar dituzte?

2., 3. eta 4. aukeretan:

- Aukera horiek ekipamendua modu desberdinetan erabiltzen jarraitzea aurreikusten dute. Guztietan erakusketa iraunkorra kendu beharko litzateke. Zerbitzuak ez du aukeratzat hartzen hura eguneratzea edo erakusketa iraunkor berri bat egitea. Hamarkada bat baino gehiago da espazioarekiko utzikeria handia dagoela. Ezin zaie hain zaharkituta dagoen eta edukiak euskaratzeko irizpideak betetzen ez dituen erakusketarik eskaintzen jarraitu herritarrei. Horrek kalte nabarmena egiten dio Udalaren irudiari.
- Horrek kostu hori hurrengo udal aurrekontuetan jasotzea eskatzen du. Lehenik, dagoen erakusketa materiala kendu eta hormak egokitu beharko lirateke. Horrek, gutxienez, klaustroko espazioa hainbat erabileratarako baliatzeko aukera emanen luke, hala nola aldi baterako erakusketetarako.
- 2., 3. eta 4. aukeretako edozein erabilerak ekipamendua bestelako espazio bihurtzea dakar. Horrenbestez, izena ere aldatu beharko litzateke, espazioaren eginkizun berrira egokituta.

4. EZTABAIDA TALDEA- INGURUMEN HEZKUNTZAKO ZERBITZUA

Data	*Bertaratuak*		*Sexua*
	Izena	*Profila*	
2025/02/04	Ana María Domínguez Silva	Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuko koordinatzailea	Emakumea
	Gurutze Santxo Gaskue	Ingurumen Hezkuntzako Teknikaria	Emakumea
	Sara Nieto Vera	Ingurumen Hezkuntzako Teknikaria	Emakumea
	Iosu Alfaro Vergarachea	Ingurumen Hezkuntzako Teknikaria	Gizona

Ekarpenak

Hauek hartu dira abiapuntutzat:

- Arloarekin egindako prospektiba saioko informazioa.
- Erlazionatutako estatuko eta tokiko estrategiak.

Arloaren lehentasunen inguruko hausnarketa

Talde politiko-teknikoak egindako ekarpenak interesgarriak dira, eta zenbait gako hitz iradokitzen dizkiote IH Zerbitzuko talde teknikoari:


Koherentzia | Aparta | Airea | Estrategikoa

- Koherentzia talde teknikoaren eta politikoaren ikuspegian. Ez dago ikuspegi hori desitxuratzen duen gairik, eta horrek aurrera egitea errazten du.
- Aparta. Aurrera egiteak eta elkarrekin hausnartzeak ilusioa transmititzen dute, gogoa pizten dute eta taldearen sintonia indartzen dute.
- Airea. Etereoa. Zailtasuna ikuspegi estrategiko hori gauza zehatzetara eramatea da.
- Estrategikoa. Ona da Udalak JIHren inguruan duen ikuspegia zeharkakoa eta estrategikoa izatea. Horrek ikuspegi berria ematen dio diziplina honek Udalean egiten duen lanari.

Talde teknikoak eta politikoak partekatutako ikuspegi estrategikoa

Plan Estrategikoaren orientazioa

JIHren Plan Estrategikoa ETKAEtik eratorritako ekintza bat dela eta azken hori lanerako esparru egokia dela abiapuntu hartuta, bai edukiei dagokienez, bai ematen duen ikuspegi eraldatzaileari dagokionez, kontrajarritako bi ikuspegi daude. Horiek aztertu behar dira JIHPEan zer norabidetan aurrera egin zehazteko.



Egungo ereduaren alderdi egokietatik abiatuta, posible da gainerako udal arloetara zabaltzea eta lanaren xede hartzaileak dibertsifikatzea.

Eredu konbinatua, jo nahi dugun norabideko mugimendu batzuk babesten dituzten beste estrategia batzuekin bat datorrela agerian gera dadin (JIHEP, JIHNE, ETKAE 2030 eta GJHak).

JIHEPek ikuspegi berria eta balio eguneratuak ematen ditu, begirada zabaletik. Beharrezkoa da horiek berriro hartzea eta tokiko mailan zehaztea:

Estrategiaren eredua egitura edo ikuspegi tradizionalaren eta berriztapenaren konbinazioa izaten ahal da.

- Administrazioan IH zerbitzua ematen duten lantalde egonkor eta presentzialak izateko beharra.
- Ekipamenduen eta haien eginkizunaren inguruko hausnarketa, eta horiek birpentsatzeko, berregituratzeko eta beraien egokitasuna kudeaketa soziokomunitarioaren ikuspegi berritik baloratzeko beharra.
- JIHren sozioingurumeneko ikuspegi eraldatzailea indartzen du.
- Berriztapen-ildoa: ikerketa eta metodologia.
- Arduradun politikoen eta udal langileen prestakuntza.

Laburbilduz, JIHPE prestatzea hausnarketa eraikitzailea da, udalerrian JIHren kudeaketa eredua zehazteko.

- JIHren ikuspegi erredukzionista gainditzeko eta izaera anitzeko ikuspegira zabaltzeko aukera ematen digu: hezkuntza tresna, kudeaketa elementu eta tresna eraldatzaile gisa. Ikuspegi eta egitura aldatzeko aukerarekin, pertsonengana ikuspegi gizatiarragotik eta funtsezko balioetatik iristen den eraldaketarako tresna garrantzitsua izan dadin. Betiere kontuan hartuta kudeaketa-tresna bat ere badela.
- Udalak gizartearekiko eta ingurunearekiko duen erantzukizuna bere gain hartu behar du; barne ekintzak gauzatu behar ditu, eta gizartea mobilizatzea eta harekin lankidetzan aritzea ere izan behar ditu helburu, lehentasunak ezarriz.
- Posible da JIHPE zurruntasun txikiagokoa eta hautemandako beharrei lotuagoa egitea proposatzea. Orientatuko gaituzten ildo estrategiko argietan oinarrituko litzateke, baina ildo horiek malguak eta doikuntzetara, aldaketetara eta moldaketetara irekiak izanen lirateke. Horrela, errealitate aldakorrera egokitzea ahalbidetuko lukete, «zergatik?» eta «zertarako?» galderak oinarri hartuta.
- Diagnostikoa eta, horren ondorioz, estrategia, hainbat ikuspegitatik planteatzeko aukera aztertuz, baita horrek gerora zer baldintzatuko duen ere.

Ekarpenak

Gaiei, jarduketa eremuei, xede hartzaileei eta ereduari lotutako ideia nagusiak, JIHPEan aplikatzeko

- Hizkera, kontzeptuak eta hitz teknikoak egokitu eta «eraldatu» beharra, mota guztietako publikoengana iristeko. Sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko aurretiko urratsa da.
- JIHri naturarekiko errotzetik eta birkonexiotik heltzea.
- Kontuan hartzea JIHren bidez ere bizi kalitatea hobetzen ahal dela.
- Etorkizuneko gaiak hauetara bideratzen ahal dira:
    - Energia trantsizioaren eta klima-aldaketaren fokua zabaldu egin behar da. Ingurumen arloko zenbait gai garrantzitsu ez daude kontzeptu horien barruan, baina JIHren bidez landu behar dira. Adibidez: kontserbazioa, biodibertsitatea…
    - Natura inguruneari, ekosistemei… lotutako gaiak lehentasunezkotzat jotzen dira, hiriaren birnaturalizazioaren ikuspegitik eta naturaren kontzeptuaren ikuspegi zabalarekin. Oinarritik abiatutako planteamenduaren beharra: bizitza eta gizartea esanahi zabalean naturalizatzea (harremanak, elkarren arteko harremanak, espazio fisikoa…).
    - Beste interesgune bat gizarte arazoei eta osasunari lotutakoa da, baita komunitate mailan lan eginen duen ikuspegi sozial bati heltzea ere, balioak eta errotzea txertatuz.
    - Ikuspegi ekosistemikoaren eta zerbitzu ekosistemikoen inguruko hausnarketa interesgarria da. Nola erortzen garen ikuspegi androzentrikoan, baita asmo positiboetatik abiatuta ere.
- Jarduketa eremuei dagokienez:
    - Lau eremu horiek (informazioa, prestakuntza, parte-hartzea eta ikerketa) ongi planteatuta daude, metodologietan sakontzeko aukera ematen baitute: NOLA egin. Aurreko ataleko edukiak (ZER egin) osatuz.
    - Lau eremuetan batera lan egitea planteatuz, haien arteko oreka erdiesteko. Ildo horretan, parte-hartzeko estrategietan sakontzea komeniko litzateke. Baita ikerketa eta ebaluazio estrategietan ere, bai jarduketen aurretiko faseetan, beharrak hautemateko eta prospektiba egiteko, bai gauzatzearen jarraipenean. Egokitzat jotzen da, halaber, JIHPEan ikerketarako berariazko ekintza-ildoak sortzea.
    - Jarduketa eremuak zabaltzea eta sentsibilizazioa eta kontzientziazioa txertatzea. Beste estrategietan ez dira sartzen, eta hori funtsezkoa da eraldaketarako. Mobilizazioa eta transmisioa ardatz hartuta.
- Lanaren xede hartzaileak dibertsifikatzeak ere gomendagarria dirudi.
    - Ordezkari politikoak eta udal teknikariak lehentasunezkoak dira, haiekin lanean hasteko talde berri gisa.
    - Herritarrez eta haurrez gain, horiek baitira ohiko lan taldeak.
    - Askotariko kolektiboengana iristeko bideak irekiz; adibidez, emakumeen edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen kolektiboengana…
    - Ekonomia eta industria sektoreari zuzendutako estrategiei heltzeko beharra ere aipatzen da.
    - Nabarmentzekoa da balizko xede hartzaileen aniztasuna, baita efizientziaren arabera haien arteko lehentasunak ezartzeko beharra ere.
- Helburuetako bat udal kudeaketan JIHren zeharkakotasuna erdiestea dela kontuan hartuta, garrantzitsua da udal lantalde guztiek sentitzea JIHPEk proposatzen dituen ildo estrategiko guztiak beraiei ere zuzentzen zaizkiela. Plan tradizionaletan, aldiz, zer ildo dagozkigun begiratzen dugu, eta talde bakoitzak bereei heltzen die, ikuspegi orokorra galduta. Ildo horretan, lan blokeak bizi kalitateari lotutako funtsezko balioekin zerikusia duten gaien arabera antolatzen ahal dira, balio horiek udal arlo eta diziplina gehienek

partekatzen baitituzte. Horrela, helburua denek arlo guztietan beren eginkizuna ikustea, ikuspegi holistikoagoa izatea eta zeharkako lana erraztea litzateke. Adibidez: hiriaren osasuna (pertsonei arreta ematen dienari zuzentzen zaio, baina baita azpiegituretan lan egiten duenari ere; eta, gainera, nor ez dago ados bere hirian osasun ona izatearekin?).

- Plangintzaren eta ekintzen eredu tradizionalak ez dizkigu ematen espero genituen emaitza onak. JIH eremu guztietan zeharka txertatzeko eta pertsona guztiengana iristeko bide horretan, sentsibilizazio txikiagoa duten pertsonengandik urruntzen gara, eta hizkerak bestelakoa izan behar du. Hauetara bideratu behar da:
    - Kontzeptuen sinpletasuna: edonork ulertzeko moduko terminoak eta esaldiak izatea, teknizismoak ezabatuz (klima-aldaketa, arintzea, egokitzapena, erresilientzia, azpiegitura berdea…).
    - Emozioekiko konexioa.
    - Sen ona, ongizatea ematen diguten gauzetatik abiatuta (natura, aire zabala, patxada, lasaitasuna…).
- Ikuspegi sistemikoaren bidetik jo behar da, eta gizakion ongizatean sakondu, ekosistemaren parte garen aldetik. Uste dut hori dela edonork zer norabidetan jo ulertzeko modua, geure sentitzen ez ditugun argudio teknikoz bonbardatu gabe. Sinpletasuna eta argitasuna.
- Ekintzak balioei eta ikuspegiari lotzen ahal zaizkie.
- Edukiak eta metodologiak lantzea, egiteko moduei garrantzia emanez.
- JIHPE osoan genero ikuspegia txertatzea, bai gauzatzean, bai emaitzan.

5. IRAKASLEEKIN EGINDAKO JARDUNALDIA

Data	*Bertaratuak* *Profila*	*Ekarpen kopurua*	*Sexua* *Emakumeak*	*Gizonak*	*Orotara*
2025/03/14	Hezkuntza formaleko hainbat mailatako irakasleak	46	13	3	16

Esparrua

Aurretiko urrats gisa, erantsitako materiala ikastetxe guztietara bidali zen:

INGURUMEN HEZKUNTZA HEZKUNTZA-SISTEMAN: IRUÑEKO UDALA EGUNGO ERRONKEI ERANTZUTEKO LANEAN ARI DA.

Klima larrialdia eta sozioingurumeneko egungo erronkak Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzak erantzun beharreko agertokiak dira. Azken hamarkadetan erabili ditugun JIHko tresnak eta baliabideak ez dira nahikoak egoera horri heltzeko.

Batetik, ingurumen arazoak larriagotzen ari dira, baita haien ondorioak ere, hala nola klima-aldaketa, gizarteak egunero aurre egin behar dion arazoa. Bestetik, gaur egungo gizartea ez da duela hamarkada batzuetakoa. Garapen teknologikoak onura ugari ekarri dizkigu, baina, aldi berean, gizakia bere natura eta gizarte ingurunetik urrundu du. Zoritxarrez, gizarte indibidualistagoan, komunitate izaera ahulagoan eta bizi garen tokiarekin lotura txikiagoa duen gizartean bizi gara.

Agertoki berri honetan, Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuan azken urteetan garatzen ari ginen lan egiteko modua egokitzeko beharra ikusi dugu. Aurretiko esperientziak lagundu digu zehazten zer jarduketa motak duten eragin handiagoa eta sustatzen dituzten ingurumenaren aldeko jarrera jasangarrietarako aldaketak, jasangarritasuna ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren aldetik ulertuta.

Joan den ikasturtera arte, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak ikasleei zuzendutako jarduera gidatu puntual ugari eskaintzen zituen, bai Ingurumen Hezkuntzako Museoan, bai hiriko berdeguneetan. Jarduera horiek eskari handia zuten eta ongi baloratzen ziren. Kasu batzuetan, gaiak lantzen diren testuinguru batean txertatzen ziren eta, beraz, hezkuntza prozesu baten parte ziren. Gehienetan, ordea, eraldatzeko gaitasun txikiko jarduera isolatuak ziren.

Azken hamarkadetan ohiko jarduera formatua izan da hori, baina egungo ingurumen eta gizarte egoerak «herritarren aktibazioa» eskatzen du, Estatuko Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Ekintza Planak (JIHEP 2021-2025) eta Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Nafarroako Estrategiak (JIHNE 2030) jasotzen duten bezala.

Egiaztatu da eremu formaleko JIHk prozesuan oinarritutako hezkuntza proiektuetara jo behar duela. Baina zer esan nahi du «prozesuan oinarritutakoak»?

1. Ingurumen arloko gaia edozein dela ere, prozesuan oinarritutako hezkuntza programa batek gaiak sakon eta hainbat ikuspegitatik lantzeko aukera ematen du. Ondorioz, landutako gaiari buruzko ezagutza, sentsibilizazioa eta jarrera askoz sakonagoak dira.
2. Bestetik, proiektu horien lan metodologia ingurumen ikuspegia curriculumean txertatzera bideratuta dago. Horrela, berez gainezka dagoen xede hartzaileari zama gehigarria ezartzea saihesten da: begirada berria sartzen da, eta ikastetxearen egunerokoan txertatzen da

(jasangarritasuna hitzaren esanahi zabalean). Gainera, metodologia pedagogikoak beraiek ere herritarren parte-hartze publikoaren adibide praktikoak izan behar dira ingurumen arloko gaiei buruzko erabakietan.

3. «Prozesuan oinarritutakoak» izateak ikasgelatik ateratzea eta mugak gainditzea ere esan nahi du, hezkuntza-komunitate osoa eraldatzeko: ikasleak, irakasleak, ikastetxeko gainerako langileak, familiak… Ahal bada, muga horiek ere gainditu eta auzora eta hirira zabaldu behar da jarduna. Prozesuan oinarritutako ingurumen proiektuek indibidualismotik eta erabaki pertsonaletan oinarritutako irtenbideetatik irtenbide kolektiboen bilaketara eramaten gaituzte, erabaki kolektiboek baitute eredua benetan eraldatzeko ahalmena. Azken batean, komunitatea sortzea da helburua, azken hamarkadetan galdu dugun komunitate hori, alegia.
4. «Prozesuan oinarritutakoak» izateak denboran irauten duten proiektuak izatea esan nahi du. Curriculumean txertatuta, ikasturtez ikasturte irauten, eboluzionatzen eta hazten den hezkuntza proiektu bihurtzen da.

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak hainbat urtez garatu ditu prozesuan oinarritutako hezkuntza programak, eta esperientzia horiek aurrekoa berresten dute. Horien artean daude Iruñeko Eskola Baratze Ekologikoen Programa eta Energia Xahutzearen Kontrako Ekintza programa. Programa horiei esker, hezkuntza-komunitatearekin harreman estuagoa izan dugu, eta ondorioztatu dugu benetan sustatzen dituztela ingurumenaren aldeko jarrera jasangarrietarako aldaketak hezkuntza formalean.

Lan urte hauetan hezkuntza formalaren eremuan hauteman den lan-ildo eraldatzaileenetako beste bat **irakasleen prestakuntza** da. Funtsezko eremua da, duen eraginagatik eta eraldatzeko gaitasunagatik, baita ingurumen arloan planteatutako prestakuntzetan esparru horretan dagoen hutsuneagatik ere.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak erronka hauek ditu hezkuntzaren arloan bere ibilbideari jarraitzeko:

- Udaleko Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategiarekin eta Hiri Agenda 2030ekin eta lehen aipatutako Ingurumen Hezkuntzako berariazko dokumentu estrategikoekin (JIHEP 2021-2025 eta JIHNE 2030) bat etorriko den Jasangarritasunerako Ingurumen Hezkuntzako Plan Estrategikoa prestatzea. JIHPEren ekintza-ildoetako bat JIH formala izanen da. 2030era begira, hura garatzeko eta ETKAE 2030en 5. helburu estrategikoa erdiesteko lehentasunezko ekintzak zehaztuko dira: «Klima-kultura ezartzea Iruñeko gizartean».
- Prozesuan oinarritutako JIHko programekin jarraitzea, hala nola Eskola Baratzeen programarekin edo Energia Xahutzearen Kontrako Ekintza programarekin, eta ikastetxeei ingurumen arloko gai askori buruzko hezkuntza- eta pedagogia-baliabideak eskaintzea, besteak beste: maleta ibiltariak, unitate didaktikoak, sareko jarduerak edo Ekozineren Gazte Atala.
- Ikastetxeei lagun egitea bertan ingurumen arloko gaien inguruan egiten ari diren prozesuetan, informazioa, baliabideak, ekipamenduak eta zabalkunderako laguntza eskainiz, prozesuak garatu eta herritar guztien artean ezagutarazi ahal izateko.
- Klima-aldaketari buruzko tresna berritzailea garatu da Bigarren Hezkuntzarako, Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako diseinatutako Break Out formatuan. Tresna horren ahalmena baliatzeko probak egiten eta abian jartzen ari dira.
- Prozesuan oinarritutako programetan prestatzaileen prestakuntzarekin jarraitzea (Eskola Baratzeak eta Energia Xahutzearen Kontrako Ekintza), eta prestakuntzarako modu eta gai berriak diseinatzea. Esaterako, udaleko eskola patioak birnaturalizatzeko prozesuekin bat datorren Pedagogia Berdeko prestakuntza, irakasleei ez ezik, udaleko eta beste erakunde publiko batzuetako talde teknikoei ere zuzendua.

Ekarpenak

Ikastetxe gisa ditugun beharrak eta interesak



Analisia
Eskolan proiektuak garatzeko denbora zehaztea, bai irakasleek prestatzeko, bai gauzatzeko.
BALIABIDEAK
Zentzumen edo esperimentazio jarduerak eskaintzea.
Patioa birnaturalizatzeko eta hezkuntza espazio gisa erabiltzeko dagoeneko prestatuta dugun proiektua gauzatzeko azpiegiturak.
Ikastetxeetatik hurbil dauden naturaguneetan egiteko proiektuak animalia eta landare espezieak.
Ibilbideak Iruñeko auzoetan barna, natura balioesteko.
Iruñeko animaliei eta landareei buruzko gida didaktiko erakargarr ezaugarriak, marrazkiak, soinuak, inguruneak…
Transferitzen ahal diren proiektu prestatuak: ibilaldiak, maletak…
Bigarren hezkuntzarako proiektuak.
Iruñeko parkeetan egiteko dokumentazioa eta jarduera proposamenak.
Kutsadura akustikoa lantzea.
IH ZERBITZUAREN EGINKIZUNA
JIHren eremuan dauden baliabideak edo/eta proposamenak bildu eta koordinatuko dituen erreferentziazko erakundea.
Zabalkundea eginen duen erakundea.
Trukerako espazioak proposatuko dituen erakundea.
BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK
Irakasleendako prestakuntza gehiago JIHri, ikuspegi ekosozialari… buruz. Motibazioa sustatzea.
Edukien egokitzapena, informazioa eskuratzeko aukera bermatzek
Sareko lan handiagoa Departamentutik, Udaletik, elkarteetatik, osasun arlotik…
JIHko LHko ikasleekin lankidetzak eta sinergiak ezartzeko plangintz eza. JIHko LH dualeko ikasleak hartzen dituzten erakunde eta enpresen urritasuna. Museoa Iruñerriko lantoki publiko bakanetak bat da. LH dualeko ikasleak hartu behar ditu. JIHko ikasleen eta Udaleko IH Zerbitzuaren arteko deskonexioa. Urtero 24 ikaslek lortzen dute JIHko titulua, eta Museoa beraiendako erreferentziazko toki bat izatea behar dute. Arratsaldez (15:00etatik 21:00etara) ikasten duten LHko ikasleek ez dituzte goizez aritzen diren ikastetxeetako zerbitzu berberak.





Iruñea osotasun gisa hartuta dauden beharrak eta interesak

Analisia
EDUKIAK LANTZEA

Helburu komunen alde borrokatzea maila globalean. Adibidez: Uharte ekologiko gehiago kalean, paperontziak elkarren ondoan egon daitezen. Bidegorriak hobetzea.
Mugikortasun jasangarria. Bidegorriak.
Mugikortasun jasangarriaren kultura sortzea. Edozein kolektibok berea balitz bezala ikustea.
Kutsadura akustikoa lantzea.
PRESTAKUNTZA
Hondamendi naturalei aurre egiteko prestakuntza eta protokoloak.
GAZTEEN ETA HAURREN BEHARRETARA EGOKITUTAKO EGIAZKO INFORMAZIOA
Hainbat eragileren bidez klima-aldaketari buruzko gezurrei aurre egitea, dibulgazio zientifikotik abiatuta.
Emozioak kudeatzen laguntzea, ekoantsietateari aurre egiteko.
Gazteen interesetatik urrutiratutako JIH. Talde horri zuzendutako eskaintzak erakargarriago egitea.

Proposamenak





Analisia
INFORMAZIOA - SENTSIBILIZAZIOA
Ingurumenari buruzko gezurrei, desinformazioari eta negazionismoari aurre egitea, JIH tresna gisa erabiliz.

Gazteak ingurumenari buruzko gezur asko jasotzen dituzte.
PRESTAKUNTZA
Sektoreko profesionalendako espezializazio ikastaroak eskaintzea. Adibidez: kolektibo zaurgarriekin JIH inklusiboa lantzeko ikastaroa; naturagune babestuetan JIH lantzeko ikastaroa…
JIHko LHko ikasleen eta Iruñeko Udaleko IH Zerbitzuaren arteko lankidetzak irailean planifikatzea.
Museoa JIHko LHko ikasleendako prestakuntza dualeko enpresa gisa lekutzea.
JIHko LHko ikasleak Museoaren erabakiak hartzeko prozesuetan, lanetan eta proiektuetan sartzea. Adibidez: Museoaren erakusketa berriro abian jartzen bada, ikasleek diseinuan eta gauzatzean parte hartu ahal izatea.
BALIABIDEAK: prozesuen diseinua
JIHren prozesu ikuspegia, jarraitutasuna.
Parte-hartzaileak jabetu daitezen zer aldatu nahi duten beren ingurunea ingurumenaren aldetik atseginagoa egiteko, eta, ondoren, gauzatzen ahal diren aldaketak proposatzeko prozesuak.
Ikastetxeen eskura jartzea eskolek berek zuzenean antolatzen ahal ez dituzten eta ikasleei jarduteko, inplikatzeko eta aldaketa ikusteko aukera emanen dieten prozesuak.
Herritarrak hezi eta sentsibilizatuko dituen eta jarduteko aukera emanen dien hiriko biztanleendako egokitze eta arintze plan orokorra diseinatu eta gauzatzea.
BALIABIDEAK: hezkuntza ekintza eraldatzailerako espazioak.
Ikastetxeak auzoan zaintzeko, landatzeko eta birnaturalizatzeko erabiliko dituen espazioak.
Ikastetxeen patioak birnaturalizatzea.
HERRITARREN PARTE-HARTZEA
Ikaskuntza eta zerbitzu jarduerak eskaintzea. Adibidez, beste ikastetxean edo Iruñean berdeguneak egokitzea.
Hiriaren mesederako izanen diren herritarren zientziako proiektuetarako lankidetza.
16 urtez beherakoendako ingurumen boluntariotzako programak (ibaia garbitzea, zuhaitzak landatzea…).
Familiendako eta 18 urtez beherakoendako ingurumen boluntariotza.
JIH Museotik ateratzea eta gazteen espazioetara hurbiltzea (aisialdi guneak, musika jaialdiak…).
IKASTETXEEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA
Iruñea, Espainia edo Europa mailan ekintza zehatzetan ikastetxeak elkartuko dituzten proiektuak.
Ikastetxeen arteko koordinazioa erraztea.
Udalak ikastetxeen arteko proiektuen zabalkundea eta banaketa erraztea; biltegi gisa jardutea, ikastetxe batek prestatu dituen eta beste batzuetan errepikatzen ahal diren proiektuak banatzen laguntzeko.

Ingurumenari buruzko gezurren aurka modu aktiboan lan egitea, prestakuntza eta ikastetxeen arteko koordinazioa erraztea eta hezkuntza prozesuak babestea dira hezkuntza sektoreak

6. WEB GALDETEGIA: IRUÑEKO UDALEKO LANGILEAK


Data	*Tresna*	*Parte-hartzaileen kopurua*
2025/03/28 - 2025/04/09	Web galdetegia	50


Ekarpenak


Udaleko parte-hartzea handia eta askotarikoa izan da.

PROFILAK

HIZKUNTZA			SEXUA			ADINA	
Gaztelania	38	% 76	Emakumea	25	% 50	30 urtez beherakoa	1
Euskara	12	% 24	Gizona	25	% 50	30 eta 45 urte bitartekoa	18
Orotara	50		Orotara	50		46 eta 67 urte bitartekoa	31
						67 baino gehiago	0







	UDAL ARLOA:	ZERBITZUA:	
1	Gizarte Ekintza	Zuzendaritza	1
2	Alkatetza Kabinetea	Aholkularitza Juridikoa	1
		Komunikazioa	1
1	Komunikazio Instituzionala eta Gardentasuna	Komunikazioa	1
3	Hiri Kontserbazioa eta Osasuna	Berdeguneak	3
6	Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Arloa	Kirola	1
		Zuzendaritza	1
		Hezkuntza	1
		Hezkuntza - Haur Eskolak	3
13	Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda	Energia Agentzia	2
		Bulego Estrategikoa	5
		Jasangarritasuna - Hiri Ekologia	2
		Hirigintza Kudeaketa	3
		Plangintza	1

8	Berdintasun, Ekintza Komunitario, Auzo, Herritarren Parte-hartze eta Euskara	Ekintza Komunitarioa - Haurren, Nerabeen eta Familien Prebentziorako Programa	1
			1
		Aniztasun kulturala	1
		Herritarren Parte-hartzea	5
6	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiekzioko, Berriztapeneko, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Arloa	Merkataritza	1
		Gazteria	2
		Sustapen Ekonomikoa, Gazteria eta Lankidetza.	2
		Turismoa	1
4	Proiektu Estrategikoak eta Mugikortasuna	Proiektu Estrategikoak eta Mugikortasuna	1
		Proiektuak eta obrak	2
		Mugikortasuna	1
1	Herritarren Segurtasuna eta Bizikidetza	Arloko Zuzendaritza	1
	PROFIL POLITIKOA		
5		Zinegotzia	5
		Zinegotzia	
		UPN	
		Zinegotzia	
		Gizarte Ekintza	

JIHren definizioa eta eginkizunak

Herritarren sentsibilizazioa eta JIHk kudeaketa-tresna gisa duen eginkizuna funtsezkotzat jotzen dira.


1. ZURE IRITZIZ, ZER DA INGURUMEN HEZKUNTZA ETA ZERTARAKO BALIO DU?	
Askotariko hartzaileen sentsibilizazioa eta prestakuntza lantzeko aukera ematen duen tresna: herritarrak, teknikariak, kolektiboak…	39
Gizartea eraldatzeko tresna.	24
Ingurumen kudeaketarako tresna, beste tresna ekonomiko, politiko edo teknologikoen osagarria.	20
Ikastetxeetan lantzen den ikasgaia edo gaia.	5
ED/EE	1
Beste batzuk.	
Ingurumen hezkuntzari buruzko museoa edo interpretazio zentroa.	1

1. Sexuaren araberako banaketa	Emakumeak	Gizonak
Ikastetxeetan lantzen den ikasgaia edo gaia.	1	4
Askotariko hartzaileen sentsibilizazioa eta prestakuntza lantzeko aukera ematen duen tresna: herritarrak, teknikariak, kolektiboak…	25	14
Gizartea eraldatzeko tresna.	23	1
Ingurumen kudeaketarako tresna, beste tresna ekonomiko, politiko edo teknologikoen osagarria.	13	7
ED/EE	0	1
OROTARA	62	27
1. Sexuaren araberako banaketa, ehunekotan	Emakumeak	Gizonak
Ikastetxeetan lantzen den ikasgaia edo gaia.	% 2	% 15
Askotariko hartzaileen sentsibilizazioa eta prestakuntza lantzeko aukera ematen duen tresna: herritarrak, teknikariak, kolektiboak…	% 40	% 52
Gizartea eraldatzeko tresna.	% 37	% 4
Ingurumen kudeaketarako tresna, beste tresna ekonomiko, politiko edo teknologikoen osagarria.	% 21	% 26
ED/EE	% 0	% 4

JIHko ekintzen, proiektuen edo programen gauzapena

Dagoeneko JIHko edo ingurumeneko ekintzaren bat egiten duten pertsonak dira

2. JASANGARRITASUNAREN INGURUKO GAIAK EDO/ETA INGURUMEN HEZKUNTZAKO EKINTZAK BARNE HARTZEN DITUZTEN EKINTZAK, PROIEKTUAK EDO PROGRAMAK EGITEN DITUZU?	
Bai	33
Ez	10
ED/EE	7
OROTARA	50



2. Sexuaren araberako banaketa	Emakumeak	Gizonak
Bai	14	19
Ez	6	4
ED/EE	5	2
OROTARA	25	25
Bai	% 56	% 76
Ez	% 24	% 16
ED/EE	% 20	% 8

3. ERANTZUNA BAIEZKOA BADA, ZEIN EKINTZA MOTA EGITEN DUZU?	
JIH EGITEN DUTE ETA BADAKITE EGITEN DUTELA	
INFORMAZIOA-KOMUNIKAZIOA	
Hiri Ekologia.	Informazioa.
	Komunikazio ekintzak (prentsa oharrak, sare sozialak…), erakusketak, hitzaldiak eta landa irteerak.
Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Arloa.	Berariazko kultur programazioak Civivox sarean, dinamika horietatik abiatzen diren erakusketak.
Komunikazioa.	Laguntza jasangarritasunarekin zerikusia duten ekintzen komunikazioan.
Berdintasun, Ekintza Komunitario, Auzo, Herritarren Parte-hartze eta Euskara Arloa.	Ekologia feministari buruzko hitzaldiak.
PRESTAKUNTZA	
Sustapen Ekonomikoa, Gazteria eta Lankidetza.	Elikagaien xahuketa murrizteari buruzko gidak.
Hiri Ekologia.	Prestakuntza eta sentsibilizazio programak.
Merkataritza.	NEXT finantzaketa duten eta saltokiei energia efizientziari, hondakinen kudeaketari eta elikagaien xahuketari buruzko prestakuntza ematera zuzendutako amaitutako proiektuak.
Mugikortasuna.	Helduendako Bizieskola, Bizikleta Eskolan, Eskola Bideak.
Gizarte Ekintza.	Gizarte-laguntza eta hezkuntza eginkizunak dituzten eta energiaren eta horniduren erabilera arduratsuarekin zerikusia duten programak.
Gizarte Ekintza.	Lorezaintzako Lantegi Eskola.
Haurren, Nerabeen eta Familien Prebentziorako Programa.	Birziklapena adingabeen taldearekin.
Haurren, Nerabeen eta Familien Prebentziorako Programa.	Txangoak, zaborra eta zikinkeria duten tokiak hautemateko.

Hainbat eremutako askotariko ekintzak proposatzen


PARTE-HARTZEA - EKINTZA	
Herritarren Parte-hartzea.	Konpostaje komunitarioa eta mugikortasunarekin erlazionatutakoak.
Herritarren Parte-hartzea.	Herritarren parte-hartzean, berariazko prozesuen osagarri.
Hiri Ekologia.	Parte-hartzea.
Herritarren Parte-hartzea.	Laguntza-komunitate energetikoak eta hiri baratzeak eratzeko parte-hartze prozesuei.
Gizarte Ekintza.	Ibaiak garbitzeko Gizarte Enpleguko lantaldea.
Gizarte Ekintza.	Gizarte Enpleguko «Reciclo» lantaldea (bertan behera utzitako bizikleten egokitzapena).
Energia Agentzia.	Komunitate energetikoak.
IKERKETA-EBALUAZIOA	
Gizarte Ekintza.	Gaur egun, zero hondakineko proiektu pilotua aztertzen ari dira, ikastetxeetan soberan geratzen den janaria aprobetxatzeko…
INGURUMEN ARLOKO GAIAK TXERTATZEN DITUZTE ETA EZ DITUZTE JIH-TIK BEREIZTEN, EDO EZ DA ZEHAZTU ZER JIH-KO EKINTZA MOTA GARATZEN DITUZTEN	
Sustapen Ekonomikoa, Gazteria eta Lankidetza.	Biosphere ziurtagiria.
	Ekonomia zirkularra Udalean.
	Sanferminetako karbono aztarnaren neurketa.
Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Arloa	Patioen birnaturalizazio-proiektua.
	Jasangarritasunari lotutako neurrien txertaketa kultur eta kirol ekitaldietan (IH Zerbitzuari esker).
Kirola.	Kirol ekitaldien jasangarritasunaren sustapena (jasangarritasunari eta ekitaldiei buruzko Foru Dekretua aplikatu ondoren), baita udal kirol instalazioetan ere.
Herritarren Parte-hartzea.	Zeharkakotasuna lanean. Jasangarritasunaren betaurrekoak.
Hirigintza.	Nire lanean, ahal den neurrian, natura hirian txertatzen saiatzen naiz.
Berdintasun, Ekintza Komunitario, Auzo, Herritarren Parte-hartze eta Euskara Arloa.	Klausulen txertaketa dirulaguntzetan eta kontratuetan.
Bulego Estrategikoa.	Besteak beste, trantsizio energetikoko, birnaturalizazioko eta mugikortasun jasangarriko ekintzak biltzen dituzten proiektuak.
Gobernu Estrategiko, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda Arloa.	ETKAEren jarraipena.
Gobernu Estrategikoa, Hirigintza, Etxebizitza eta 2030 Agenda.	RUNA proiektua.
INGURUMENAREKIN LOTUTAKO BEREN LANAREN EKINTZAK EDO ZEREGINAK DESKRIBATZEN DITUZTE	
Berdeguneak.	Berdeguneen mantentze-lanak eta obrak.
	Hiriko berdeguneen mantentze-lanak eta horiek sortzeko eta hobetzeko obrak.
	Berdeguneen kudeaketa.
Herritarren Segurtasuna eta Bizikidetza.	Obrak.
	Trafikoaren erregulazioa.
	Hondamendi naturaletako arriskuen prebentzioa.
Hirigintza Kudeaketa.	Urbanizazio proiektuak.
Hirigintza Gerentzia.	Urbanizazio proiektuen kudeaketa.
Bulego Estrategikoa.	Iruñeko Hiri Agendako proiektuak eta haiekin erlazionatutako Europako proiektuak.
Hirigintza Gerentzia.	Oraingoz Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak proposatu dizkigunak soilik.
Turismoa.	Turistendako bisita gidatuak.

BESTE BATZUK	
Gazteria.	Oinarrizko gauzak, baina ez berariazkoak; zeharkako lana.
SENTSIBILIZAZIOA ETA KONPROMISO PERTSONALA	
Hirigintza.	Ez naiz kontsumista, ahal dudan guztia berrerabili eta birziklatzen dut, eta egunerokoan oinez edo bizikletaz mugitzen naiz.

Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuak Udalaren barruan JIHko ekintzei dagokienez eskaini behar dituen laguntzak edo baliabideak

4. LAGUNTZA/BALIABIDEAK	Erantzunak
Informatzea eta komunikatzea.	38
Prestakuntza ematea.	37
Sustatzea.	28
Beste erakunde, programa, arlo batzuei laguntzea.	28
Lider izatea.	17
Beste batzuk: osorik edo zati batean finantzatzea.	3
Erantzunak OROTARA	151

Udal arloek IH Zerbitzuaren informazio eta prestakuntza lanen garrantzia azpimarratzen dute.



4. Sexuaren araberako banaketa	Emakumea	Gizona
Informatzea eta komunikatzea.	% 24	% 26
Prestakuntza ematea.	% 24	% 25
Sustatzea.	% 21	% 15
Beste erakunde, programa, arlo batzuei laguntzea.	% 19	% 18
Lider izatea.	% 10	% 12
Beste batzuk: finantzatzea, zati batean finantzatzea.	% 1	% 3


Jasangarritasunaren esparruko prestakuntza beharrak, lan profesionala errazteko

SENTSIBILIZAZIOARI BURUZKO PRESTAKUNTZA
• Betaurreko berdeak: ingurumenari eta ingurumena zaintzearen garrantziari buruz sentsibilizatzeko lanak.
• Ingurumen sentsibilizaziorako lan metodologiak.
KOMUNIKAZIOARI BURUZKO PRESTAKUNTZA
• Komunikazioa.
• Gerrilla komunikazioko metodologiak: tokian bertan egiteko komunikazio ekintza txikiak (kartelak, euskarri digitalak…).
• IKTen erabilera ingurumen hezkuntzan.
• Ingurumen prebentzioaren komunikazioa.
• Ingurumenari eta jasangarritasunari buruzko informazioa emateko lan metodologiak.
• Tailerrak.
PARTE-HARTZEKO ETA BIDERAKETAKO METODOLOGIETAKO PRESTAKUNTZA
• Parte-hartzeko ekintzetarako lan teknikak.
• Taldeen bideraketa.
GAI KONKRETUEN GAINEKO PRESTAKUNTZA
• 2030eko ingurumen erronkak.
• Ekonomia zirkularra eta komunitate energetikoak.
• Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako Estrategia.
• Ibaiko habitata, drainatze jasangarria.
• Beste hiri batzuetan, baita beste herrialde batzuetan ere, egindako jarduketa interesgarrien ezagutza.
LANBIDE JARDUNARI LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
• Oinarrizko prestakuntza: oinarrizko kontzeptuak, legeria, politika zeharkakotasunaren txertatzeatxertaketa publikoen ezarpenean, lizitazio prozesuak, besteak beste. Beren lan edo prestakuntza ibilbidearen bidez gaitasun horiek eskuratu ez dituzten pertsonendako.
• Jasangarritasunaren ikuspegia eguneroko lanean txertatzeko metodologiak edo/eta praktikak.
• Baliabidea, lanpostuan gauzatu beharreko ekintzak eta arlo bakoitzeko ingurumen ikuspegia ezagutzea.
• Egunerokoan eta udal kudeaketan ekintza zehatzak gauzatzeko neurri txikiak.
• Ikuspegi horren txertaketa proiektuen garapenean.
• Energia eta hornidurak behar bezala kudeatzeko prestakuntza, udaleko hezkuntza taldeendako eta azpikontratatutako programetako taldeendako.
• Klima-aldaketari eta gure lanpostutik egiten ahal dugunari buruzko prestakuntza.
• Jasangarritasuna eta kirol instalazioak.
• Jasangarritasuna kirol dirulaguntzen deialdien bidez.
• Hirigintzarekin eta jasangarritasunarekin erlazionatutako beste proiektu batzuetan arrakastaz gauzatutako proiektuak ezagutzea, ahal bada haien egileen edo dagozkien udal teknikarien eskutik.
• Lorezaintzako obretan kontuan hartu beharreko ingurumen alderdiak.
• Hurbileko merkataritzaren sektorearekin erlazionatutakoak.
• Gai hau GAZTEEKIN lantzeko eta eremu honekin erlazionatutako gazteendako programak sustatzeko modua.
• Gizartea heztea, gure eremuan egiten diren ekintzak azalduz. LORATEGI ZERBITZUA.

JIHrekin erlazionatutako tresnei eta prozedurei buruzko prestakuntza jasotzeko interesa

6. TRESNAK ETA PROZEDURAK	Erantzunak
Komunikazioa, nola eman informazioa herritarrei.	29
Herritarrak sentsibilizatzeko tresnak.	26
Nola bideratu herritarren parte-hartzea.	17
Taldeen kudeaketa.	16
Beste batzuk:	
Ingurumen klausulak lizitazioetan.	2
Jasangarritasunaren ebaluazioa eta eragina politika publikoetan.	1
Proiektuen ingurumen eragina.	1
Departamentuen arteko lana eta helburu komunen erdiespena modu eraginkor eta efizientean.	1
Jasangarritasuna eta kirol instalazioak.	1
Jasangarritasuna kirol dirulaguntzen deialdien bidez.	1
Turismo gidarien prestakuntza.	1
Erantzunak OROTARA	96

JIHko prestakuntza behar zehatzak daude, bai edukiei dagokienez, bai tresnei eta prozedurei dagokienez.



6. Sexuaren araberako banaketa	Emakumea	Gizona
Komunikazioa, nola eman informazioa herritarrei.	% 28	% 37
Herritarrak sentsibilizatzeko tresnak.	% 28	% 31
Taldeen kudeaketa.	% 21	% 16
Nola bideratu herritarren parte-hartzea.	% 23	% 16

Beste gai interesgarri batzuk

7. BESTE ZERBAIT ESAN NAHI BADUZU, HAU DA ZURE TOKIA
SENTSIBILIZAZIOA
Udal langile guztiei zuzendutako oinarrizko sentsibilizazioa, lanpostuan eragina izanen duten formatu erraz eta azkarrekin.
Udal proiektu handien inguruko sentsibilizazio handiagoa, herritarrek proiektu horiek aintzat har ditzaten.
Ongi legoke Iruñeko Udalaren lan eremuan horniduren kontsumo arduratsurako sentsibilizazio ekintzak egitea.
PRESTAKUNTZA
Prestakuntzari dagokionez, uste dut oso interesgarria izanen litzatekeela prestakuntza maila desberdinak ezartzea.
Arlo edo zerbitzu desberdinetarako berariazko prestakuntza espezializatua.
Jardunaldi edo topaketa espezializatuak.

Sakontzeko mintegiak, kanpoko adituen laguntzarekin (inplikatutako udal langileen parte-hartzearekin eta zuzenean aplikatzeko protokoloak edo lan tresnak garatzeko baliagarriak izanen diren mintegiak).
Nire ustez, zailtasun edo erronka handiena denboraren kudeaketari eta gure egungo zereginen osagarria izanen den tresna bat erabiltzeko gakoa aurkitzeari lotuta dago, betebehar gisa hartu gabe eta JIHak duen ahalmena nabarmenduz. Denbora gehigarririk eskatzen ez duten prestakuntzak, hirian barna noraezean ibiltzeko borondatezko ekintzak…
Udalaren eraikin eta arlo bakoitzeko hondakin plan batekin erlazionatzea, baita energiaren kudeaketarekin eta efizientzia eta aurrezpen neurriekin ere.
ERAGINAREN IKERKETA - EBALUAZIOA
Batzuetan zaila egiten zait Zerbitzutik egiten diren ekintzen eragina ikustea.
KUDEAKETA-TRESNA
Uste dut funtsezkoa dela ingurumen hezkuntzaren eginkizuna kudeaketarako beste tresna gisa definitzea eta udal egituran eta lan egiteko moduetan garrantzia ematea, arlo desberdinen arteko lankidetzarako bideak bilatuz.
EKINTZA
Nik Udalean faltan sumatzen dudana barne mailako jarduna da: adibidez, birziklatzeko aukera izatea, etab.
ESKER ONAK
Eskerrik asko aukerarengatik! Oso gai beharrezkoa.
Animo planarekin!
Uste dut lan ona egiten ari direla. Segi horrela!
Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua zoriondu nahi dut, lan bikaina egiten baitute herritarrekin lantzen dituzten proiektuetan.

7. WEB GALDETEGIA: OROKORRA

Data	*Tresna*	*Parte-hartzaileen kopurua*
2025/03/31 - 2025/04/09	Web galdetegia	116


Ekarpenak


PROFILAK


HIZKUNTZA	
Gaztelania	103
Euskara	13
Orotara	116

SEXUA	
Emakumea	77
Gizona	34
Nahiago dut ez esatea	5
Orotara	116

PROFILA	
Herritarrak	59
Hezkuntza formala	28
Kolektiboa/elkartea	13
Beste administrazio eta erakunde publikoak	9
JIHko profesionalak eta erakundeak	7
Sektore ekonomikoa	0








Parte-hartzea askotarikoa izan da, eta herritarrak izan dira nagusi.

KOLEKTIBOA ELKARTEA	HEZKUNTZA FORMALA	SEKTORE EKONOMIKOA	BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK	JIH-KO PROFESIONALAK ETA ERAKUNDEAK
V. Tropa Eskaut Taldea gazte elkartea	Azpilagaña ikastetxe publikoa	Iruñeko Zabalguneko, Lezkairuko eta Erripagañako enpresaburuen elkartea	Nafarroako Hezkuntza	Arbuniés y Lekunberri Asociados
Isaba elkartea	Doña Mayor ikastetxea	EHAEO	Nafarroako Gobernua	Intro Ekitaldi Jasangarriak
Mendialdea Auzo Elkartea	Claret Larraona		Iruñerriko Mankomunitatea	PBHS
Ermitagañako auzo elkartea	Buztintxuri IP		Nafarroako Gobernua	
EL LAGO Guraso Elkartea	Gurutzeko plazako BHI		Iruñeko Udala	
Loraldea	Jaso ikastola		NHEBZ	
Eunate (Nafarroako pertsona gorren familien elkartea)	Monjardín lizeoa			
ANFAS	La Compasión Escolapios			
ONCE	Santa Teresa de Jesús (Teresianas) ikastetxea			
Sanduzelaiko ARKEOLOGIA	El Molino ikastetxea			
	Nekazaritza eta Basogintzako Ikastetxe Integratua			
	Ermitagaña HLHIP			
	Mendillorri HLHIP			
	Iturrama BHI			
	Patxi Larrainzar IP			
	Nafarroako Unibertsitatea			
	Zientzien Museoa - Nafarroako Unibertsitatea			
	Nafarroako Unibertsitate Publikoa			

PROFILA - OROKORRA	EMAKUMEA	GIZONA	NAHIAGO DUT EZ ESATEA	OROTARA
Herritarrak.	38	21	0	59
Kolektiboa/elkartea.	6	4	3	13
Hezkuntza formala.	22	5	1	28
Sektore ekonomikoa.	0	0	0	0
Beste administrazio eta erakunde publikoak.	6	3	0	9
JIHko profesionalak eta erakundeak.	4	2	1	7



JIHren definizioa eta eginkizunak

1. ZURE IRITZIZ, ZER DA INGURUMEN HEZKUNTZA ETA ZERTARAKO BALIO DU?	
Askotariko hartzaileen sentsibilizazioa eta prestakuntza lantzeko aukera ematen duen tresna: herritarrak, teknikariak, kolektiboak…	93
Gizartea eraldatzeko tresna.	58
Ingurumen kudeaketarako tresna, beste tresna ekonomiko, politiko edo teknologikoen osagarria.	40
Ikastetxeetan lantzen den ikasgaia edo gaia.	19
Beste batzuk: Gutxi erabiltzen den ikuspegia, baina ongi erabiliz gero hobekuntza ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak, osasunekoak eta mentalak dakartzana	1
ED/EE	2

Nabarmentzekoa da JIHak sentsibilizatzeko eta prestakuntza emateko tresna gisa duen eginkizunari ematen zaion


1. Sexuaren araberako banaketa	Emakumeak	Gizonak	Nahiago dut ez esatea
Ikastetxeetan lantzen den ikasgaia edo gaia.	14	5	0
Askotariko hartzaileen sentsibilizazioa eta prestakuntza lantzeko aukera ematen duen tresna: herritarrak, teknikariak, kolektiboak…	59	29	5
Gizartea eraldatzeko tresna.	42	14	2
Ingurumen kudeaketarako tresna, beste tresna ekonomiko, politiko edo teknologikoen osagarria.	29	8	3
ED/EE	2	0	0

1. Sektoreen araberako banaketa	Herritarrak	Kolektiboak	Hezkuntza formala	Administrazioa	JIHko profesionalak
Ikastetxeetan lantzen den ikasgaia edo gaia.	7	1	10	1	0

Askotariko hartzaileen sentsibilizazioa eta prestakuntza lantzeko aukera ematen duen tresna: herritarrak, teknikariak, kolektiboak…	49	11	20	7	6
Gizartea eraldatzeko tresna.	20	7	23	5	3
Ingurumen kudeaketarako tresna, beste tresna ekonomiko, politiko edo teknologikoen osagarria.	16	6	14	2	2
ED/EE	1	0	0	1	0

Ingurumenari eta jasangarritasunari buruzko ezagutzak

2. BADUZU INGURUMENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN INGURUKO EZAGUTZARIK?	
Bai.	64
Hein batean.	44
Ez.	5
Ez nago ziur.	3
OROTARA.	116




2. Sexuaren araberako banaketa	Emakumeak	Gizonak	Nahiago dut ez esatea
Bai.	38	24	2
Hein batean.	33	9	2
Ez.	3	1	1
Ez nago ziur.	3	0	0

2. Sektoreen araberako banaketa	Herritarrak	Kolektiboak	Hezkuntza formala	Administrazioa	JIHko profesionalak
Bai.	29	5	18	5	7
Hein batean.	24	7	10	3	0
Ez.	4	1	0	0	0
Ez nago ziur.	3	0	0	0	0

Parte-hartzea JIHrekin erlazionatutako ekintzetan

3. INGURUMEN HEZKUNTZAREKIN ERLAZIONATUTAKO JARDUERAREN BAT EGITEN DUZU EDO HORRETAN PARTE HARTZEN DUZU?	
Bai, nire aisialdian gozatzen ditut.	65
Bai, nire lanean.	58
Ez, ez dut deus ere egiten.	18
Ez dakit.	5
Beste batzuk:	
Hitzaldiak ematen ditut musu truk.	1
JIHrekin erlazionatutako boluntariotza	1
Nire ilobei edozein unetan ematen dizkiet, baita lanean ere.	1
Ekonomia zirkularrari, konpostajeari... buruzko ikastaroa egin nuen NUPen.	




JIHko jardueretan modu aktiboan hartzen da parte, batez ere aisialdian.


3. Sexuaren araberako banaketa	Emakumeak	Gizonak	Nahiago dut ez esatea
Bai, nire aisialdian gozatzen ditut.	39	23	3
Bai, nire lanean.	42	14	2
Ez, ez dut deus ere egiten.	14	3	1
Ez dakit.	4	1	0

3. Sektoreen araberako banaketa	Herritarrak	Kolektiboak	Hezkuntza formala	Administrazioa	JIHko profesionalak
Bai, nire aisialdian gozatzen ditut.	32	6	16	5	6
Bai, nire lanean.	13	6	27	6	6
Ez, ez dut deus ere egiten.	16	2	0	0	0

Ez dakit.	5	0	0	0	0



4. ZEINTZUK?	
Jarduera puntualetan hartzen dut parte: bisita gidatuak, ibilbideak, arropa trukeak…	72
Naturaren aldeko kolektiboetan, talde ekologistetan, garapenerako GKEetan, aisialdiko taldeetan… lankidetzan aritzen naiz	36
JIHko jarduerak, lantegiak, hitzaldiak, jardunaldiak, eskolak, solasaldiak, natura-ingurunerako irteerak… prestatu eta egiten ditut	31
Boluntariotza ekintzak egiten ditut, komunitate energetikoan eta kontsumo taldean hartzen dut parte …	29
Ingurumenari buruzko informazioa hedatzen dut prentsaren, aldizkarien edo sare sozialen bidez…	24
Ingurumen arloko gaiak dituzten eta JIHko, prestakuntzako edo herritarren parte-hartzeko ekintzak barne hartzen dituzten programak koordinatzen ditut.	21
BESTE BATZUK	
Nire laneko atazetako bat da.	1
JIHren ezarpenean eta txertaketan lan egiten dut hainbat eremutan.	1
Nire lantokian ingurumenaz eta prebentzioaz arduratzen den teknikariari laguntzen diot.	1
Material inprimatuaren murrizketa, materialen birziklapena, argi naturala…	
Ikertzen dut.	
Kanpai jotzailea; eskuz joz.	



5 BAKARRIK EDO BESTE BATZUEKIN EGITEN DITUZU?	
Beste erakunde batzuen laguntzarekin: Udala, Mankomunitatea edo beste batzuk.	34


Beste kide batzuekin batera.	33
Bakarrik.	30
Beste bat. Zein?	
Nire lanean.	1
Denetarik: nire kabuz, kideekin eta beste erakunde batzuekin.	3
Bakarrik eta lankidetzan.	3
ED/EE	1

Jasangarritasunaren eta ingurumenaren arloko beharrak eta interesak

6. ZEIN KEZKA/BEHAR DITUZU JASANGARRITASUNAREN EDO INGURUMENAREN ARLOAN?	
Lankidetza.	62
Prestakuntza.	60
Informazioa.	50
Gozamena.	48
Laguntza.	39
Aholkularitza.	36
Finantzaketa.	33
Bat bera ere ez.	2
BESTE BATZUK:	
Denbora izatea.	1
Biodibertsitateko adituekiko lankidetza, ikastetxearen testuinguruan biodibertsitateari buruzko lantegiak egiteko. (Saguzarrak, hegaztiak, etab.)	1

Herritarren interes nagusiak: lankidetza, prestakuntza eta informazioa

6. Sexuaren araberako banaketa	Emakumeak	Gizonak	Nahiago dut ez esatea
Lankidetza.	41	21	0
Prestakuntza.	36	19	5
Informazioa.	35	13	2
Gozamena.	37	10	1
Laguntza.	28	11	0
Aholkularitza.	24	11	1
Finantzaketa.	23	10	0
Bat bera ere ez.	2	0	0



6. Sektoreen araberako banaketa	Herritarrak	Kolektiboak	Hezkuntza formala	Administrazioa	JIHko profesionalak
Lankidetza.	25	7	20	4	6
Prestakuntza.	35	8	11	4	2
Informazioa.	30	6	10	2	2
Gozamena.	32	3	9	3	1
Laguntza.	14	4	15	4	2
Aholkularitza.	14	2	13	5	2
Finantzaketa.	10	1	13	5	4
Bat bera ere ez.	1	0	1	0	0


Ezagutzak zabaltzeko interesa

Osasuna eta ingurumena edo biodibertsitatea eta birnaturalizazioa bezalako gaiek interesa pizten

7. BADUZU ALDERDI ZEHATZEN BATEAN DITUZUN EZAGUTZAK ZABALTZEKO INTERESIK?	
Osasuna eta ingurumena.	76
Biodibertsitatea, hiri espazioaren birnaturalizazioa.	70
Ingurumena, hiri ekologia.	56
Naturarekiko birkonexioa.	52
Jarduera ekonomikoak, kontsumo jasangarria, desazkundea eta hazkundearen ondorengo agertokiak.	51
Energia eta klima-aldaketa.	49
Hondakinak eta ekonomia zirkularra.	46

BESTE BATZUK:	
Eskolak natura ingurunean.	1
Jasangarritasunarekin eta ingurumenarekin lotutako hainbat gairi buruzko eguneratze teknikoa.	1
Dena interesatzen zait, baina irakasle eta ikertzaile gisa egiten dudan lanaren esparruan informazio asko dut eskura.	1
Irisgarritasuna.	1
JIH curriculumean txertatzea/egokitzea.	1
Ikasleendako jarduerak ikastetxeetan.	1

7. Sexuaren araberako banaketa	Emakumeak	Gizonak	Nahiago dut ez esatea
Osasuna eta ingurumena.	52	16	2
Biodibertsitatea, hiri espazioaren birnaturalizazioa.	46	21	3
Ingurumena, hiri ekologia.	39	15	2
Naturarekiko birkonexioa.	40	10	2
Jarduera ekonomikoak, kontsumo jasangarria, desazkundea eta hazkundearen ondorengo agertokiak.	32	18	1
Energia eta klima-aldaketa.	25	23	1
Hondakinak eta ekonomia zirkularra.	29	16	2



7. Sektoreen araberako banaketa	Herritarrak	Kolektiboak	Hezkuntza formala	Administrazioa	JIHko profesionalak
Osasuna eta ingurumena.	48	5	15	4	4
Biodibertsitatea, hiri espazioaren birnaturalizazioa.	37	5	18	5	5
Ingurumena, hiri ekologia.	33	5	9	5	4
Naturarekiko birkonexioa.	28	5	13	3	3
Jarduera ekonomikoak, kontsumo jasangarria, desazkundea eta hazkundearen ondorengo agertokiak.	28	4	12	4	3
Energia eta klima-aldaketa.	30	3	7	5	4
Hondakinak eta ekonomia zirkularra.	27	4	8	4	3


JIHko jarduera edo prometan parte hartzeko interesa

8. BADUZU INGURUMEN HEZKUNTZAKO JARDUERA EDO PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO INTERESIK?	
Bai, boluntariotza ekintzetan.	47
Bai, hiri baratzeetan.	39
Bai, beste pertsona batzuei ingurumenaren garrantziaz informazioa ematean.	27
Bai, komunitate energetikoetan.	26
Bai, artearen eta ingurumenaren arloan.	23
Ez.	11

Askotariko formatuetan modu aktiboan parte hartzeko interesa dago.

BESTE BAT. Zein?	
Gauzak eta arropa trukatzeko toki bat etengabe irekita egotea gustatuko litzaidake. Objektuak eta arropa etengabe trukatzeko irekita egotea, eta edonor joan ahal izatea.	1
Jarduerak, hitzaldiak, ikastaroak, bisitak…	1
Zabalkundea, parte-hartzea, ikerketa eta ebaluazioa barne hartzen dituzten prozesu konplexuetan parte hartzea edo/eta lankidetzan aritzea.	1
Elkarteetan egiten dugun jardueraren eragina murrizteko egiten ahal ditugun ekintza zehatzetan.	1
Izugarri gustatuko litzaidake hezkuntzari eta ingurumenari denbora eskaini ahal izatea. Oso garrantzitsuak dira osasun mentala eta naturak duen eragin positiboa, ikerketa zientifikoek erakusten duten bezala.	1
Arkitekturan eta hirigintzan.	1
Ikerketa eta azterketa sozioantropologikoak.	1
Kanpaiak eskuz jotzeko ikastaroa Aranzadiko Arraiza etxean.	1
Kontsumoak optimizatzeko moduari buruzko informazioa.	1
Iruñeko auzo guztietan dauden truke eta bigarren eskuko azoka txikietan parte hartzea.	1
Eskolan egiten diren jardueretan.	1
Biodibertsitateari buruz gehiago ikasiz.	1
Baldintzen arabera.	1
Dagoeneko egiten dut.	1

8. Sexuaren araberako banaketa	Emakumeak	Gizonak	Nahiago dut ez esatea
Bai, boluntariotza ekintzetan.	31	13	3
Bai, komunitate energetikoetan.	13	12	1
Bai, hiri baratzeetan.	26	10	3
Bai, beste pertsona batzuei ingurumenaren garrantziaz informazioa ematean.	15	11	1
Bai, artearen eta ingurumenaren arloan.	18	3	2
Ez.	9	1	1




8. Sektoreen araberako banaketa	Herritarrak	Kolektiboak	Hezkuntza formala	Administrazioa	JIHko profesionalak
Bai, boluntariotza ekintzetan.	32	2	7	4	2
Bai, komunitate energetikoetan.	14	4	4	2	2
Bai, hiri baratzeetan.	21	7	6	3	2
Bai, beste pertsona batzuei ingurumenaren garrantziaz informazioa ematean.	13	1	9	2	2
Bai, artearen eta ingurumenaren arloan.	8	2	10	1	2
Ez.	5	3	1	1	1

JIHren oraingo egoera

9. NOLA BALORATZEN DUZU INGURUMEN HEZKUNTZAREN EGOERA IRUÑEAN?


Puntuazioa	Maiztasuna, orotara	Emakumeak	Gizonak	Nahiago dut ez esatea	Herritarrak	Kolektiboak	Hezkuntza formala	Administrazioa	JIHko profesionalak
0	1	1	0	0	0	1	0	0	0
1	0	0	0	0	0	0	0	0	0
2	5	1	2	2	3	1	1	0	0
3	4	3	1	0	1	1	2	0	0
4	7	4	2	1	5	1	1	0	0
5	15	11	4	0	8	0	1	4	2
6	27	16	9	2	14	4	7	1	1
7	33	26	7	0	18	3	10	0	2
8	13	9	4	0	4	2	4	2	1
9	6	2	4	0	4	1	0	1	0
10	1	0	1	0	1	0	0	0	0



10. NOLA BALORATZEN DUZU INGURUMEN HEZKUNTZAREN EGOERA ZURE ERAKUNDEAN/KOLEKTIBOAN?

Puntuazioa	Maiztasuna, orotara	Emakumeak	Gizonak	Nahiago dut ez esatea	Herritarrak	Kolektiboak	Hezkuntza formala	Administrazioa	JIHko profesionalak
0	3	2	0	1	1	2	0	0	0
1	1	1	0	0	1	0	0	0	0
2	0	0	0	0	0	0	0	0	0
3	7	4	2	1	4	0	2	1	0
4	7	6	1	0	3	0	2	1	1
5	11	6	3	2	6	2	2	0	1
6	20	12	8	0	7	2	7	2	2
7	21	15	6	0	8	1	9	2	1
8	15	9	5	1	2	6	3	2	2
9	6	4	2	0	4	1	1	0	0

10	1	1	0	0	1	0	0	0	



Iruñeko ingurumen egoera ontzat jotzen da, eta erakunde edo kolektibo bakoitzak egiten duen lana zertxobait hobetzat.

Ingurumen arloko gaiei buruz sentsibilizatzeko jarduerak

11. ZURE USTEZ, ZEIN JARDUERA MOTA IZATEN AHAL DA ERAGINKORRAGOA KOMUNITATEA INGURUMEN ARLOKO GAIETAN SENTSIBILIZATZEKO?
OROKORRA
Mota guztietako jarduerak.
JIHri alderdi ideologiko edo politiko oro kentzea.
Ingurumen arloko gaiak greenwashing egiteko ez erabiltzea.
Kostu ekonomiko txikiko neurriak, herritarren parte-hartze handiagoarekin.
Edozein, baina gastuetarako laguntzarekin.
Ekintzak gastu ekonomiko handiaren arabera ez neurtzea.
Pertsonen osasunean eta ekonomia errealean eragina dutenak.
Aurrekontu handiagoa bideratzen zaienak, eta helburuetako bat zeharkakotasuna eta abian jartzeak dakarren zeharkako onura dutenak.
Jardueretan izena eman ohi ez duten pertsonek ikus ahal izanen duten zerbait. Parte hartu ez badute ere komunitateari ekarpena eginen dion zerbait. Iruditzen zait JIHren garrantzia ezagutzen ez duten komunitateko sektoreetara iritsi behar dugula.
PUBLIKO GUZTIENDAKO
ERAKUNDEEN LAGUNTZA ETA EREDUA
Udalen, Mankomunitatearen, Nafarroako Gobernuaren eta komunikabideen inplikazioa; ikusgaitasuna emateko ekintzak; autoaren erabilera murrizteko neurriak hartzea; garraio publikoa eta bizikletak babestea; bidegorriak sortzea; komunitate energetikoak sustatzea; naturaguneak zaintzea; kontsumo arduratsua sustatzea…
BIZIPENA - SENTSIBILIZAZIOA
Natura ingurunearekin eta beste pertsona batzuekin topo egiteko aukera ematen dutenak.
Sentsibilizazio ekintza deigarri eta zehatzak, zabalkundeari lotuak eta publiko zabalari zuzenduak: hirirako lehentasunezko gaiei buruzko informazioa eta mobilizazioa, buloak gezurtatzea…
Gizartea naturarekin konektatzea.
Naturarekin konektatzea eta hura ezagutzea.
Norberarekiko sentsibilizazioa eta zaintza, enpatia eta norberarekiko eta nire ingurunearekiko erantzukizuna dira arreta hori bera Naturan ere jartzea eragiten ahal dutenak. Uste dut gelditu behar dugula, geure burua ezagutzeko denbora hartu eta behatu. Oso azkar goaz, konpentsazioak bilatzen, asko lan egiteagatik, gabeziengatik edo… eta horrek ingurune osoarekiko eta izaki bizidun guztiekiko enpatia galtzea dakar. Bizirik irautea besterik ez dugu egiten, eta gainerakoa…
Denon keinu txikiek guztioi ekartzen ahal dizkiguten onurei buruzko didaktika. Talde kontzientzia.

INFORMAZIO ETA ZABALKUNDE ESANGURATSUA
Ingurumen alderdi bakoitzaren benetako egoerari buruzko informazioa, herritarrengandik hurbilekoa.
Autobusak erabiltzea erakargarriago egiteko modua bilatzea, ibilgailuen kiratsaren eta zarataren kaltetan; toki itxi batean ibilgailu bat abiaraztean sortzen den kiratsa ikusaraztea; informazio bisuala ematea, adibidez, karbono dioxidoaren kantitateekin.
Auzoko igande goizeko soinua, lanegun goizekoarekin alderatuta.
Alde hori erakustea Gobernuak edo beste edozeinek sustatutako iragarkietan, berriro diot.
Zabalkundea, OTSak handituz.
Boluntariotzako jardueren zabalkunde handiagoa.
Tailerrak, zabalkunde handiagoa.
Dena nola dagoen erakusten duten bideoak/film laburrak.
Sare sozialei garrantzi handiagoa ematea eta jarduera eta lantegi ugari, klima-aldaketari buruzko datu zientifikoak… zabaltzea. Hainbat adituri online elkarrizketak egin ahal izatea…
Bisita gidatuak auzoetan barna.
Bisita gidatuak ingurumen arazoak dauden tokietara.
Elkarreraginezko bisitak.
Kanpainak telebistan eta sareetan.
Ikastetxeen, erakundeen eta elkarteen bidez.
Hitzaldiak.
PRESTATZEA ETA ORIENTATZEA
Tailerrak.
Tailer praktikoak.
Kontsumo jasangarriko tailerrak.
Etxean sortutako hondakinei buruzko tailerra (plastikozko ontziak, aluminiozko papera…), ingurumenean duten eragina ezagutzeko… aluminioa nondik ateratzen den azaltzeko tailerra…
Autogestiorako tailerrak: barazkiak landatzen ikastea, kosmetika naturala, objektuak birziklatzea, funtzionatzen ez duten gauzak konpontzea, norberaren bizikleta elektriko bihurtzeko tailerrak.
Tailer interaktiboen eskaintza.
Adin guztiendako jarduerak.
Herritarren zientziako jarduerak.
Ingurumen Museoak, IMk eta udalek proposatutako jarduerak, prentsan edo sare sozialetan ongi zabalduta.
PARTE-HARTZEA - EKINTZA JASANGARRIAK
Parte-hartzekoak.
Aztarna ekologikoa konpentsatzeko programa erresilienteak eskaintzea, udal fiskalitatea egokituz, ekoizlearen zuzeneko salmenta erraztuz, gizartearen eskaerei erantzunez…
Ibaien garbiketa. Erakundeen arteko lankidetza. Bizi naizen tokiko ibaia oso zikin dago, eta elkarri pasatzen diote erantzukizuna. Bitartean, ibaiak zikin jarraitzen du. Ia lau urte daramatzat hemen bizitzen, eta iritsi nintzenean bezalaxe dago.
Zuhaitzen landaketa.
Azoka txikiak auzoz auzo.
Boluntariotzako programak, herritarren zientziako programak, herritarrei beren auzoetan hobekuntzak egiteko aukera emanen dieten programak, hiria atseginagoa izan dadin.
Truke jarduerak.
Administrazioak eta erakunde publikoek herritarren kolektiboen aldarrikapenei erantzutea.
Komunitate ekologikoaren (gizakiak, bioeskualdea) eta kidetasun sentimenduaren sorrera sustatzea, parte-hartzearen bidezko lehengoratze ekologikoko programa integralen bidez (hazien bilketa, mintegia, landaketa, mantentze-lanak…).
Kaleko jarduerak auzo bakoitzean.
JIHko jardueren txertaketa lehendik dauden ekitaldietan.
Herritarrek parte hartzen duten ekimenak. Adibidez, «lehia» auzoen artean zabor gutxiago sortzeko edo hobeki birziklatzeko.

Ekintza, eduki eta metodologia ugari proposatzen dira; antolatu eta lehentasunak ezarri ondoren, ekintza planean txertatuko dira.

Lankidetza zehatzetarako aukera emanen duten parte-hartzekoak.
Naturarekin konektatzea eta geure burua ere naturalizatzea.
METODOLOGIAK
Mezu argia duten jarduera praktikoak eta errazak.
Jarduerak espazio publiko eta irekietan.
Askotarikoak, xede hartzailearen arabera.
Kognitiboki irisgarriak diren jarduerak, hartzaile guztiendako.
Informazio positiboa.
Sentsibilizazio kanpainak zaintzarekin eta zehapenekin uztartzea (makila eta azenarioa).
Herritarren interesetatik abiatuta ekintza eraginkorrak sustatuko dituzten jarduketak proposatzea.
Hainbat mailatan, eskola hezkuntzan, lanbide arloan eta herritarren artean, berariazko prestakuntzen eta ezagutza transferitzeko irtenbide sortzaileen bidez.
Askotariko jarduerak izan behar dira, xede hartzaile mota desberdinetara hurbiltzeko.
EDUKIAK
Zaborra edukiontzitik kanpo ez uztea.
Birziklapena, bigarren eskua.
Etxeko hondakinen kudeaketa, nola egin behar dugun.
Kontsumo arduratsuarekin, desazkundearekin… erlazionatutako gaiak.
Turistifikazioak dakarren arazoaz hitz eginez, zerbitzuak dituzten auzoak izanik.
Energia berriztagarriei buruz ikastea.
Egungo klima eta ingurumen krisiaz jabetzea.
HAURRAK
Txikitatik heztea, ikastetxeetan.
Etorkizuna bermatuko duten eta haurtzarotik eta gaztarotik abiatuko diren jarduketak.
Haur Hezkuntzatik, ingurumenari buruzko jarduerak antolatuz eta naturarekin birkonektatzeko irteerak prestatuz.
BIZIPENEN BIDEZ LANTZEA
Haurrak sentsibilizatzeko, eraginkorrena beraiek bizi dituzten ekintzen bidez sentsibilizatzea iruditzen zait: gaizki birziklatzearen ondorioak, su artifizialen eragin negatiboak…
HITZALDIAK
Hitzaldiak ikastetxeetan eta institutuetan.
MATERIALAK
Birziklatze plantako materialak, eskoletan ekonomia zirkularreko proiektuetarako erabiltzeko prestatuak (oihalak, plastikoak, kartoiak); baratze komunitarioak; patio berdeak eskoletan; herritarren zientziako proiektuak; konpostaje komunitarioak.
LANTEGIAK
Tailerrak ikastetxeetan.
FAMILIAK
Guraso eskolak
Familiei zuzendutako ekintzak prestatzea, baina Iruñeko kaleetan, eta ez soilik ikasleei zuzendutako eskoletan.
IRAKASLEAK
Irakasleen prestakuntza eta sentsibilizazioa ingurumen edukietan eta askotariko metodologietan (ikaskuntza esanguratsua, bakerako hezkuntza eta taldeak kudeatzeko metodoak, naturara hurbiltzea…).
HEZKUNTZA KOMUNITATEA
Ikasgela ekologikoa sortzea inguruko parke batean edo eskolako patioan, teilatu berdeekin, altzari birziklatuekin…
Auzoko mapa berdea egitea, ikasleak zuhaitzak, baratzeak, birziklatze guneak eta eremu degradatuak identifikatzera atera daitezen.
Kanpaina «berdeak» ezartzen jarraitzea.
Ingurumenari buruzko ihes jokoa.
POLITIKARIAK
Politikariak horrelako saio edo jardueretan parte hartzera behartzea.

HELDUAK
Helduei dagokienez, uste dut beharrezkoa dela noizean behin birziklatzeko moduari buruzko prestakuntzaren bat ematea, bai lanean, bai nire bizitza pertsonalean horren inguruan zalantza ugari daudela ikusten baitut.

JIHren bidez ingurunea hobetzen laguntzeko neurriak

12. NOLA USTE DUZU LAGUNTZEN AHAL DUELA INGURUMEN HEZKUNTZAK ZURE INGURUNEA HOBETZEN?
SENTSIBILIZAZIOA ETA ERRESPETUA
Uste dut ingurumen hezkuntza funtsezkoa dela gure gizartean hain beharrezkoa den «bihurketa ekologikoaren» prozesuan. Baina gogaitu ere egiten nau batzuetan erakunde publikoek eta pribatuek dena edo ia dena hezkuntzaren esku uzteak, erabaki konprometitu eta ausartak hartu behar ez izateko, herritarren zati batean ezinegona sortzen ahal dutelako. Hau da, ingurumenaren alde «zerbait» egiteko irtenbide erraz gisa erabiltzen da, nahiz eta egiten diren plangintza eta kudeaketa ingurumenaren aurkakoak izan.
Nire egungo lanbide eremuan, ingurumen hezkuntzak hainbat arlo hobetzen laguntzen du: hondakinak, ura, energia… eta, batez ere, sentsibilizatzen eta aldaketarako ekintzak sustatzen.
Ezinbestekoa da. Ingurumen hezkuntza jaso badugu, gure eguneroko jardunaren bidez jasangarriagoak eta arduratsuagoak izaten laguntzen ahal dugu.
Ingurumena errespetatuz eta zainduz, pertsonen artean ingurune errespetutsuagoa eta osasungarriagoa sortzen da.
Oso tresna baliagarria da sentsibilizaziorako eta gizarte eraldaketarako.
KONTZIENTZIA ETA NORBERAREN EZAGUTZA
Norberaren mailako kontzientziazioa eta jarduketa gure eguneroko bizitzan.
Uste dut geure buruarekin gehiago konektatzen eta nor garenaz eta zer nahi dugunaz hobeki jabetzen laguntzen ahal digula. Oro har, uste dut herritarrak gizatiarrago egiten laguntzen ahal izanen lukeela.
Inguruarekiko lotura.
Kontzientzia hartzeko modu bat izanen litzateke.
Naturarekin dugun harremanaz jabetzea, ezin garela hari bizkarra emanda bizi.
Pertsonen, enpresen eta beste erakunde batzuen kontzientzia eta ekintzak eraldatuz.
Herritar kontzientziatuak sortuz eta egunerokoan ekintza jasangarriak gauzatuz.
Ingurumena ezagutzeak eta harekin konektatzeak hura zaintzeko grina pizten du, eta, horregatik, gure ingurumena hobetuko dugu.
INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA SUSTATUZ
Herritar gehiagorengana iritsiz.
PRESTAKUNTZAREN BIDEZ
Herritarrak sentsibilizatuz eta prestakuntza emanez.
Herritarren informazioa eta prestakuntza.
Herritarrak berriro heztea, autogestio handiagoz eta kontsumismo txikiagoz bizitzeko, diruarekiko hainbesteko mendekotasunik ez izateko eta hainbeste gauza behar ez izateko, eta, horrela, gutxiago kutsatzeko.
Berrerabiltzen irakastea.
Hain zuzen ere, heziz.
INGURUNEA HOBETZEA ETA INGURUMEN ERAGINA MURRIZTEA
Ingurumen hezkuntzak ingurunea hobetzen ahal du, ingurumen arazoei buruzko kontzientzia eta sentsibilizazioa handituz.
Hondakinen zaintza, naturaguneekiko errespetua, pestiziden murrizketa, plastikoen erabilera ahalik eta gehien murriztea.
Berriro azpimarratu nahi dut motordun ibilgailuen mugimendu azkarrak eragiten duen ikusmen estresa, zarata eta kiratsa, naturaren soinuekin, txoriekin… alderatuta. Musika ozen eta atsegina ere jarriko nuke, asko baitaude, eta bitartean xaboi burbuilak ere egiten ahal izango lirateke, pertsonen arreta modu erakargarrian pizteko, hiru gurpileko bizikleta edo bizikleta bitxi batetik, ohartaraziz bizikletaz edo autobusez joanen bagina ingurunea lasaiagoa eta atseginagoa izanen litzatekeela.


Aktibismoa eta hiri inguruneen birnaturalizazioa sustatuz.
Airearen kalitatearen eta ingurumen kalitatearen hobekuntza, gizarte sarea hobetuz.
Asko. Ingurumen hezkuntzak, zeharkakoa eta integratzailea denez, edozein ingurune hobetzeko aukera ematen du…
Sustatzen eta esaten dena betez. Publizitatean gastu gutxiago eta ekintza eraginkor gehiago. Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du.
Hiri ingurunea hobetuz, berdeagoa eta jasangarriagoa egiten saiatuz.
Hiri eremuak birnaturalizatuz, naturarekiko lotura handitzeko.
Biodibertsitatea eta bizi kalitatea hobetuz.
Zarata, kutsadura.
CO2 murriztea.
Klima-aldaketak dakartzan ondorioak saihesteko.
Trafiko pribatua eta horrek eragiten dituen kutsadura eta zarata murriztea.
Energia eta hondakinak hobeki kudeatzea.
Zikinkeria gutxiago.
Zaborrarekiko arreta.
Zikinkeria eta hondakin gutxiago.
Gure hondakinen kudeaketa.
Nafarroatik kanpokoa naiz, eta nire irudipena da oso hiri zikina dela. Nire lantokian ikasleek hondakin asko botatzen dituzte lurrera. Orain Atarrabian bizi naiz, eta lurra oso zikin dago. Duela gutxi arte Basaburuko herri batean bizi nintzen, eta han ere lurra zikin zegoen; jendeak gauza asko botatzen ditu lurrera… Iruditzen zait, oro har, ingurunea gutxi zaintzen dela, zikinkeria handia dagoela kaleetan.
Auzo periferiko zaharrak berdeagoak izatea.
Hirigintza eta hiri jasangarriagoarekin erlazionatuz.
Politiketan eta legerian eragitea, eta berriztapena eta teknologia sustatzea ingurumen arazoak konpontzeko.
Norberak hondakinak murriztea.
Arnasteko aire garbiagoa.
Guztiondako aberasgarria den ekonomia zirkularra.
Hiri ingurunearen birnaturalizazioa.
GIZARTE ERALDAKETA
Ingurunea hobetzeak gizarte hobekuntzak dakartza.
Gizalegea, auzo komunitatea.
Gizartearen eraldaketa eremu guztietan: ingurumena, kontsumo ereduak, ekonomia, elkartasuna…
Giro osasungarriagoa sortzen du, eta oso lagungarria da gizarte enpatikoagoa eta guztion ongiaren aldeko kezka handiagoa duena eraikitzeko.
Baita jardunbide jasangarriak sustatzea eta komunitatea ingurumen proiektuetan inplikatzea ere.
Gizarte lotura handiagoa.
BIZI KALITATEAREN ETA OSASUNAREN HOBEKUNTZA
Bizi kalitatea.
Osasungarriagoa eta eraginkorragoa.
Osasunaren eta soziabilitatearen aldetik.
Jendearen bizi azturen kalitatea hobetzea, giza garapenerako eta garapen jasangarrirako.
Modu askotan; bizi dugun erritmo azkar eta indibidualizatutik ateratzeko interesa izan behar dugu, eta geure burua nahiz ingurunea zaindu behar ditugu.
Herritarren estres orokorra murriztuz eta ingurumen osasuna hobetuz.
Familiaren eta komunitatearen ekonomiaren hobekuntza, baliabideen aprobetxamendua.
Tokiko enpresa txikiaren hobekuntza.
Ikusi besterik ez dago Costa Ricak nola erdietsi duen ingurumen kontserbazioan munduko erreferente izatea eta, horren ondorioz, nola hobetu dituen bere ekonomia eta gizarte erantzukizuna.
LAGUNTZA EMANEZ ETA TRESNAK ESKAINIZ
Baliabideak eta tresnak eskainiz.
Herritar gazteenen aztarna konpentsatzeko espazioak eta denbora eskainiz, adibidez, DBHrako puntukako txartelaren bidez.
Errealitatearen irudiekin.

Kolektiboei lagunduz, pertsona gehiagorengana iritsiz.
Uste dut ingurunea hobetzeko oinarria dela; horregatik, iruditzen zait ikastetxeek ahalik eta tailer eta baliabide gehien baliatzeko aukera izan beharko luketela.
Komunitate energetikoen kopurua eta haiendako laguntzak handitzea…
Eskoletan esku-hartze handiagoarekin, eta tailerrak eta informazioa kolektibo zaurgarriei nolabait helaraziz.
Natura zaintzeko eta hartaz gozatzeko jarduerak…
Iruñerriko animaliei eta landareei buruzko material eguneratuak eskura izanez (duela zenbait urte Iruñeko Udalak oso liburu interesgarriak argitaratu zituen, baina osorik gaztelaniaz zeuden).
JOKABIDE ALDAKETAK SUSTATUZ
Politika aktibo publikoek nahiz pribatuek (enpresek) bultzatutako jokabide aldaketak sustatuz. Adibidez, mugikortasun aktibo jasangarria (oinez eta bizikletaz) eta garraio publiko kolektiboa indartzea. Parte-hartzearen bidezko lehengoratze ekologikoko jarduerak.
Ikastetxearen inguruan tailerrak eskainiz (saguzarrak, inguruko hegaztiak…), ikasleek eragile aktiboak izaten ahal direla ulertzeko.
Herritarren deliberaziozko parte-hartzearen eta erabaki partekatuen hartzearen sustapena, hiri gaien inguruan eta ingurumen ikuspegiarekin.
KUDEAKETA-TRESNA
Kulturaren eta JIH ez-formalaren eremu guztietan txertatuz.
Udalaren arlo guztietan benetan txertatzen bada eta kudeaketan isla badu.
Ingurumen ikuspegia txertatzeko lan eginez eta kolektiboei, sektore ekonomikoari… tresnak emanez.
Eskala handian, ekoizpenean eta erakunde publikoen zaintza lanean eraginez.
Administrazioekiko lankidetza.
BESTE BATZUK
Ingurumen hezkuntzakoa oso-oso epe luzeko lana da. Horregatik, makilaren eta azenarioaren teknika erabili behar da.
Egungo ingurumen hezkuntza beti dago jarduera ekonomikoaren mende, sartu gaituzten eredu jasangaitzari eusteko. Larriena gero eta jasangaitzagoa dela da.
Asko; funtsezkoa da gure gizartearen etorkizunerako.
Ezin izanen dugu ingurunea ongi zaindu kalitatezko Ingurumen Hezkuntza izan arte.
Lehenik eta behin, ingurumen hezkuntzaren arloan lan egiten duten pertsona guztiek bat egiten dute. Hori egin ezean, ez dago aurrerapausorik.

Udalaren eginkizuna

Garrantzitsua da Udalak JIHko ekintzak sustatzeko eta beste erakunde batzuei laguntzeko

13. ZURE USTEZ, NOLA ERAGITEN AHAL DU UDALAK ALDAKETAN GIZARTEAN INGURUMENAREN ALDEKO KONTZIENTZIA HANDIAGOA IZAN DADIN?	
Sustatuz.	89
Beste erakunde, programa, arlo… batzuei lagunduz.	85
Prestakuntzaren bidez.	74
Finantzatuz.	68
Zerbitzuak eskainiz.	63
der izanez.	57
este bat: Zein?	
Eginez herritarrek ikusteko moduan - eredua emanez	3
Garraio publikoaz arduratuz.	1
Ingurumena zaintzeko araudia betetzen dela zainduz.	1
Hezkuntza politiketan eraginez: ikastetxe guztiek landare polinizatzaileak dituzten berdeguneen gutxieneko metro koadro kopurua izan behar izatea.	1
Eredua aldatuz; gainerako guztia faltsua da.	1
Kontzientziatuz.	1
Komunitatea proiektuetan inplikatuz eta parte hartzera bultzatuz.	1
Pirinio Bizien sarean parte hartuz?	1
Zuhaitzak ez moztea.	1



Esperientzia interesgarriak

14. EZAGUTZEN AL DUZU PARTEKATU NAHIKO ZENUKEEN INGURUMEN HEZKUNTZAKO ESPERIENTZIA, PROIEKTU EDO GAI INTERESGARRIRIK?
ESPERIENTZIA ZEHATZAK
Science around the city (Reino Unido), https://www.nhm.ac.uk/schools/teaching-resources/urban-nature-teaching-resources.html, https://education-for-climate.ec.europa.eu/community/system/files/2022-09/Germinar%20um%20banco%20de%20sementes-exhibition.pdf
Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren puntukako gidabaimena.
Gaur egun Runa2025 proiektuan parte hartzen ari gara.
Ilundain Fundazioa, Aterpeak proiektua.
Ingurumen Hezkuntzako Museoa.
Mancoeduca.
Gorosti Natur Zientzietako Elkartea…
Komuna Baratza Sanduzelai.
oPEN Lab.
Teacher for future Navarra.
MÁS Planeta Navarra.
Pirinio Bizien Hezkuntza Sarea.
Sendabelarrei buruzko tailerrak.
Eraikinak birgaitzeko jardunbide egokiak eta EHAEOren Birgaitzean Laguntzeko Bulegoaren sorrera.
Trukeko eta bigarren eskuko azokak Iruñean eta Iruñerrian.
Ibilgailu pribatua partekatzeko, bizikleta erabiltzeko edo garraio publikoa erabiltzeko kanpainak.
Heike Freireren prestakuntza.
Baratze komunitarioak.
Komunitate energetikoak.
Parte-hartzearen bidezko lehengoratze ekologikoari dagokionez: Baso Autoktonoa Berreskuratzeko Elkartea.
Hainbat sektore eta eremutan ezarri diren eta denborarekin ahantzi egiten diren esperientzia ugari daude. Uste dut interesgarria izanen litzatekeela esperientzia horiek berreskuratzea, bai Iruñekoak, bai gure ingurune hurbilekoak. Adibidez, UNESCOren eskola jasangarrien programa edo elkarteak ingurumen irizpideetara egokitzea.
Ezkabako garbiketa.

Proposatutako ekintza interesgarriak: batzuk dagoeneko existitzen dira, eta beste batzuk berriak

Oso interesgarria izanen litzateke Nafarroan bizi den neska baten proiektua babestea. 12 edo 13 urterekin, liburu bat idazteaz gain, ingurumenari buruzko hitzaldiak ematen ditu, eta Instagramen influencerra da, @elvialarastreadora kontuarekin. Sevillatik ere Natura Kontserbatzeko Foroan parte hartzera gonbidatu badute, Iruñetik jardueraren bat egitea, bere liburua aurkeztea edo hitzaldiren bat ematea proposatzen ahal izango litzaioke. Horrela, emakume gazte bati arlo horretan garatzen lagunduko litzaioke, gazte motibatu eta motibatzaile baten adibide gisa.
Beren kabuz habiak egin eta hirian jartzen dituzten pertsonak.
Ingurumen hezkuntza versus teknologia. Ana Fuertes Valentzian sustatzen ari den oso gai interesgarria. Zergatik ez da etxebizitza berrietan ur grisak berrerabiltzea sustatzen?
PROPOSAMENAK
Adierazpide original eta sortzaileren bat, arreta honetan jarriko duena: «Ea zer egiten duzun zure planeta maitearen alde».
Esperientzia handia dut, eta JIHko Zerbitzuarekin partekatu ohi dut.
Ibaien garbiketa. Estrategia-aldaketa garbitzeko moduan. Pintzak denbora galtzea iruditzen zaizkit, eta oso zaila da haiekin dena garbitzea. Errazagoa da metalezko erratz bat erabiltzea.
Eskolako Proiektu Ekologikoak: Ikastetxe asko ingurumen hezkuntza beren curriculumean txertatzen ari dira proiektu ekologikoen bidez. Proiektu horiek tokiko eta munduko ingurumen arazoak konpontzen modu aktiboan parte hartzeko aukera ematen diete ikasleei eta irakasleei. Adibidez, birziklatze ekimenak, ura kontserbatzeko programak eta eskolako lorategiak sortzea.
Gauzak trukatzeko gune iraunkorrak; natura errespetatzen duen autokudeaketarako tailerrak egiteko tokiak; eskoletan naturari eta kutsadurari buruzko tailerrak, baita kontsumismoari eta dirua modu egokian erabiltzeari buruzkoak ere.
Mugikortasun aktiboari dagokionez, lanera joateko bizikletaren erabilera sustatzeko politikak, bidegorri seguruak, azkarrak eta zabalak.
Garrantzitsua iruditzen zait beste ikastetxeetan ingurumenarekin erlazionatuta egiten diren ekimenak ezagutzea, proiektuak eta baliabideak lantzeko eta partekatzeko. Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta ingurumen arloko ikastetxeen eta ikasleen parte-hartzea bilatzea Lehen Hezkuntzako ikastetxeekin, bai aholkularitzan, bai prestakuntzan.
Ikastetxeetako patio guztiak naturalizatzeko beharra. Naturarekiko lotura erdiesteko eta, aldi berean, eskolako baratzea bermatu ahal izateko.
Egiten den jarduketa bakoitza nori zuzenduko zaion. Borondatezkoak ez diren prestakuntzak sustatzea, ikastetxeetan, lantokietan, administrazioan…
Urtero egiten ditut proiektuak nire ikasleekin: 2030 Agenda, neohumanismoa, naturarekiko birkonexioa eta gure inguruko espezieak.

Beste gai interesgarri batzuk eta iruzkinak

15. BADAGO EZINBESTEKO GAIREN BAT? ZER EZ DUGU AHAZTU BEHAR?
Koherentzia.
Integrazioa, konpartimentu itxi batean ez egotea…
JIH zeharkako gaia da.
JIHko profesionalei entzutea.
Sare lana.
Apaltasuna. Udala herritarren mailan jartzea. Gaur egun mendekoak eta kontsumitzaileak gara. Elkarrekin landu beharreko gizarte arazo ugari ditugu, baina gure erakundeak gu indibidualizatzen saiatzen ari dira.
Ez dugu bizitzeko moduko beste planetarik.
Feminismoa.
Irisgarritasun unibertsala.
GUZTION osasuna.
Ezagutzen dena baino ez da zaintzen; naturarekin harremanik ez badago ez dago ingurumen hezkuntzarik.
Maite duguna zaintzen dugu; horregatik, naturak eskaintzen diguna ezagutzea eta hartaz gozatzea (fauna, hegaztiak, flora, paisaiak…) oso lagungarria izaten ahal da hausnartzeko eta kontsumo nahiz hondakinen kudeaketa ohiturak aldatzeko, ingurumena zaintzearen alde.

Bestearen lekuan jartzea (erantzukizuna, planeta bakarra, gizalegezko balioak) ezinbestekoa da jasangarritasuna erdiesteko.
Inguru hurbilaren zaintza, errespetua, ezagutza eta babesa.
Elkar zaintzea.
INFORMAZIOA EMATEA
Herritarrei informazio erraza eta irisgarria ematea, gezurrei eta desinformazioari aurre egiteko.
INTERESGUNEAK - EKINTZAK
Benetan hiri jasangarri bat sustatzea, itxura hutserako izan gabe, ingurunea zaintzeko benetako ekintzekin.
Haurrak eta natura.
Hiri inguruneen birnaturalizazioa, batez ere ikastetxeen inguruneena.
Klima-aldaketa, herritarren inplikazioa egokitzapenean eta arintzean.
Uste dut garraiobide aktibo eta jasangarrien inguruan hobetzeko aukera dagoela.
Ibaiak gure aliatuak dira, baina gure etsaiak direla ematen du, zeinen gaizki zaintzen ditugun ikusita. Begiratu batean ikusten ahal da zer egoeratan dauden.
Hondakinak behar bezala kudeatzea, kontsumoa murrizten saiatzea eta energia aurrezteko kanpaina gehiago egitea.
Mesedez, zaborra edukiontzira.
Hondakinak.
Benetako birziklapena, ez jendaurrean saltzen digutena.
Iruñean dauden eraikinen parkea berritzeko premia larria.
Azpiegitura handiek (ikus AHT), makroetxaldeek eta meatzaritza proiektuek eragiten duten kalteaz hitz egitea, baita Sanferminek ingurumenean dituzten eraginez ere.
JARRAIPENA ETA HOBEKUNTZA
Administrazioak erraztasunak ematea; zerbitzu bat ezartzen bada, edukiontziena, adibidez, akatsak hauteman eta konpontzea; adinekoak eta zailtasunak dituzten pertsonak zaintzea.
ASKOTARIKO XEDE HARTZAILEAK
Zaila da zenbait gazteri ingurumen hezkuntza ematea eta haren garrantzia ikusaraztea. Ez dute garrantzitsutzat jotzen, arau batzuk betetzen ez badira zer gertatzen den beren begiz ikusi ezean. Zuzenean eragiten ez dien gai gisa ikusten dute.
Ikastetxeetako eta gizarteko hezkuntza, naturaz jabetuago dagoen eta harekiko kontzientzia handiagoa duen gizartea sortzeko.
Hezkuntza formala aukera paregabea da ingurumenaren arloan hezteko.
Enpresei, industriei, merkataritzari… ekoizpenean aldaketak egiteko, hondakinak murrizteko eta kudeatzeko, eta karbono aztarna konpentsatzeko eskatzea.

16. Beste zerbait esan nahi baduzu, hau da zure tokia
ESKER ONAK
Eskerrik asko honi buruz galdetzeagatik…
Eskerrik asko egin duzuen eta egiten ari zareten aldaketagatik. Gobernu aldaketa nabari da, asko hobetu baita.
Eskerrik asko ekimenagatik, oso beharrezkoa da.
Eskerrik asko zuen lanagatik.
Eskerrik asko!
Zuen lana ezagutzen dut, eta asko estimatzen dut.
Eskerrak ematea ingurumenaren aldeko urratsak egiten hasteagatik.
JIHren arloan egiten ari zaretena emankorra da.
Ingurumen hezkuntzak zientzia hezkuntzarekin eta balioetan heztearekin batera joan behar du. Ez du funtzionatzen hiru osagaiak ez baditu.
Niretzat, ingurumen hezkuntza kontzientzia pertsonalarekin batera doa: zer gertatzen da gizartean? Nori edo zeri eskaintzen ari gara gure energia, denbora…? Gero eta konektatuago eta deskonektatuago gaude; kaltetzen dugun pertsona ez ikusteak erraztu egiten du hori. Entzuteko espazioak, ez soilik ingurumen arloan, baita arlo pertsonalean, lantokietan, eskoletan… gizarte arloan ere.

Gustatuko litzaidake jendea jabetzea zaindu beharreko planeta bat dugula; natura gurea ez den mirari bat dela, eta zaindu behar dugula, harekin konektatu eta hark ematen diguna jan, pestizidekin pozoitu gabe eta hartaz abusatu gabe. Denok haren alde egitea; hau da, natura izatea garrantzitsuena, ez dirua.
Inguruak (giza inguruneak eta ingurumenak) gure geneak eta jarduteko modua eraldatzen ditu; beraz, egin beharreko edozein jarduketatan kontuan hartu beharreko lehen puntua izan beharko luke.
Zaborra dagokion tokian bilduta.
Izugarri gustatuko litzaidake hiri baratze gehiago eskura jartzea. Horietako bat eskuratzeko aukera izatea.
ANFASetik Iruñerriko Mankomunitateak proposatutako hainbat tailerretan parte hartzen dugu. Izugarri gustatuko litzaiguke asteburuetan ere haietan parte hartu ahal izatea. ESKERRIK ASKO.
Nire espazioa ez da pantaila bat. Harreman pertsonala behar du.
EHAEO behar duzuen edozertarako zuen eskura gaude, denok norabide berean arraun egiteko.
Polita izanen litzateke Iruñean gauden ikastetxeen artean proiektu komun bat garatzea.